

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2.1
1.1 AGIRIAREN HELBURUAK ETA EDUKIA.....	2.1
1.2 AURREKARIAK.....	2.1
2. BERRIKUSPEN PARTZIALAREN JARDUN-EREMUA ETA HELBURUA	2.2
2.1 BERRIKUSPEN PARTZIALAREN JARDUN-EREMUA.....	2.3
2.2 BERRIKUSPEN PARTZIALAREN HELBURUAK.....	2.5
2.3 PROPOSATUTAKO JARDUERAK.....	2.6
3. BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN AZTERKETA	2.9
3.1 DOTetatik ONDORIOZTATZEN DIREN LURRALDE-PLANAK.....	2.9
3.1.1 EHAeko Nekazaritzako eta Basogintzako Lurraldeko Plan Sektoriala.....	2.9
3.1.2 Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala eta horren 1. aldaketa	2.13
3.2 AZTERKETAREN EREMUAN ERAGINA DUTEN BESTE PLAN BATZUK.....	2.26
3.2.1 EHAeko korridore ekologikoen sarearen azterketa.....	2.26
3.2.2 Ingurumen-zarataren Ebaluazio eta Kudeaketako Plana Oiertzunen.....	2.30
3.2.3 Oiertzun Ibaiaren Azterketa Hidraulikoa.....	2.31
3.2.4 Lurzorua kutsatzeko jarduerak jasaten edo jasan izan dituzten inbentarioa edo lurzorua kutsa dezaketen instalazioena.....	2.32
3.3 NAZIOARTE, EUROPAKO KOMUNITATE, ESTATU EDO AUTONOMIA EREMUAN EZARRITA DAUDEN HELBURUEN ETA KONPROMISOEN IDENTIFIKAZIOA	2.34
4. AZTERTU DIREN ALTERNATIBEN ANALISIA. "0" ALTERNATIBA	2.36
4.1 "0" ALTERNATIBA.....	2.36
4.2 BERRIKUSPEN PARTZIALEAN AURREIKUSITAKO AUKERAK.....	2.37
5 LURZORUEN HARTZE-GAITASUNAREN BALORAZIOA BERRIKUSPEN PARTZIALAREN EDUKIEN AURREIKUSPENERAKO	2.43
5.1 BITARTEKO HIDRIKOEI ETA JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAREN BABESARI BURUZKOAK.....	2.43
5.1.1 Bitarteko hidrikoen erabilgarritasuna.....	2.43
5.1.2 Jabari Publiko Hidraulikoaren babesa.....	2.44
5.2 ERREPIDEEN ETA GAINERAKO AZPIEGITUREN INGURUAN AURREIKUSTEN DEN ERAGINARI BURUZKOA.....	2.45
5.3 LURZORUAREN KONTSUMOARI BURUZKOA.....	2.46

6. BERRIKUSPEN PARTZIALEKO PROPOSAMENEK ERAGIN DITZAKETEN EREMUEN INGURUMENEZKO EZAUGARRIEN DESKRIBAPENA	2.47
6.1 EREMU GUZTIETAKO INGURUMENAREN EZAUGARRI KOMUNAK	2.50
6.1.1 Fauna interesgarria	2.50
6.1.2 Nekazaritzako ustiategi estrategikoak	2.51
6.1.3 Zarata eta area akustikoak	2.51
6.1.4 Arrisku naturalak	2.53
6.2 EREMUEN DESKRIBAPENA	2.57
6.2.1 Usategietako Gaina	2.57
6.2.2 Oiartzun haranaren ibarra Ugaldetxo auzoan	2.60
6.2.3 Sarobe edo Txalaka erreka ibarra	2.64
6.2.4 Elizalde	2.68
6.2.5 Arragua	2.72
7. PROPOSATU DIREN JARDUEREN ONDORIO ESANGURATSUEN DESKRIBAPENA	2.77
7.1 USATEGIETAKO GAINA	2.78
7.2 OIARTZUN IBAIAREN HARANA UGALDETZO AUZOTIK IGAROTZEAN	2.82
7.3 SAROBE ERREKAREN IBARRA	2.87
7.4 ELIZALDE	2.92
7.5 ARRAGUA	2.96
8 INPAKTUAK AURREIKUSTEKO, MURRIZTEKO EDO ARINTZEKO NEURRIAK	1.101
8.1 NEURRI ORKORRAK	1.101
8.1.1 Udalaz gaindiko planetatik datozen neurriak	1.101
8.1.2 Interes komuneko eta baso-masen habitateko kontserbaziora edota sustapenera bideratutako neurriak	1.102
8.1.3 Beste ingurumen neurri orokorrak	1.103
8.1.4 Eraikuntza berrien antolamendu espazialaren baldintzen araberako iraunkortasun irizpideak	1.104
8.2 JARDUERA-EREMU ZEHATZEI DAGOZKIEN NEURRIAK	1.105
8.2.1 Usategietako gaina	1.105
8.2.2 Oiartzun ibaiaren harana ugaldetxo auzotik igarotzean	1.107
8.2.3 Sarobe erreka ibarra	1.108
8.2.4 Elizalde Auzoa	1.109
8.2.5 Arragua Auzoa	1.110
9. PLANAK INGURUMENEAN DITUEN ERAGINEN JARRAIPENA	1.113
10. LABURPEN DOKUMENTUA	1.117
ERANSKINAK	1.129

1. SARRERA

1.1 AGIRIAREN HELBURUAK ETA EDUKIA

Ingurumen-Iraunkortasunari buruzko Txostena hemen sartzen da hiri-antolamenduko planak tramitatzeko eskatzen den dokumentazioaren zati gisa, Lurzoruaz eta Hirigintzaz diharduen ekainaren 30eko 2/2006 Legearen garapenean premiazko neurriei buruz ari den ekainaren 3ko 105/2008ko Dekretuan xedatzen dena betez.

Aipaturiko Dekretuaren 31 artikuluan adierazten da ingurumeneko eraginaren (ECIA) ebaluaketa bateratua pasatu behar duten hirigintza-plan guztiek izan beharko dituztela, besteak beste, ingurumena iraunarazteko txostena, garapen jasagarriaren printzipiotik erabakitzen den antolakuntza sorraraziko duena. Era berean, adierazten da aipaturiko txostenak berarekin izango duela eremuko arrisku naturalen mapa bat eta jarduerak aurreikusten diren lurzoruen onespengaitasunari buruzko azterketa bat.

Edukiei dagokienez, *apirilaren 28ko 9/2006 Legearen I Eranskinean, plan eta programa jakin batzuek ingurumenaren baitan dituzten eraginaren ebaluaketari buruzkoa*, adierazten da ingurumena iraunarazteko txostenak bere baitan izan behar duen informazioa, agiri hau egiteko orduan erreferentziatzat ere hartu dena. Aipaturiko Legearen 8. artikuluan esaten den bezala, Ingurumena Iraunarazteko Txostenak "plana edo programa aplikatzearen ondorioz ingurunean izan daitezkeen ondorio esanguratsuak identifikatu, deskribatu eta ebalua beharko dira, baita arrazoizko alternatibak ere, teknikoki eta ingurumenarekiko bideragarriak, eta beste batzuen artean zero alternatiba, kontuan izango dituztenak planaren edo programaren helburuak eta aplikazioko lur-eremuak".

Ingurumen-Iraunkortasunari buruzko Txosten hau Oiartzungo Udalerriko Plangintzaren Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzialaren Behin Behineko Onespeneren agiriaren zati da, ondoko areei dagokiena: ARR-1, ARR-5, UGA-1-A, UGA-1-C, UGA-1-D, UGA-2, UGA-4, UGA-5-A, UGA-11, UGA-12, UGA-14, ELI-3, ELI-4, ELI-6, LAN-3.

1.2 AURREKARIAK

2003. urtearen amaiera aldera Oiartzungo Udalak erabaki zuen Udalerriko Plangintzaren Arau Subsidiarioak berriro aztertzea, eta aldi berean Ingurumenaren Eraginaren Ebaluaketa bateratua hasi zen, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan xedatzen dena betez.

Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen onespena, Lurzoruaz eta Hirigintzaz diharduena, bat dator Oiartzungo AASSen Berrikuspenaren oneste-prozesuaren azken zatiarekin. Lege horretatik ondorioztatzen diren

errekerimenduak ez-betetzearen ondorioz, horien artean Plangintzako Aholku-Batzordea ez osatzea, Udalak baliogabe utzi du AASSen Berrikuste-prozesuaren behin betiko onespena (IKAUR, SLk egina), 2007ko apirilaren 19ko data duena. Jarraian aipaturiko Aholku-Batzordea osatzea erabaki zen.

Batzarrak egiten hiru hilabete eman ondoren, Aholku-Batzordeak txostena egin zuen eta bertan ematen ziren gomendioen artean, area jakin batzuei eta ordenamendu-ereduari buruzkoak, AASSen dokumentua osorik baliogabetzea eta berria egitekoa zegoen, aipaturiko Batzordeko eta Oiartzungo hiritarren partehartze aktiboarekin.

Aholku-Batzordearen gomendio batzuk kontuan hartuta, Udabatzak erabaki zuen, 2008ko otsailaren 18an, AASSak Berrikusteko agiriaren behin betiko zati-onespena ematea, zeinetan jarduera-eremu batzuk etenik utzi ziren. Halaber, erabaki zen Oiartzungo ASSen Berrikuspen Partzialari ekitea, etenik utzi ziren arloei barne, eta, era berean, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluaketa Bateratuaren prozeduratik igaro zena. Erabakia osorik kontsultatu ahal izateko Oiartzungo AASSen Berrikuspen Partzialaren Memoriaren I .1 atala bidali da.

Aholku-Batzordearen bitartez publikoaren partehartze-prozesua gauzatu ondoren, AASSen Berrikuspen Partzialaren Aurrelaburpenaren agiria onartu zen, eta era berean onartu zen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluaketa Bateratuari zegokiona, bi agiriak publiko eginez eta administratzaileen kontsultara jarrita.

Hasierako onarpenari begira (2009ko urtarrilean) Ingurumen-Iraunkortasunari buruzko Txostena idazten da, ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua jarriturik, eta Dekretuan bertan xedaturiko edukiak eta Oiartzungo Arau Subsidiarioen berrikuspen orokorrean eta gero partzialean ingurumen ebaluaketaren inguruan egindako lanen ondorioak barnesartuz. Lan hauek, alorretako txostenak eta gainerako dokumentazioa (alegazioak ...) Ingurumen-Iraunkortasunari buruzko Txostenean jasoak izan dira.

Behin behingo onarpena jasotzeko egin den dokumentu honek, hasierako onarpenerako egindakoaren egitura mantenduz, Memoria agirian, jendaurrean izandako epean jasotako alegazioen ondorioz eta kontsultatu diren beste administrazioen txostenek eragindako aldaketak islatzen ditu.

2. BERRIKUSPEN PARTZIALAREN JARDUN-EREMUA ETA HELBURUAK


2.1 BERRIKUSPEN PARTZIALAREN JARDUN-EREMUA

Berrikuspen Partzialaren dokumentua 2008ko otsailaren 18ko udal akordioan suspentsoan utzitako eremuei buruzkoa da. Eremuak honako hauek dira:

Bizitegi-lurra:	ARR-1, UGA-1-A Y ELI-4. UGA-5-A, UGA-1-C, UGA-1D Y UGA-4.
Lur industrialak.	UGA-12 Y UGA-11 LAN 3
Hirugarren sektoreko lurra:	ARR-5
Errepideak:	UGA-2 Y UGA-14

Eremu hauen kokagunea 1go irudian ikus daiteke.

1go Irudia: Suspentsioan utzitako eremuak



Iturria: Oartzungo Planeamenduko AASSen Berrikuspen Partzialaren Memoriatik hartuta. Hasierako onarpena.

2.2 BERRIKUSPEN PARTZIALAREN HELBURUAK

Oiertzungo Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzialaren helburua da hirigintza-jarduerarako hainbat eremu aldatzea, berriz planteatu baitira.

Planeamenduaren inguruko helburu orokorreki dagokienez, berriz, orain tramitatzen ari den Berrikuspen Partzialaren memorian 2007ko AASS Berrikuspeneko txostenean planteatutakoak jasotzen ditu.

Planteatutako helburuen artean, ingurumenari buruzkoak azpimarratuko ditugu segidan:

- Hirigintza-antolamendu eredu ireki eta malgua garatzea; lurraldeko natur balio nagusiak errespetatu, lurzorua babesteko eremuak ezarri eta etorkizuneko garapen aukerak hipotekatuko ez dituen.
- Udalerriko landa eremu ahulenetako paisaia eta ekologia babesteko neurri bereziak hartzea, landa ingurua babesteari lehentasuna emanda, eta ez hirigintza arloko eskaerei.
- Udalerriko natur baliabideen gaineko babes bultzatzea, natur balioei eustearekin bateragarriak diren landa inguruko ekimen berriak sustatuta.
- Bidegorri eta oinezkoentzako pasealeku sare osagarri bat sortzea, nahitaez autoa erabili behar ez izateko. Etorkizunean udalerritik kanpo trena erabiltzeko aukera sustatzea.

Antolamendu-irizpideei dagokionez, honako hauek dira artezpide nagusiak:

- Hazkunde kontzentratua
- Etxebizitza-dentsitate handiagoko bizitegitarako lurzorua
- Planteatutako garapen-jarduerak hirigintza-azpiegitura berriak sortu beharko dituzte
- Lurzorua hirigintza-erabileren arteko gero eta oreka handiagoa
- Udalerraren hazkunde endogenoaren gaineko eskaerak lehenestea, eta udalerriaz gaindiko garapen-eskaerei horien ondoren kasu egitea
- Hirigintza-erabileren arteko erlazioa sustatzea
- Landa esparruak, eta paisaia eta ekologia aldetik babestu beharreko eremuak ezartzea, lurzoru urbanizaezinean
- Ondarea babestea

2.3 PROPOSATUTAKO JARDUERAK

AASSen Berrikuspen Partzialaren agirian proposatzen da, alde batetik, AASSen Berrikuspen dokumentuan (2007) proposaturiko area jakin batzuen desklasifikazioa, eta, beste aldetik, gainerako eremuetako jarduerak aldatzea. Orobat, hirigintza-jarduerako beste area berri bat proposatu zen.

Sailkatu gabeko eremuak

- Arraguako Hornidura Parkea ARR-5 HIE.
- Ugaldetxo Ibaiertza UGA-2 HIE
- Ugaldetxo Hegoaldea UGA-4 HIE
- UGA-5-A HIE. Ugaldetxo Mendebaldea UGA-5
- Hegoaldeko saihsbidea UGA-14 HIE
- Learre ELI-4 HIE

Berriz planteatuko diren eremuak

- Lanbarrengaina Poligonoa LAN-3 HIE
- Arragua ARR-1 HIE
- Ugaldetxo UGA-1-A HIE, UGA-1-C, UGA-1-D
- Zerradi UGA-11 HIE
- Zerradiberri Poligonoa UGA-12 HIE
- Arraguako Hornidurazko Parkea H.I.A. ARR-5.

Hirigintza-jarduerarako eremu berriak

- Elizalde ELI-6 HIE

Segidan, garatuta berriz planteatuko diren eremuetarako eta hirigintza-jarduerarako eremu berrietarako proposatutako jardueren deskripzioa egingo da:

- Lanbarrengaina Poligonoa LAN-3 HIE

Sarrera Lanbarrengo poligonotik izango duen ekonomia-jardueratarako poligono berri bat sortzea planteatu da. Poligono hau eraikitzearekin batera Oiarzungo bailararen barruan kokaturik dauden enpresak (Talleres Dorronsoro Iturriotzen eta Industrial Cadarso, Altzibarren) lekuz aldatzea planteatzen da. Natur balioa duten eremuak eta interes komunitarioko habitatak zaintzea da horretarako erabili den ingurumen irizpidea, bai eta Jaizkibel-Aiako Harria korridore ekologikoan duen funtzioa ere. Oinezkoentzako bakarrik izango den plataforma bat eraikiko da, goiko plataformatik Usategietako leporantz.

- Arragua ARR-1 HIE

Hirigintzako proposamena Arragua auzoko Iparraldearen berrantolakuntza integrala egitean datza. Egingo diren jarduerak jada dagoen bizitegi-zona berurbanizatzea eta 454 etxebizitza altxatzea dira, Uretxeko industria-instalazioak kendu izanaren ondorioz sortu diren lurrak aprobetxatuz. Horretaz gainera, Euskotrenen tren-langa iragazkortuko da eta Tren-Geltokia zaharberrituko. Ingurumenaren inguruko jardueren artean, Lintzirin erreka ibarra berreskuratzea proposatzen da eta gerora Larzabalzar aldean egin nahi den landa-parkea sustatu. Ordenamendu berriak gaur egungo Arragua auzoko iparraldean "kalea" egiteko aukera emango du, parke gisa berreskuratuko den berdegune batean, arboladiaren ondoan dagoena, eta Lintzirin erreka ibarra berreskuratzea.

- Ugaldetxo UGA-1 HIE

Eremu honen berrantolaketa integrala proposatzen da, GI-3631 errepideko zeharkaldia Mendebaldera desplazatuta, garai bateko eskoletarantz, berriro ere kalifikatzeko aukera emanaz. Proposatzen diren jarduerak, UGA-1 eremuan, GI-3631 errepidearen trazatu berria eta Elizalde aldera zubi berria egitea dira, baita errepidearen gaur egungo trazatua oinezkoentzat egokitzea, benetako hirigunea eratzen laguntzeko, eta 180 etxebizitza altxatzea ere. Berdeguneak Oiartzun ibaiaren eskuineko ertzean koncentratzen dira, ibi-parke bat eraikiz eremuaren ingurumenaren hobekuntza (betelana kendu eta jatorrizko topografia eta ibai-ertzeko landaredia berreskurapena) eta erabilera publikoa konbinatuz.

Kirol instalazioei dagokionez, berau finkatzea planteatzen da (H.I.A. UGA-15), UGA-1 eremuaren garapenaren egokitzapenerako beharrezkoak diren eraberritzeak ahalbideratuz, batetik, eta erabileraren intentsitatea kontuan izanik beste aldetik.

- Zerradi UGA-11 HIE

Industri zonaren berrantolamendu integrala planteatzen da Barne Erreformako Plan Berezi baten bidez, dauden industri instalazioak finkatzea, ekialdeko zatian pabiloi bat erakitzea eta bideak hobetu eta aparkalekuak hornitzea ahalbidetuz.

- Zerradiberri Poligonoa UGA-12 HIE

Industri hedapeneko eremu berri baten hirigintza garapena proposatzen da, Hirugarren arloko jarduera berriak finkatzeaz gain, hainbat partzela eta pabiloi

aurreikusten dira udalerriko lurzoru urbanizaezinean zehar barreiaturiko industria izaerako kokaleku desberdinen lekualdaketarako (materialeen parkeak, autoak desegiteko lekuak, biltegiak, garajeak, tailerrak, etab...). Gainera, beste hainbat helburu ere lortu nahi dira, hala nola, GI-2132 errepidetik Zerradi eta Ugaldetxoko industrialdeetarako ibilgailu-sarbideen arazoa konpontzea, Zerradiko eremua zerbitzuetako bide batez hornitzea -bere azpiegitura sarearen euskarri gisa balioko diona- egun dauden zubiak ordezkatuaz eta ondorioz, hustubide eta urpetzeko arazoei irtenbidea emanez.

Zerradi Berriko eremua bailararen barrurantz industria hedatzeko azken maila gisa planteatzen da, ondoren babeserako berariazko arauketa bat ezartzen delarik ondoko lurzoru urbanizaezinentzat, Babes Bereziko Zoru kategoriara atxikiaz, ondorioz hirigintzako kudeaketatik lortutako berdeguneak bailararen barruan antolatuko dira.

- Ekipamendu Komunitariorako Sistema Orokorra A.I.U. ARR-5 (lehen Arraguako parke dotazionala).

Arraguako dotaziozko parkeak okupatzen zuen azaleratik (461.200 m²) oraingoan 406.055 m² lur ez urbanizagarri bezala sailkatzea proposatzen da, gainerakoa (55.145 m²) Sistema Orokorra bezala sailkatuaz, bertan ekipamendu komunitarioa kokatzeko asmoarekin. Lur ez urbanizagarri bezala sailkatuko den eremuan honako azpisailkapena egiten da: lurren ezaugarriengatik eta aurreko antolaketa kontuan izanik, Besbes Berezia, Nekazal-abeltzantza eta Lur-azaleko uren babesekoa izendatzen dira (ikus plana Memoria izeneko dokumentuan eta fitxan). Sistema orokorrari dagokionez, lurraren okupazioa 15.000 m²ra mugatzen da.

- Elizalde ELI-6 HIE

Egoitza-area berri baten garapena planteatzen da Elizalde herrigunearen zabaltze modura, 200 etxebizitza berriko programa batekin. Operazioarekin jabari eta erabilera publikorako espazio libre eta berdeguneko beharrezko lurzoruak lortzea programatzen da, Aurrerapidean ezarritako lurralde-ereduari hasiera emateko, auzo desberdinen hiri ekosisteman oinarritua Oartzun ibaiaren ondoan hiri inguruko ibai-parke handi baten inguruan. Halaber, Altzibarko hiri-bilbean Elizaldeko hiri-egituran zehar aurreikusitako oinezko eta bizikleten ibilbidea integratzea programatzen da eta bere lotura Iturriotzekin, ezarritako ereduaren ikuspuntu orokorraren barruan.

Egoitza sustapenarekin sistema orokor eta lokaleko zuzkidura publikotarako lurzoruak lortzea aurreikusten da (tanatorio, haurtzaindegi, biblioteca, merkatu,...).

3. BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN AZTERKETA

Kontuan izanda Berrikuspen Partzialaren lurralde-eremua, jarraian beste plan eta programa batzuk aztertu ziren, eta horien inguruko erabakiek, bereziki ingurumen-izaera dutenek, eragina dute areen plangintzaren baitan.

3.1 DOTetatik ONDORIOZTATZEN DIREN LURRALDE-PLANAK

Euskal Herriko Lurralde-Antolamenduaren Legeak, maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak, ondoren adieraziko diren bitartekoak xedatzen ditu Euskadiko Autonomia Erkidegoko lurraldea antolatzeko: Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak, Lurraldeko Plan Partziala eta Lurraldeko Sektorekako Plana.

Eusko Jaurlaritzaren Dekretu bitartez, otsailaren 11ko 28/1997koa (1997ko otsailaren 12ko EHAA) behin betiko onartu ziren Euskadiko Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak, gainerako agirien dokumentaziorako eta idazteko erreferentzi marko direnak.

Lurraldeko Plan Sektorialek, Lurraldeko Plan Partzialekin batera Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak osatzen dituztenak, euskal administrazioen sektorekako planeko bitarteko ezberdinak arautzea dute helburutzat.

Jarraian Lurraldeko Plan Sektorialak adierazten dira, Oiartzungo AASSen Berrikuspen Partzialen barruan dauden eremuetan eragina dutenak.

3.1.1 EHAeko Nekazaritzako eta Basogintzako Lurraldeko Plan Sektoriala

Abenduaren 28ko 277/2004 Dekretuaren bidez onartu zen txosten hau, eta hauek dira horren helburu nagusiak:

- Gaur egungo landa eremua zehaztea; nekazaritza jarduerak, ustategiak eta abar zehazki non dauden jakiteko.
- Landa irizpideetan oinarritutako planifikazioa egingo duen lurralde eredia sortzea.
- Sektorea eta horren baliabideak babestuko dituzten tresna juridiko eta jardunbideak planteatzea, nekazaritzaz bestelako erabileren aurrean.
- Udalerrietako planeamendu orokorrek lurzorua inguruan egindako sailkapenari dagokionez, irizpide eta kontzeptuak bateratzea, Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazio osoa eginda.

- Nekazaritzaren eta ingurumenaren babesa bateragarri egitea, tresna administratibo komun edo osagarriak ezarrita.
- Sektorearen inguruko legediaren aplikazioa erraztea, politika eta arau sektorialak txosten edo agiri bakar batean bilduta eta koordinatuta.
- LPSaren emaitzen hedapena ziurtatzea, bestelako lurralde eta planeamendu txostenetan ere kontuan hartzeko.

EAE osoko lurzoru urbanizaezina da horren antolamendu esparrua; kanpoan geratzen dira Natur Eremu Babestuak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba. Hona hemen LPS honek antolamendu kategorietan oinarrituta proposatutako zonabanatzea:

- Nekazaritza eta Basozaintza eta Landazabala
 - o Balio Estrategiko Handia
 - o Trantsizioko Landa Paisaia
- Mendia
 - o Basoa
 - o Mendi bakana
 - o Larre menditarrak
 - o Harkaiztiak
- Ingurumen hobekuntza
- Lurrazaleko uren babesa

Oiartzungo Udalerrian 2.553,58 hektarea, udalerraren azalera osoaren %43.09, PTSren kategoria ezberdinetan sartuta daude (Aiako Harria Natur Parkearen hedadura hortik kanpo dago), ondoren adierazten den bezala banatuta:

1 Taula: Oiartzungo udalerriko nekazaritzako eta basogintzako PTSen ordenamendu-kategorien azalera.

ANTOLAKETA-KATEGORIAK	Azalera (ha)	Udalerri osoaren %
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala – Balio Estrategiko Handia	403,67	6,81
Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabala – Trantsizioko Landa Paisaia	1.207,72	20,38
Mendia – Basoa	941,00	15,88
Mendia - Basobera	0,43	0,01
Mendia – Harkaiztiak	0,76	0,01

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantzu eta Elikadura Sailaren alde aurretiko kontsultatxostena.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabal kategorian sartuta dauden lurzoruei buruz, udalerraren hedaduraren %25 baino gehiago betetzen dutenak, PTSen ezartzen diren irizpideak eta arauak ondorengoak dira:

❖ Balio Estrategiko Handia

Kategoria honen barruan nekazaritzarako gaitasunik handienak dituzten lurrak daude, lehen sektorerako estrategikotzat hartuak. Horietaz gainera, modernotasunagatik, errentagarritasunagatik eta iraunkortasunagatik bereizten diren nekazaritzako ustiategiak daude. Lur horietan erabiltzen den irizpide orokorra da beste erabilpen batzuen aurrean orain arteko jardueretarako mantentzea eta horiek lehenestea.

Arautegiari dagokionez, erabilpen gehienak debekatuta daude, nekazaritzarakoa izan ezik. Lur hauek okupatzen diren kasuetarako, babes-neurriak ezarri dira aldeztetik beste alternatiba batzuk baliogabetzeko, nekazaritza-jardueran sortzen dituzten eraginak zuzentzeko neurri zuzentzaileak hartu dira eta baita etorkizunean babes-lur berriak definitzeko ere.

❖ Trantsizioko Landa Paisaia

Zonalde landuak dira, Balio Estrategiko Handiko kategoriakoak baino ekoizpen-gaitasun txikiagoa dutenak, beren baitan hartzen dituzten lurzoruak aldapatsuak dira edo belardiz estaliriko landazabalak eta mosaiko itxurako baso-unada txikiak. Gune horietarako irizpide orokorra beste erabilpen batzuen aurretik nekazaritzako gaitasuna lehenestea da.

Arautegiari dagokionez, Balio Estrategiko Handiko kategoriakoek baino erabilpen gehiago onartzen ditu, eta nekazaritzako jardueran duen eraginari buruzko ebaluaketak egin behar dira.

Oiartzungo AASSen Berrikuspen Partzial honetan ez da Lurzoru ez-urbanizagarria aztertzen, baina birplanteatu diren zenbait eremutan Nekazaritzako eta Basogintzako PSTek arautzen dituen lurzoruak daude, beraz, horrek xedatzen dituen irizpideak eta arautegiak jarraitu behar dira.

Jarraian Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean sarturiko lur azalerak aipatzen dira, AASSen berrikuspen partzial honek eragindakoak, eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailaren Landaren eta Itsaertzaren Garapeneko Zuzendaritzak emandako txostenaren arabera (2009-05-18).

EREMUAK	PROPOSAMENA	AZALERA (ha)	Nekazaritzako eta Basogintzako LPS (ha)		Udalerriko azalera osoaren % *
ELI-6	Urbanizagarria	6,52	Balio Estrategiko handia	5,29	1,31
			Trantsizioko Landa Paisaia	0,02	0,00
UGA-1	Finkatugabeko hiri lurra	4,19	Balio Estrategiko handia	1,72	0,43
UGA-15	Sektorizatu gabeko urbanizagarria	2,39	Trantsizioko Landa Paisaia	0,76	0,06
UGA-12	Urbanizagarria	6,02	Trantsizioko Landa Paisaia	6,02	0,50
LAN-3	Urbanizagarria	8,33	Basogintzako	8,33	0,89

		Eraginzako osoa (ha)	Udalerriko azalera osoaren % *
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA LANDAZABALA	Balio Estrategiko handia	7,01	1,74
	Trantsizioko Landa Paisaia	6,80	0,56
BASOGINTZA		8,33	0,89

* LZPak sailkaturiko antolaketa-kategoria bakoitzean udalerriko ososan saruturiko azalerekiko.

Balio estrategiko handiko lurrenganako eraginari dagokionez, eta bereziko ELI-6 eremuan hektarea gehien bertan eragiten direlako, egoitzarako garapen berriak jaso dezaketen alternatibaren azterketa egin da, horretarako faktore desberdinen artean lurren balio agrologikoa neurtua izan delarik. Bestalde, Arauen berrikuspen partzial honetan egiten diren proposamenak, eremu hauetarako aurreko dokumentuak aurrekusten zituenekin alderatuz gero, okupatzen den Lur Ez Urbanizagarriaren azalera murriztea erakartzen dute eta baita lur antolaketa-kategoria horretan sarutakoa ere (*ikus 4.2 atala berrikuspen partzialaren dokumentuan aztertutako alternatibak*). Eragindako azalerari dagokionez berriz, proposaturiko antolaketak lurra oraingo egoeran mantentzea ahalmentzen du okupazioa eremuaren iparraldean pilatzen delako.

Basogintzan sailkaturiko lurren azalera, LAN-3 eremuaren zati handiena egun lur mugimenduek eta lur beteketak eragiten du aurretik zegoen basoa ordeztzen dutenak. Hala ere, eremuaren ertzetan zuhaitziak dira eta Ingurumen-Iraunkortasunaren Txosten honetan bere babesa eta mantentua beharrezkotzat jotzen da.

Eremuen deskribapenean, eraginen balorazioan zein neurri zuzentzaileen ataletan Nekazaritza eta Basogintzako LZPak eragindako lurren eta bere mantenurako ezarritako neurrien inguruko aipamena egiten da.

3.1.2 Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala eta horren 1. aldaketa

- Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

Inguru Fisikoaren Antolamenduari heltzeko orduan, Lurrazaleko Urak Babesteko Eremuak ere biltzen dituzte Lurzorua Antolatzeko Artezpideek kategorien artean, eta horiek babesteko irizpideak ezartzen; hala, Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren mende uzten du horren behin betiko antolamendua.

Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Lurzorua Antolatzeko Artezpideak garatzen ditu, hiru alderdi aintzat hartuta:

- Ur-ibilguak babestu beharra uholdeak ekiditeko, ibaiek gainezka egiten duten sasoiak kontuan hartuta.
- Ibaiertzak eta erreka ertzak babestea, horien natur balioa dela-eta.
- Ur-ibilgu bakoitzaren zatiak antolatzea, hirigintza-garapena dela eta horien ertzetan izan daitezkeen jardueren arabera.

LPSa idazteko irizpide orokorrek oinarritzen dute gure lurraldeko ibai, erreka eta urtegien ertzetan babes eremuak ezartzeko beharra, honako helburu hauek lortzeko:

- Uren kalitateari eusteko edota hori hobetzea
- Gutxieneko ur-emari ekologikoa mantentzea
- Ibai eta errekeni bilguak okupatzea saihestea
- Uholde eta hondamendi naturalen ondoriozko kalteak minimizatzea
- Ingurumenerako interes berezia duten ur-ibilgu zatiak babestea
- Kultur ondare diren elementuak babestea
- Ibai-ibilguak hirietan sartzea

- Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren 1. aldaketa

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko abenduaren 10eko aginduz, Plan horren 1. aldaketa onartu zen, bai eta jendaurrean jartzea eta herri administrazioen aurreko entzunaldia ere.

Hona hemen Plan hori aldatzeko arrazoiak:

- "Lurzorua horrek urpean geratzeko duen arriskuaren arabera erabiltzeko irizpideak", Ur Zuzendaritzak egindakoak, LPSaren araudian sartzea (ikus 2. taula).
- Eranskin gisa, LPSean uholde orbanen mapa eguneratuak sartzea, hidraulika azterketen bidez kalkulatuak, bai eta "Hidraulika azterketak egiteko diseinu irizpide teknikoak" ere, Ur Zuzendaritzak egindakoak.
- LPSaren araudian, aplikatu beharreko araudien inguruko erreferentzia berezi bat sartzea, Garrantzi Komunitarioko ibai-tarteen inguruko arau propioak (Europako Kontseiluaren 92/43 EEE Zuzentaraua) adibidez.
- Eranskin gisa, Natura 2000 Sareko EAEko Interes Komunitarioko Ibaien zerrenda sartzea LPSean.
- LPSeke edukiak Uraren inguruko Esparru Zuzentara egokitzea (EE 2000/60 eta Urari buruzko Eusko Legebiltzarraren 1/2006 Legea)
- Hainbat arau-doitze eta Lurralde Antolamendu Sailak adierazitako zuzenketa egitea.

❖ Aplikazio eremua, zonabanutzea eta araudia

Planaren Aplikazio eremua Kantauriko isurialdeko ibai eta errekek osatzen dute eta, bereziki, ur-ibilguen alde banatuko 100 m-ko zabalerako zerrendari eta urtegien inguruko 200 m-ri eragiten die.

LPSak honela zonabanutu ditu ibai eta erreka ertzak:

- Ur-ibilguen arro hidraulikoen araberrako zatikatzea
- Ertzen ingurumenaren araberrako zonabanutzea
- Ertzetako hirigintzaren araberrako zonabanutzea

Tarte bakoitzean ezarri beharreko araudia hiru osagai hauen araberrakoa da.

➤ *Ur-ibilguen arro hidraulikoen arabera zatikatzea*

Ur-ibilguak arro hidraulikoen arabera zatikatzeari dagokionez, 8 zati bereizi dira, arroaren azaleraren arabera:


ZATIEN KATEGORIAK	IBAI ARROAREN AZALERA (Km ²)
VI	600 Km ² < A
V	400 Km ² < A < 600 Km ²
IV	200 Km ² < A < 400 Km ²
III	100 Km ² < A < 200 Km ²
II	50 Km ² < A < 100 Km ²
I	10 Km ² < A < 50 Km ²
0	1 Km ² < A < 10 Km ²
00	A < 1 Km ²

Oharrak:

0 mailako zatiak LPSeko informazio grafikoan inolako identifikaziorik gabe adierazitako errekei dagokie.

00 mailakoak, berriz, LPSeko informazio grafikoan agertzen ez diren gainerako erreka edo isurketei. Horiei Urari buruzko Legea aplikatzen zaie.

2. irudia: Ertzen osagai hidraulikoaren araberako zonabanatzea



Iturria: Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeako Lurralde Plan Sektoriala

➤ *Ertzen ingurumenaren arabera zonabanatzea*

Ingurumen irizpideei jarraituz ezarritako zonabanatzearen helburua da ekologia, paisaia, ekoizpen eta zientzia nahiz kultur balioak bermatzea, hainbat arriskuren aurrean babestea -higaduraren eta akuiferoen kutsaduraren aurrean besteak beste-, edo jarduera bateraezinen ondorioz hondatutako eremuak leheneratzea.

Honako eremu hauek bereizten dira, sailkapen berezirik gabekoez gain; azken horietan ere ingurumena babesteko oinarriko politika orokorrak aplikatuko dira:

- Lehentasunezko Natur Intereseko Eremuetako Ertzak
- Ongi kontserbatutako landaredia duten ertzak.
- Higadura edo lerradura arriskua duten eremuetako ertzak edota urrakortasun arriskua duten akuiferoak.
- Leheneratzeko beharra duten ertzak.


Berrikuspen Partzialaren eremuan ondo kontserbatutako landaretza duten ibai alde gisara hartzen diren ondorengo ibai-tarteak lokalizatu dira:

- Oiertzun ibaiaren ezkeraldea UGA-1-A arean
- Auztegi errekaen bi aldeak GI-2134 bidegurutzetik gorako uretan. ARR-5 eta ELI-3 areei erasaten die.

PTSek ibaiertz horietarako ezarri duten irizpidea dagoen landaretza babestea da ekosistema bere egoera klimatikotik hurbil dagoenean, edo klimaxerako bilakaera erraztea bere onera ekartzeko izaera biguneko interbentzioen bitartez, beti ere landaretza baliotsua izan dadin bilatzen delarik.

Ibaiertz horietan gorde behar diren distantzia minimoen inguruan esan behar da aipaturiko distantziak hirigintzako parte diren neurriaren arabera hartzen direla eta ibai-tarte bakoitzari esleitzen zaion kategoriaren arabera.

3. irudia: Ertzen ingurumenaren araberako zonabanatzea



Iturria: Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzekeo Lurralde Plan Sektoriala

➤ *Ertzetako hirigintzaren arabera zonabanatzea*

LPSeko ibilguen ertzen zonabanatze zehatza ezarri da, hirigintza garapen orokorraren arabera. Hala, 4 kategoria bereizi dira:

- Landa eremuko ertzak.
- Hiriarteko komunikazio azpiegiturak dituzten ertzak.
- Eremu garatuetako ertzak.
- Bizitegi berriak har ditzaketen ertzak.

Berrikuspen Partzialaren eremuan landa-eremuko ibaiertz gisara hartuak diren ondorengo ibai-tarteak agertzen dira:

- Auztegi errekaen bi aldeak ARR-5 arean eta ELI-3tik hurbil.
- Oiertzun ibaiaren eskuinaldea UGA-2 arean, Ugaldetxoko zubiaren behealdetik.
- Sarobe errekaen eskuinaldea UGA-12tik igarotzen den gunean.

Ibaiertzetan ez da trazatuaren aldaketa, estaldura eta zuzenketa artifizialik egingo, nola eta uholdeak prebenitzeko edo herri-lanak egiteko, hala balegokio, kasuan kasuko horretarako gaitasuna duen agintari hidraulikoen baimenak onetsita. Ohar orokor gisara, ahaleginak egingo dira ingeniarietza "biguneko" irtenbideak ematen, urbazterreko landaretzaren galera, gehiegizko zabalketa eta ur-laminaren barreiatzea eta ibai-ibilguaren homogeneizazioa ekiditeko.

Ibai-tarte bakoitzari, kategoriaren arabera (aurrerago ikusiko dugun moduan), esleitu zaizkion muga orokorren osagarri, ibaiertz horietako bi aldeetan 100 metro zabaleko banda errespetatu behar zaizkio, eta bakar bakarrik Lurzoru Ez-Urbanizagarriaren eraikuntzak, jarduerak eta erabilerak baimenduko dira.

Hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa klasifikatzen diren unean, ibaiertz horiei eragiten dienean, horiek, ibaiertzak, Hirigintzako Garapen Berrietarako Balizko Ibaiertz gisa kontsideratuko dira.

Eremu garatuetan ibaiertzek dituzten ondorengo ibai-tarteak ere lokalizatu dira:

- Lintzirin errekaen bi aldeak ARR-1 areatik igarotzean.
- Oiertzun ibaiaren ezkerrekoa UGA-1 areatik igarotzean.
- Oiertzun ibaiaren eskuinaldea UGA-2 arean Ugaldetxoko zubiaren ondoan.
- Sarobe errekaen ezkerrekoa UGA-11 areatik igarotzean.

Ibaiertzen gune hau arautzeko irizpide nagusia ibai-izaera bera aintzat hartzea da, ibai gisa ez ezik, garrantzirik handieneko elementu gisa hiri-paisaiaren itxuran eta natura-ingurunea hiri barnean integratzeko ibilgailu pribilegiatu gisa. Helburu hori uholdeei aurre hartzeko hartuko diren jarduera hidraulikoekin eta ibaiertzen inguruan kokatuta dauden kultur ondare interesgarriko elementuak gordeko direla bermatzeko diseinatuko diren konpromezuzko irtenbideekin bateratu beharko dira.

Eremu Garatuetako Ibaiertz gisa hartzen diren ertzetan eraikitzeko gutxieneko distantziek nahikoa leku bermatuko dute eraikuntzaren eta ibaiaren artean, eta bere kasuan, etorkizunean uholdeetatik babesteko egin beharko liratekeen ubideratzeak egiteko.

Eta ibaiertz tarte bat hiriarteko komunikazioen azpiegiturak betetzen dituzten Ertzetan:


- Oiartzun ibaiaren ezkeraldea UGA-4 areatik igarotzean

Kasu honetan lehenetsuna ematen zaie azpiegiturako beharriari, hauen ezarpenak ingurune naturalean duten eragina asumitu beharko delarik.

Oro har, PTsek ezarrita dituzte obra publikoen edo herri-lanen ibilguren eta hiriarteko komunikazioen sare orokorreko elementuen inguruko irizpideak.

- III Iparraldeko Plan Hidrologikoaren Muturreko Egoera Hidrologikoko 5 Atalean jasota dauden irizpideak.
- Uraren Legean ezartzen den 5 metroko Zortasun-Bandari eustea, kasu berezietan izan ezik.
- Interes naturaleko eta ibarreko landaretzaren elementuak kontserbatzea, berariaz justifikatzen den ezintasun kasuetan izan ezik.

4. irudia: Ertzetako hirigintzaren araberako zonabanatzea



Iturria: Kantauriko Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

❖ Berrikuspen Partzialaren eremuan ibai-tarteen gutxieneko distantziak.

Ingurumen osagarriaren eta Hirigintza osagarriaren konbinazioak, ibai-tarte bakoitzari esleitutako kategoriarekin batera, kasu bakoitzean errespetatu beharko diren gutxienezko distantziak definitzen dizkigu.

PTSek xedatzen du distantzia horiek lurzoru naturalaren edozein aldaketa egiten direnean aplikatu beharrekoak direla (etxeak, instalazioak edo edozein eratako eraikuntzak, nola finkoak hala desmuntagarriak, lur-berdinketak eta lur-mugimenduak, e.a.), herri-lanei edo azpiegiturako instalazioei dagozkienean izan ezik, edo kultur ondarea babesteko ekintzak egiteko orduan, behar bezala justifikatzen direnean.

- **Lintzirin erreka ARR-1 areatik igarotzen denean**

Erreka hau 0 Mailako gisara hartua dago (ibaiadar-ibilgua 1 eta 10 Km² artekoa), osagai hidraulikoaren arabera eta osagai urbanistikoaren arabera eremu garatuetako Ibaiertz gisara.

Eremu hauetarako PTSek 10 metroko gutxieneko distantziak xedatzen ditu, mugarrizetik edo ibilgutik, eta 12 metro, ohiko etorbide maximoen lerroetatik mugarritze edo ibilgu-lerrorik ez dagoenean.

- **Auztegi erreka ARR-5 areatik igarotzean**

Osagai hidraulikoaren arabera 0 Mailako erreka da, ibaiadar-ibilgua 1 eta 10 Km² artekoa duena. Errekaren bi aldeak, GI-2134 errepidearekin topo egiten duen gunetik gora, ondo kontserbatutako landaretzadun Ibaiertz gisa hartuak daude, ingurumen-osagarrien arabera, eta landa-eremuko ibaiertz gisara, osagarri urbanistikoaren arabera.

Eremu horietarako, PTSek era orokorrean xedatzen dute 10 metroko distantzia ibarreko landaretza-orklaren kanpoaldeko ertzeraino, beti errespetatu behar dena, eta ibilguaren bi aldeetan 100 metro zabaleko banda, non bakarrik Lurzoru Ez-Urbanizagarriko eraikuntzak, jarduerak eta erabilpenak baimenduko diren. Gainera, 0 Mailako erreketan, ibilgu publikoaren mugarritze-lerrotik 15 metroko gutxieneko distantzia xedatzen da.

- **Oiarzun ibaiaren ezkerrekoa UGA-1-A areatik igarotzean**

Osagai hidraulikoaren arabera, ibai-tarte hau 1 Mailakotzat hartua dago (ibaiadar-ibilgua 10 eta 50 Km² artekoa), ingurumen osagaien arabera ondo kontserbatutako landaretza du Ibaiertz gisara eta hirigintzako osagaien arabera, eremu garatuetako Ibaiertz gisara.

Eremu hauetarako PTsek 10 metroko gutxieneko distantziak xedatzen ditu, mugarritze edo ibilgu-lerrotik, eta 12 metrokoa, ohiko etorbide maximoetatik mugarritze edo ibilgu-lerrorik ez dagoenean.

- **Oiertzun ibaiaren eskuinaldea UGA-2 areatik igarotzean**

UGA-2 areatik igarotzen den Oiertzun ibai-tartean, 1 Mailakoa (ibaiadar-ibilgua 10 eta 50 Km² artekoa), osagai hidraulikoaren arabera, bi eremu bereizten dira hirigintzako osagaien arabera.

Ugaldetxoko zubitik hurbileneko ibai-tartea, Isasti errota kokatua dagoen partzela barne, materialen betelanak egin ziren tarteraino, eremu garatukotzat hartua dago. Gune honetan, PTsek gutxienez 10 metroko distantziak xedatzen ditu, mugarritze- edo ibilgu-lerrotik, eta 12 metrokoak ohiko etorbide maximoetatik mugarritze- edo ibilgu-lerrorik ez dagoenean.

Oiertzun ibaiaren gainerako ibai-tartea, eta hirigintzako osagaien arabera landa-eremuko Ibaiertzat hartua dago. Eremu horietarako PTsek 30 metroko gutxieneko distantziak xedatzen ditu ibilgu publikoko mugarritze-lerrotik neurtzen hasita.

- **Oiertzun ibaiaren ezkeraldea UGA-4 arearen ondoan**

I Mailako ibai-tartea (ibaiadar-ibilgua 10 eta 50 Km² artekoa), hirigintzako osagaien arabera hiriarteko komunikazioko azpiegiturek betetzen duten Ibaiertz gisara hartua dago.

Ibai-tarte horietarako, PTsek xedatzen dute Ibaiertzetan aplikatu beharreko gutxieneko distantziak landa-eremukoak direla, kasu honetan ingurune naturalean azpiegiturak egitearen ondorioz izaten den eraginaren berezitasunarekin. Kasu honetan, gutxienez, 30 metroko distantzia errespetatu beharko litzateke ibilgu publikoko mugarritze-lerrotik neurtzen hasita.

- **Sarobe erreka UGA-11 eta UGA-12 areetan**

Erreka guztia 0 Mailakotzat hartua dago (ibaiadar-ibilgua 1 eta 10 Km² artekoa), osagai hidraulikoaren arabera.

Eskuinaldea, hirigintzako osagaien arabera, landa-eremuko ibaiertz gisa hartua dago, ondorioz, errespetatu behar den gutxieneko distantzia 15 metrokoa da ibilgu publikoko mugarritze-lerrotik neurtzen hasita. Lurzoruaren klasifikazio-aldaketak (ez-urbanizagarri izatetik urbanizagarri izaterako aldaketak) Ibaiertz hori balizko hiri-garapen berri gisara kalifikatzera eramango luke, eraikuntza berrirako errespetatu beharko litzatekeen gutxieneko distantzia 12 metrokoa izango litzateke eta urbanizazio berrirako 2 metrokoa, ibilgu publikoko mugarritze-lerrotik neurtzen hasita.

Ezkerraldeari dagokionez, esan behar da eremu garatuko Ibaiertz gisa hartua dagoela, ondorioz, eraikuntzaren gutxieneko distantzia 10 metrokoa da mugarritze edo ibilgu-lerrotik neurtzen hasita eta 12 metrokoa ohiko etorbide maximoetatik mugarritze edo ibilgu-lerrorik ez dagoenean.

❖ Uholde prebentzioari eta Erregulazio Hidraulikoari buruzko araudi berezia

Atal honetako zonabanutzea eta arautzea LPSaren aldaketaren ekarpenik garrantzitsuena da. Eduki berri honen helburua da uholdeen eta horien kalteen arriskua gutxitzea, ibaiek eta itsasoak eragindako uholdeak ekosistema hauen dinamikaren prozesu natural direla jakinda.

Pertsonen eta ondasunen egiten zaizkien kalteak horiek kokalekuaren eta lurzoruen erabileraren ondorio izan ohi dira. Hori saihesteko, uholde-arriskuaren kartografia egin da eta, bertan, 10, 100 eta 500 urteko errepika-denbora duten eremuak bereizi eta lurzoru erabiltzeko irizpideak ezarri dira, uholde-arriskua kontuan hartuta.

Oiartzungo AASSen Berrikuspen Partzialaren barruan dauden areen artean, uholde-orbanak erasaten edo eragiten dituenak ondorengoak dira: ARR-1, UGA-1, UGA-11 eta UGA-12 (ikus, eranskinean, Ingurumen Eragileen II1 eta II2 mapak).

Informazio kartografiakoari dagokionez, PTSek adierazten dute uholde-mapak 1/200.000 eskalan eginak daudela, eta arautegiaren testuan aipatzen da eremu horietan jarduerak planteatzen direnean zehaztasun-azterketa hidraulikoak egin behar direla derrigorrez.

2. taula: lurzorua horren uholde arriskuaren arabera erabiltzeko irizpideak

	Lehengoratzeko denbora (urteak) / Urtean gertatzeko aukera		
	10 / %10	10 – 100 / %10% - %1,0	100 – 500 / %1,0 -% 0,2
Urbanizatu gabeko eremuak, egun	<ul style="list-style-type: none"> - Ibai-ekosistemaren mantentze eta gozatzearekin eta horren gaitasun hidraulikoarekin zerikusirik ez duten erabilera guztiak baztertzea. - Azpiegituren luzetarako trazadura (paralelotasuna) saihestea. - Inguruarekin (ekosistemaren kontserbazioa, zaintza) eta aisiarako erabilerarekin zerikusia duten erabilerak onartzen dira (lurra aldatzen ez bada eta eraikuntzarik egiten ez bada). 	<ul style="list-style-type: none"> - Ezin da bizitegirik, saltokirik edo industriarik eraiki, ezta azpiegitura paralelorik ere (saneamendua izan ezik). - Traba fisiko artifizialik gabeko eremua - Aisiarako, kirolerako, berdegunetarako, lurraldea babesteko eta azpiegitura linealak gurutzatzeko egokiak. - Eraikinak ezohikoak dira; elementu historiko eta azpiegitura justifikatuak baino ez daude. - Onartezina da ubideratzeak eremuaren uholde arriskua txikitzeko bakarrik egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Berezko uholde arriskuarekin bateragarriak diren erabilerak ematera aholkatzen da. - Bestelako lurrik ezin erabil daitekeela justifikatuta soilik onartzen dira hirigintzarako jarduera berriak: <ul style="list-style-type: none"> * Erietxeak, suhiltzaileak edo horien antzeko zerbitzu publikoak izan ezik * Beharrezkoa da ingurumena eta ura aztertzea, ingurumenaren aldetik bideragarriak diren neurri zuzentzaileak zehazteko eta justifikatzeko.
Urbanizati oia finkatua duten eremuak	<ul style="list-style-type: none"> - Gaur egungo eraikuntzak lekualdatzearen alde egitea - Eraikin edo urbanizazio berririk ez baimentzea, orain arteko eraikinak eraldatzea edo ordezkatzeta baino ez, eta, betiere: <ul style="list-style-type: none"> * Hiri-lurra bada eta urbanizazioa finkatua badu, eta bestelako lurrik ez dagoela justifikatuta. * Giza osasunarentzat eta inguruarentzat kaltegarriak izan daitezkeen instalazioak, ikastetxeak, erietxeak, egoitzak (adinekoak, gaixo fisiko edo psikikoak), suhiltzaileen parkeak, Babes Zibila, gasolindegia, animalia haztegi edota abeletxeak ez badira. - Jarduerak baimentzeko, uraren inguruko azterketa bat egin beharko da, arrisku egoera eta segurtasun neurriak zehazteko, eta Administrazio Hidraulikoaren baimena lortzeko. - Uholdeen aurkako eta pertsonen nahiz ondasunen aldeko neurri babesleak kaltetutako ibai-tartea egoera ekologiko onean mantentzeko helburuarekin diseinatu behar dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eraikinak lekualdatzea sustatzea - Berritze edo birgaitzerik egin behar izanez gero, ondasunak eta pertsonak babesteko neurriak aurreikustea - Inoiz, eta interes orokorraren arabera, eraikin berriak onartuko dira, baina hiri-bilbe finkoetako okupatu gabeko tartetan, beharrezko segurtasun-neurriak hartuta eta Administrazio Hidraulikoaren baimenarekin. - Ekipamendu publikoak jartzea saihestea, batez ere higikortasun mugatua duten pertsonen eragiten dietenak. - Ibai-parkeak onartzen dira (berdegunea), beharrezko segurtasun-neurriekin - Uholdeen kontrako neurriek ibai-tartearen egoera ekologiko onari eutsi behar diote. 	<ul style="list-style-type: none"> - Orain arteko erabilerak mantentzen daitezke - Eraikinen eta azpiegituren inguruko neurri zuzentzaileak hartzea aholkatzen da; azpiegituren hobekuntzak, birkokatzeak... - Neurri zuzentzaileen proiektuak justifikatzeko azterketa hidraulikoa erantsi beharko da.

Iturria: guk geuk egina, EAEko Ibaiertzen eta Erreka-ertzen LAPa oinarri hartuta (Eusko Jaurlaritza)

3.2 AZTERKETAREN EREMUAN ERAGINA DUTEN BESTE PLAN BATZUK


3.2.1 EHAko korridore ekologikoen sarearen azterketa

2005. korridore ekologikoen sare baten inguruko proposamen teknikoa egin zen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eskariz; horren helburu nagusia da Natura 2000 Sarearen lotura eta koherentzia ekologikoa sustatzea (92/43 EEE Zuzentarauaren 10. art.). Arau izaera ez badu ere, azterketako zonabanatze proposamena garrantzitsua dela Lezoren antolamendua zehazteko.

Azterketa horrek korridore eskema bat proposatzen du, eta honako unitate hauek biltzen ditu:

- *Lotu beharreko gune nagusiak*: Zatiketaren eragina jasan dezaketen habitat edota espezieak dituzten Natura 20000 Sareko guneak ere agertzen dira.
- *Lotura korridoreak*: korridore naturalak dira, eta distantzia, orografia, iragazkortasuna eta beste hainbat irizpide hartzen dira kontuan.
- *Lotura eremuak*: lotura korridoreko bitarteko habitatak dira.
- *Indargetze eremuak*: inpaktu negatiboen aurkako babes-zerrendak dira, eta lotura korridoreen eta lotura eremuen artean daude.
- *Lotura interes berezia duten ibai-tarteak*, ingurukoak.
- *Ekologia leheneratzeko eremuak*: leheneratze-jarduerak behar dituzten korridoreko eremuak dira.

5. irudia. EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen egituraren eskema.



Color	Elementos estructurales		
Verde oscuro	Espacios-núcleo a conectar		
Verde claro	Áreas de Enlace	Corredores Ecológicos	
Azul	Corredores de Enlace		
Rojo	Áreas de Restauración Ecológica		
Naranja	Áreas de Amortiguación		
Azul claro	Tramos fluviales de especial interés conector		
Amarelo	Matriz territorial		
			Red de conservación interconectada

Iturria: EAEko Korridore Ekologikoen Sarea, 2005. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. . Eusko Jaurlaritzak.

Berrikuspen Partzial honen barruan dauden eremuen artean, LAN-3 eremua (Lanbarrengaina) Jaizkibel – Aiako Harria korridorearen *indargetze-are*a gisa definitzen da. Azterketa horren arabera, jarduera antropikoen ondoriozko “ertz-efektuak” arintzeko da eremu hori. Hala, eraginak prebenitzea, landare naturalak babestea eta lehengoratzea, eta nekazaritza, basogintza, abeltzaintza eta ehiza ustiaketa iraunkorra lortzea dira azterketan eremu hauetarako definitutako kudeaketa helburuak.


Jaizkibel – Aiako Harria korridoreko lotura-gune nagusia, hau da, *lotura-korridorea*, autobideko gasolindegiz-erbitzuaren eta Irungo Txingudi merkataritza zentroaren artean dago, eta traba handiak daude hori iragazkortzeko. Jaizkibel eta Aiako Harria lotzen dituen korridorean “tentsio-zati”¹ bat dago, A-8a dela-eta; hala, bi pasabideetako (autobidea zeharkatzen duten errepideak) bat ez da oso iragazkorra animalientzat, eta bestea, berriz, iragazgaitza da. Aplikatu beharreko neurri zuzentzaileei dagokienez, berriz, oso iragazkorra ez den pasabidean soilik aplikatu daitezke landare estaldura hobetzeko neurriak.

Gaintzurizketako korridore ekologikoko traba handi horrez gain –A-8 autobidea–, “korridore ekologikoen eta kokalekuen arteko interakzio-eremu kritiko bat” bereizi du azterketak, Irungo eta Oiarzungo industrialdeak direla-eta. Izan ere, eremu horietako landa-lurraren kalifikazioa aldatzeak arriskuan jar dezake korridorearen bideragarritasun funtzionala. Azterketaren arabera, lurzorua landa-lur izaten

¹ Autobide eta autopisten, eta korridoreko eremu iragazkorren arteko interakzio-eremu kritikoa.

jarraitzearen alde egin beharko du hirigintza-planeamenduak eremu estrategiko horietan, lurzoru urbanizagarri bihur ez dezaten. Komenigarria da, era berean, herri administrazio eskudundunek edo bestelako agente interesdunek leku kritiko horietan lurrak erosteko aukera aztertzea, eremu horiek horien osotasun ekologikoa bermatzeko moduan kudeatzeko.

6. irudia: Jaizkibel - Aiako Harria korridore ekologikoa



Iturria: EHAeko korridore ekologikoen sarearen azterketa. Geoeskadi. Eusko Jaurlaritzza.

3.2.2 Ingurumen-zarataren Ebaluazio eta Kudeaketako Plana Oiartzunen

2005eko maiatzean AAC-k (Akustika Aplikatuko Zentroak, S.L.k) Oiartzungo Udalerako egin zuen azterketa da. Alde batetik, garraioko azpiegituren diagnostiko akustikoa aztertu zen eta, beste aldetik, Arragua auzoko egoeraren azterketa zehatzagoa.

Garraioko azpiegituren inpaktu akustikoari dagokionez, udalerriko bide guztien eragina aztertzen da azterketan (nola N-1, A-8, hala eskualde-errepideak) eta baita RENFERen eta Euskotrenen trenbideak ere. Azterketak berak esaten duen bezala, abiapuntuak azterketa bat da, zarata-mailak distantziagatiko aringarriak kontuan izanda lortu baitira eta, horretaz gain, aldirik txarrena kontuan izanda.

Arazoaren puntu nagusiak Arraguan daude, bertatik igarotzen baitira A-8 autopista, N-1 errepide nazionala eta RENFERen trenbidea, eta udalerriko gainerako guneetan eskualde-errepideetatik hurbileneko etxeetan. Azterketan ikertzen diren garapen berriei dagokionez, AASSen Berrikuspenek (2007) egindako proposamenei dagozkienak, arazoak Arraguan identifikatzen dira eta neurri txikiagoan baita Ugaldetxon eta Iturriotzen ere.

Arazo horiei aurre egiteko gomendio gisa, azterketak dio prebentzio-neurriek, urbanizatuko diren gune berrien diseinuan kontuan izan beharko direnak, akustikoki eraginkorragoak eta ekonomikoki ondoren hartu beharko liratekeen neurri zuzentzaileak baino errentagarriagoak direla.

Arragua auzorako egin zen xehetasun azterketan eremuaren egoera akustikoa aztertu zen zarataren mapa bat eginez, azpiegiturek gehien eragiten dituen guneak identifikatzen dituen. Gaur egungo egoeraren azterketaz gain, AASSen (2007) Berrikuspenean proposamenean planteatzen diren eraikuntzetako zarata-fokoen inpaktuaren simulazioa ere egin zen.

Azterketak berretsi egiten du gune horretako arazo akustikoa, nola gaur egungo etxebizitzetan hala proposatu direnetan, eta helburutako mailaren goitiko graduak hauteman dira (urriaren 19ko 1367/2007 Errege-Dekretuak xedatzen dituen mailen oso antzekoak), foko dominatzailearen hurbileneko guneetan 10 dBAtik gorakoak.

Gomendio gisa, azterketak proposatzen du gune horretarako garapeneko alternatiba ezberdinak aztertzea, etxebizitza-blokeen diseinuan aldagarri akustikoa sartuz, ahal den neurrian kalitate akustikoaren inguruan jartzen diren helburuak lortu ahal izateko.

3.2.3 Oiertzungun Ibaiaren Azterketa Hidraulikoa

Oiertzungo Udalak "Oiertzungun Ibaiaren Azterketa Hidraulikoa. 2006ko urria" lana egiteko ardura eman zion IKAUR Arkitektoak eta Ingeniariak enpresari, Arau Subsidiarioen agiri osagarri gisara eta besterik beste, udalerriko sare hidrografikoan uholde-arazoa ebaluatzeko, eta, era berean, ibai-eremuaren ingurunearen hobekuntza errazteko beharrezkoak ziren jarduerak programatzeko, uholde-arriskua zuten hiriko gunek zuzentzeko eta hiri-garapena sare hidrografikoaren hobekuntzarekin eta berreskurapenarekin bateratzeko helburuarekin.


Azterketa bere garaian Eusko Jaurlaritzaren Gipuzkoako Uren Lurraldeko Zerbitzuak eman zituen jarraibideak aplikatuta idatzi zen, bai gaur egungo egoeran eta etorkizunean uholde-orbanak kalkulatzeko berariazko metodologiari dagokionean, eta baita hala dauden ibai-ibilguak ahalik eta gehien errespetatzeko irizpide orokorraren aplikazio sistematikoari dagokionean ere.

Azterketaren zatirik handienak AASSen (2007) berrazterketan proposatu ziren jarduerekin bateragarri izateko neurriak aztertzen baditu ere, hasiera batean haranak gaur egun duen uholde-arriskuaren analisia egin zen. Azterketa hori egin zenetik Oiertzungun ibaiaren uholde-arriskua, aztertutako ibai-tartean, eragin liezaiokeen jarduera esanguratsurik egin ez denez, gaur egun agiritik atera daitezkeen ondorioak aplikagarritzat hartu daitezke baita gaur egungo egoeran ere.

Alde horretatik, orain tramitean dagoen berrikuspen partzialak Ugaldetxoko eremuaren urbanizazioan murriztapen nabarmena dakar, UGA-4 eta UGA-2 eremuetarako proposatutako jarduerak alde batera utzita eta UGA-1-A eremuko eraikuntzak eta eremua murriztuta.

UGA-1-A eremuko uholde-arrisku arazoari dagokionez, IKAUR enpresak egindako xehetasun-azterketa hidraulikoaren ondorioa da gaur egungo egoeran, Ugaldetxoko futbol-zelaiaren gunea gaur egun urak ez duela azpian hartuko, ezta 500 urteko birgertatze-aldian ere, 7. irudian ikusten den bezala.

7. irudia: Uholde-arriskua Ugaldetxo auzoan



Iturria: Oiartzun ibaiaren azterketa hidraulikoa. IKAUR. 2006.

3.2.4 Lurzorua kutsatzeko jarduerak jasaten edo jasan izan dituzten inbentarioa edo lurzorua kutsa dezaketen instalazioena.

1/2005 Legeak, Euskal Herriko Lurzorua kutsaduratik Babesteari eta Zuzentzeari buruz ari denak, xedatzen du arrazoi bat edo beste tarteko, kutsadura berria izan nahiz arrazoi historikokoa izan, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan aurrera eraman beharreko prozedura, jatorria substantzia batzuetan zein besteetan izan.

Aipaturiko Legearen 34 artikuluan xedatzen dena betearazteko, Eusko Jaurlaritzak *Euskal Herriko Lurzorua Kutsatuen Plangintza 2007 – 2012* egitasmoa kaleratu du, arautegi honek eskatzen duen bitartekoetako bat osatzen duena lurzoruetan asaldura berriak prebenitzeko, kasurik larrienei irtenbideak emateko eta lurzoru kutsatu gisa hartu diren pasiboen irtenbidea antolatzeke.

Lege horrek eskatzen duen beste bitartekoetako bat *kutsatuak egon daitezkeen lurzoruen inbentarioa* eguneratua eta erraz kontsultatzeko moduan izatea da, berriki bete den ukanbeharra *irailaren 30eko 165/2008 Dekretua* kaleratzearekin, Lurzorua kutsatzeko jarduerak jasaten edo jasan izan dituzten inbentarioa edo lurzorua kutsa dezaketen instalazioena, zeinaren bidez aipaturiko inbentarioa onesten eta arautzen den. Horretarako Eusko Jaurlaritzak 2002 urtean IHOBE elkarte publikoaren bitartez egin zuen inbentarioa berrikusi eta eguneratu egin da.

Kartografia xehekatua eta erraz ikusteko moduan dago www.geo.euskadi.net web atarian.

Lurzoru bat kutsatua egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan agertzeak ez du esanahi, ezinbestean, aipaturiko lurzoru hori kutsatua dagoela, baina arreta-deia da, eta ondorioz, edozein erabilpen-aldaketaren aurrean ikerketa eta azterketa batzuk egin beharra daude bere benetako egoeraren berri izateko. Kasuan kasuko azterketak egin ondoren, lurzoru kutsatua dagoela ikusten baldin bada, deskontaminatu beharra dago eta prozesua Eusko Jaurlaritzak ematen duen "lurzoruaren kalitate-aitorpena" agiriarekin amaitzen da, lurzoru dagoeneko ez dela arriskutsua pertsonentzat eta ingurunearentzat bermatzen duen agiriarekin, hain zuzen ere.

Oiartzungo AASSen Berrikuspen Partzialean jasota dauden proposamenei dagokienez, eremu guztietan inbentariatu dira kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak (ikusi, eranskinean, II1 eta II2 Ingurumen Eragileen mapak). Lurzoru horiek, beraz, 1/2005 Legeak xedatzen duenera makurtu beharra daukate, eta beste betebeharrak batzuen artean, lurzoruaren kalitate-agiriaren aitorpena beharko dute kalifikazio-aldaketaren bat planteatzen den kasuan, aipaturiko Legearen 17.5 artikulua araberak, kalifikazioaren behin betiko onespina eman baino lehen.

Aztertutako eremu bakoitzean zerrendatutako lursailen datuak sartzen dira, IHOBek bidalitako infomazioaren baitan (txosten eta dokumentazio kartografikoa).

3.3 NAZIOARTE, EUROPAKO KOMUNITATE, ESTATU EDO AUTONOMIA EREMUAN EZARRITA DAUDEN HELBURUEN ETA KONPROMISOEN IDENTIFIKAZIOA

Badira zenbait agiri, nazioartekoak nahiz Europako komunitate eta autonomia mailakoak, plangintzako bitartekoak garatzeko garaian kontuan izan behar diren erreferentziazko ingurune-irizpideak jasotzen dituztenak, Oiertzungo AASSen Berrikuspen Partzial honen kasuan den bezala.

Nazioartean, erreferentzia 1992 urteko “Ingurunearen eta Garapenaren gaineko Rioko Aitorpena” deritzona da, Garapen Jasangarriaren aldeko politikak, programak eta printzipioak jasotzen dituena, eta, aldi berean, aipaturiko aitopenak ingurumenaren eta garapen jasangarriaren inguruan banakoen zein kolektiboen eskubideetarako eta betebeharrretarako markoa finkatzen du. Rioko goi-bileratik, Aitorpen hori onetsi zuena, azpimarratzekoak dira beste agiri batzuk, horietako batzuk aipatze aldera “Agenda 21”, Aniztasun Biologikoaren Hitzarmena” eta “Aldaketa Klimatikoaren Hitzarmena”.

Europako komunitate mailan, “Rioko Aitorpenean” garapen jasangarriaren inguruan finkatu ziren ildoak “Aalborg-eko Karta” (1994) – Hiri Jasangarrien Europako Hitzaldia Aalborg-en (Danimarka) – eta “Europako Hiri Jasangarriak” (1996) txostenetan jasotzen dira. Bigarren txosten horretan oinarriak, irizpideak eta jarduteko bitartekoak definitzen dira, eta arreta berezia jartzen da bitarteko naturalen kudeaketa jasangarriaren, energia eta hondakinen, mugikortasun jasangarriaren eta hiri-plangintzaren, besterik beste, puntuetan.

Hurbilagoko erreferentziak dira Hiri eta Herri Jasangarrien Europako III Hitzaldia (Hannover, 2000), “Garapen Jasangarriaren Estrategia Europarra” (Goteborg, 2001) eta Ingurumenari buruzko Batasun Europarraren VI Programa” (2002), tokiko hirigintza-plangintzetan jasangarritasunari buruzko irizpideak sartzea sustatzen dutenak.

Autonomia eremuan, *Euskal Herriko Ingurumenaren Babeserako 3/98 Legeak* helburutzat jarri zuen garapen jasangarria lortzea Euskadin garatu beharreko ingurumen politika ororentzat. Legeak xedatzen du airearen, uraren, lurzorua, paisaiaren, landaretzaren eta faunaren erabilpena era jasangarrian egingo dela (1. artikulua), eta bere egiten duela oraingo beharrak asebeteko dituen garapen jasangarria bermatzeko konpromisoa, etorkizuneko belaunaldiek eurenak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe (2. artikulua). Hala, 2001 urteko urtarrilean sinatu zen “Euskal Herria Iraunarazteko Konpromisoa” agiriak jasangarritasunaren bidea gidatu behar duten oinarriak finkatu zituen: - kode etikoa, kohesioa eta gizartearen partaidetza, ardura-printzipioa, ikuspegi integratua, ekoefizientzia eta plangintza estrategikoa. 2002 urteko ekainean, Eusko Jaurlaritzak Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia (EAVDS 2002-

2020) onetsi zuen, bertan, Europaren ingurumen politikarekin bat eginez, formulatu zuen epe motzeko, ertaineko eta luzeko helburuen eta konpromisoen multzoa. Epe motzeko helburuak eta konpromisoak Ingurumen Programa Markoan (PMA) 2002-2006 eratu ziren. Beronen indarraldia amaituta, Ingurumenaren Programa Markoa (PMA) 2007-2010 idatzi zen, zeinetan aurreko Programan lortu ziren helburuen azterketa egin eta hurrengo helburuak finkatzen diren, honela:

- Lurralde osoko airearen kalitatea hobetzea pertsonen osasunean eta bizikalitatean duen eragin bereziagatik, hiriguneei arreta berezia eskainiz.
- Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, EHAEko Plangintza Hidrologikoan zehazten direnak eta narriadura galaraztea, pertsonen garapenean eta bizikalitatean eta ekosistemen egoera onean ahalik eta erarik onenean laguntzearen.
- Lurzoruaren kudeaketa lortzea kutsadura historikoa jasaten duten gunek berreskuratzeko lehentasuna jarriz eta kutsadura-mota berriak aurreikusiz.
- Bitarteko naturalen kontsumo arduratsua sustatzea (ura, 15 energia, materialak eta 16 lur-zorua), eraginkortasun-mailak ikerketaren eta berrikuntzaren bitartez optimizatuz beti ere lehiakortasuna hobetzeko bidean.
- Energia aurreztea, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta kontsumoko sektore guztietan energia berriztagarrien erabilpena sustatzea.
- Hondakinen sorkuntza murriztea eta horien kudeaketa hobetzea tratatzen ez diren hondakinetan zero maila lortu artean.
- Aniztasun biologikoaren galera gelditzea lurreko eta itsasoko habitatak eta ekosistemak babestuz eta euren funtzionamendu jasangarria berrezarrit.
- Pertsonen mugikortasun-eskabidea kudeatzea, oinez ibiltzeko, bizikletan ibiltzeko eta garraio kolektiboa erabiltzeko ohitura berbideratzea. Merkantzien banaketa-ohitura itsas-garraiora eta tren-garraiora berbideratzea, errepideko garraioa gutxitzearen.
- Lurraldean diharduten sektore ezberdinen plangintza bateratua eta koherentea lortzea, bertan dauden artifizializazioko eta zatiketako arazoak konponduta uzteko moduan.
- Berotegi-efektua eragiten duten substantzien isurketa mugatzea karbonoaren erabilpen gutxiko ekonomiarentzako trantsizioa eginez.
- Klima aldaketaren aldaketa kudeatzea gure urrakortasuna minimizatuz aurreikusten diren eraginen aurrean.

4. AZTERTU DIREN ALTERNATIBEN ANALISIA. O ALTERNATIBA

4.1 "O" ALTERNATIBA

2008ko urtarrilaren 30eko Udalbatzaren Osoko Bilkurak onartu zuen Oiartzungo Arau Subsidiarioen Berrikuspen agiriari behin betiko onespren partziala ematea, etenda utziz bizitegi lurzoruko ARR-1, UGA-1-A ELI-4, UGA-4, UGA-5-A, UGA-1-C eta UGA-1-D areak, lurzoru industrialeko UGA-12, UGA-11, LAN-3 areak, Arraguako Zuzkidura Parkea (ARR-5) eta UGA-2 eta UGA-14 areen barruan dauden bideetakoak. Bilkura horretan bertan erabaki zen etenda utzitako areak bere baitan jasoko zituen Arau Subsidiarioen berrikuspen partzialaren agiri-idazkera gitea.

Etenda utzitako area batzuk udalerriko hiri-egiturako eremu nabarmenak dira, gizartearen aldetik eskakizun garrantzitsuak dituztenak, batzuk aipatze aldera Arragua eta Ugaldetxo auzoetakoak, giza-ekipamendu, mugikortasun eta hirigunearen biziberritzeko eskaeretan. Arraguaren kasuan, auzoaren hiri-hobekuntza eta aisialdiko ekipamendu eta leku-eskaerak oihartzun sozial handikoak dira. Ugaldetxon, auzoa zeharkatzen duen errepideak sortzen dituen arazoak konpontzea da bizilagunen eskaera nagusia. *O alternatibak*, hau da, ez-jarduteak, auzoek gaur egun daukaten egoera berean jarraitzea esan nahiko luke, egungo arazo horiek konpondu gabe uztea, okerrera ere egin lezaketelarik.

ELI-6 hiri-partehartzearen eremu berriaren kasuan, hautua Oiartzungo Udalak antolakuntza-ereduaren gainean egin duen gogoetaren emaitza da, gainerako auzoen aurrean bizigune horren garrantziari eustea eta sendotzea proposatzen duena. Horretarako, beste eremu batzuetako hazkuntzak behera egingo du eta Elizaldekoak gora. Ingurumenaren ikuspuntutik, ELI-6 ez garatzeak eraginen desagertzea lekarke, bereziki paisaiatzko eta nekazaritza balioko lurzoruaren kontsumoaren ingurukoak, hala eta guztiz ere, etxebizitza horiek gunen honetatik kanpo kokatzeak deskonpentsatu egingo luke aukeratu den eredua.

Industri eremuei dagokienez, garapen berriak ez gauzatzeak (LAN-3, UGA-12) onura argiak izango lituzke natura-balioak kontserbatzeari eta ekologi loturari dagokienean. Hala eta guztiz ere, badira beste arrazoi batzuk, ekonomikoak eta hartutako konpromezu mailakoak, exekuzioa baldintzatzen dutenak. Bestalde, eta Zerradi industrialdean (UGA-11) ekintzak egungo egoera hobetzerazuzendua daude, antolakuntzari, irizpideei, berdeguneei eta begi-inpaktuari dagokienean.

4.2 ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPEN PARTZIALEAN AURREIKUSITAKO AUKERAK

Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzialak hainbat mailatan aztertu ditu aukerak; antolamendu-eredua ez ezik, etxebizitza berriak eraikitzeke lekuen inguruko aukerak ere aztertuta.

Jarraian, ingurumen adierazleen ikuspegitik aurreikusitako aukerak aztertuko ditugu, lurraldearen gaineko eragina baloratzeko.

A) Antolamendu-ereduaren inguruko aukeren azterketa

Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzialeko antolamendu-eredua eta Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspen Txostenekoa alderatzean datza lehen azterketa.

Berrikuspen Partzialak proposatzen duen antolamendu-ereduak Oiartzunek orain arte erabilitako parametro historiko, kultural eta urbanistikoak ditu oinarri, eta eredu "polinuklear eta zentralizatu" da horren emaitza, bizitegi bakoitzak lurraldean duen lekuaren arabera (Elizalde litzateke hirigune nagusia).

Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspen Txostenak, berriz, bizitegi berriak haranaren ardatzean barrena kokatzea proposatzen du, Arragua, Ugaldetxo, Iturriotz eta Altzibar auzoei jarraituta.

Dena dela, hirigintza-jarduerarako eremuetan egindako jardueretan islatzen da aukeratutako ereduak; beraz, eredu aldaketaren ondoriozko ingurumen-azterketa egin dezakegu unitate horien ingurumen adierazleak baloratuta.

Ondorengo azterketa Berrikuspen Partzialaren xede izan diren eremuetan egin da (ARR-1, ARR-5, UGA-1-A, UGA-1-C, UGA1-D, UGA-2, UGA-4, UGA-5A, UGA-11, UGA-12, UGA-14, ELI-4, LAN-3), bai eta ELI-6 eremu berrian ere, Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspen Txosteneko proposamenak eta Berrikuspen Partzialekoak alderatuta.

Honako parametro hauek erabili dira azterketa egiteko:

- Lurzoruaren kontsumoa
- Nekazaritza-balio handiko lurzorua kontsumoa
- Natur balioa duten eremuen gaineko eragina

A.1) Lurzoruaren kontsumoa

Baliabide mugatua da lurzorua, eta zentzuz erabili behar da udalerrri baten azpiegitura, edo horren hazkunde urbanistiko edo industrialia planteatzeko orduan. Hainbat modutan erabiltzen da parametro hori udal planeamenduaren inguruko iraunkortasun azterketetan eta ingurumen adierazleetan.

Kasu honetan, eta dugun informazioa kontuan hartuta, lurzoruaren kontsumoa aztertu dugu, proposamen bakoitzean hiri-lurra edo lurzoru urbanizagarria, eta bide-sareak lurzoru urbanizaezinean okupatzen duen azalera alderatuta.

Ondorengo taula honetan, Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspen Txostenean eta Berrikuspen Partzialean hirigintza-jarduerarako eremu bakoitzerako proposatutako lurzoru-sailkapenak agertzen dira. Kasu bakoitzaren azalera osoaren (hiri-lurra, urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezineko bide-sarea) alderaketak lurzoru-kontsumoaren aldea erakusten digu.

3. Taula: Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspen Txosteneko eta Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzialeko lurzoru-kontsumoaren alderatzea .

AZTERTUTAKO EREMUAK	ARAU SUBS. BERRIK. TXOSTENA Azalera (m ²)	MOTA	ARAU SUBS. BERRIKUSPEN PARTZIALA Azalera (m ²)	MOTA
ARR-1	87.100	Hiri-lurra	ARR-1-A: 12.525 ARR-1-B: 66.746	Hiri-lurra Urbanizagarria
ARR-5	416.200	Urbanizagarria	55.145	Sistema Orokorra
UGA-1-A UGA-1-C UGA-1-D	42.300 310 480	Hiri-lurra Hiri-lurra Hiri-lurra	UGA-1: 45.643 UGA-15: 23.128	Hiri-lurra Urbanizagarria
UGA-2	13.200	Bide-sarea lurzoru urbanizaezinean	-	-
UGA-4	43.300	Urbanizagarria	-	-
UGA-5-A	11.500	Hiri-lurra	-	-
UGA-11	23.800	Hiri-lurra	26.526	Hiri-lurra
UGA-12	74.700	Urbanizagarria	60.264	Urbanizagarria
UGA-14	25.100	Bide-sarea lurzoru urbanizaezinean	-	-
ELI-4	95.200	Hiri-lurra	-	-
ELI-6	-	-	62.785 2.458	Urbanizagarria Hiri-lurra
LAN-3	83.300	Urbanizagarria	83.300	Urbanizagarria
GUZTIRA	932.590		438.520	

Iturria: Arau subsidiarioen inguruko agirietako hirigintza-fitxak

Taulan ikus daitekeenez, Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspen Txostenean, 932.590 m² lurzoru kontsumitzen dira (goian aipatutako definizioaren arabera); Berrikuspen Partzialean, berriz, 438.520 m² baino ez.

Eredu aldaketak gutxitze handia suposatu du, beraz, lurzoru kontsumoari dagokionez; izan ere, %50 baino gehiago gutxitu da, aurreko proposamenaren aldean. Aldaketa horren ondorioz, gainera, asko handitu da udalerriko lurzoru urbanizaezina: aurreko Berrikuspenen kontsumitutako 932.590 m² horietatik, 494.070 m² pasa baitira lurzoru urbanizaezina izatera. Ingurumenaren aldetik emaitza positiboa ekarri du eredu aldaketak, hortaz, adierazle horren arabera.

A.2) Nekazaritza-balio handiko lurzoruaren gaineko eragina

Okupatu edo eraldatu egin dituzten nekazaritza eremuak ere aurreko atalean aztertutako lurzoru urbanizaezinaren kontsumoaren adierazlearen barruan daude. Izan ere, lurzoru horiei eragiten die gehien hirigune eta industrialdeen hazkunde eta azpiegitura eraikitzeak.

Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Balio Estrategikoko Landazabalen artean sartu ditu nekazaritza balio handia duten eremuak, eta beste erabileren gainetik lehenetsi du horiek mantendu eta zaintzea.

Ondorengo taula honetan, balio estrategikoa duten hiri-lur edo lurzoru urbanizagarriak ageri dira, bai eta bide-sareak hartutakoak ere. Balio estrategikoa duten hirigintza-jarduerarako eremuak ere aztertzen dira, eta Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspen Txosteneko eta Berrikuspen Partzialeko proposamenen eragina alderatzen.

4. Taula: Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspen Txosteneko eta Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzialeko nekazaritza-balio handiko lurzoru-kontsumoaren alderatzea

AZTERKETAREN XEDE DIREN EREMUAK	ARAU SUBS. BERRIK. TXOSTENA Gainaz. (m ²)	MOTA	ARAU SUBS. BERRIKUSPEN PARTZIALA Gainaz. (m ²)	MOTA
ARR-5	56.855	Urbanizagarria	-	-
UGA-1-A	12.712	Hiri-lurra	13.000 (gutxi gorabehera)	Hiri-lurra
UGA-4	37.000 (gutxi gorabehera)	Urbanizagarria	-	-
ELI-6	-	-	61.000 (gutxi gorabehera)	Urbanizagarria
GUZTIRA	106.567		74.000	

Iturria: Oiartzungo Udalaren GISetik lortutako azalera.

Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspen Txostenean Berrikuspen Partzialean baino handiagoa da Nekazaritza balio handiko lurzoru kontsumoa, taulan egindako alderaketan ikus daitekeenez. Azken agirian proposatutako eredu aldaketak %30eko gutxitzea suposatzen du; beraz, ingurumenaren adierazle horren arabera, 2007ko agirian proposatutako eredia baino askoz ere egokiagoa da.

A.3) Natur intereseko eremuen gaineko eragina

Proposamenetako natur intereseko eremuei dagokienez, Berrikuspen Partzialean jardun-eremu horietan egindako aldaketen eragin nagusien zerrenda duzue jarraian:

- Learreko (ELI-4) eremurako aurreikusitako jardueren bertan behera uzteak, Urkabeko natur intereseko eremuaren gaineko eraginak ezabatzen ditu.
- Zerradiberriko eremuko (UGA-12) azalera industrialak gutxitzeak haranaren eta Sarobe erreka-eremuaren gaineko inpaktua txikitzen du.
- Ugaldetxoko ibaiertzetik (UGA-2) doan bidea kentzeak, Oiartzun ibaiaren ertzetik kalteak ezabatzen ditu.
- Arraguako Hornidura Parkearen (ARR-5) eremua txikituta, natur ahalmen handiko hostozabal eremuaren gaineko kalteak ezabatzen dira.

Berrikuspen Partzialean egindako aldaketekin, gutxitu egin da natur intereseko eremuen gaineko eragina.

Aukeratutako adierazleen bidez azterketa egin ondoren, eredia aldatzeak jarduera guztien gaineko ingurumen eragina txikituko duela esan daiteke; beraz, aurreko agiriko eredia baino askoz ere egokiagoa da Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzial honetarako aukeratutako eredu berria, ingurumenari dagokionez.

B) Garapen berrien kokalekuen inguruko aukeren azterketa


Aurreko atalean aztertutako eredu aldaketaren ondorioz, Elizalde gainerako hiriguneen "buru" izaten jarraitzeko hainbat aldaketa proposatzen ditu Berrikuspen Partzialak; besteak beste, aurreko ereduak Arraguarako eta Ugaldetxorako proposatutako bizitegi batzuk Elizalden egitea. Berrikuspen Partzialean deskribatutako aukeren azterketa ere erabili da bizitegi horientzako kokagune egokiena aukeratzeko.

Azterketa horrek bizitegi horiek kokatzeko egokiak izan daitezkeen Elizaldeko hirigunearen inguruko zortzi eremu aztertu ditu (ikusi 8. irudia), bai eta hirigintzaren aldetik dituzten alde onak eta txarrak deskribatu ere. Aztertutako alde horien artean, ingurumen faktoreak, nekazaritza balio handiko lurzoruen kontsumoa, topografia (egin beharreko lur-erazteak zehazten ditu horrek), hirigunearen jarraipena eta berdeguneak daude, besteren artean. Berrikuspen Partzialean kontsulta daitezke eremu horiek -plano batean ageri dira-, bai eta aukera bakoitzaren alderaketa egiten duen taula ere.

Ingurumenaren ikuspegitik, eta azterketan erreferentzia izan diren ingurumen faktoreak eta natur balioa duten eremuen gaineko eragina aintzat hartuta, Elizalderen iparraldeko F, E, D, C eta B aukerak ez dira egokiak; izan ere, aldapa handiak daude eremu horietan (lur-erazte handiak egin beharko lirateke), eta E eta D aukerei dagokienez, bereziki, hiri-bilbea Urkabeko Natur Parkera hurbilduko lirateke. A aukerak nekazaritza balio handiko lurzorua kontsumitzea eta ibaiertzeko ekosistemak kaltetzea dakar, eta, gainera, aukeratutako antolamendu-ereduaren kontrakoa da (Elizaldeko hirigunea Altzibarkoarekin lotzea suposatuko luke). Azkenik eta G eta H aukerei dagokienez, nekazaritza balio handiko lurzoruen kontsumoa da ingurumenaren gaineko eragin handiena; ia Elizalderen hiri-bilbean sartuta dauden eremuak dira, ordea, eta ez dute topografia arazorik, eta ez diete natur intereseko eremuei eragiten.

Hortaz, ingurumenaren aldetik G aukera da egokienetako bat, bizitegi berriak egiteko.

8. irudia: Elizaldeko garapen berrien kokalekuen inguruko aukeren azterketa



Iturria: Oartzungo AASS Berrikuspen Partzialen Memoria.

5.LURZORUEN HARTZE-GAITASUNAREN BALORAZIOA BERRIKUSPEN PARTZIALAREN EDUKIEN AURREIKUSPENERAKO

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31 artikuluan xedatzen denaren arabera, ingurumenaren iraunkortasunari buruzko txostenak bere baitan izan behar du azterketa-planean jasotzen diren aurreikuspenerako lurzoruen hartzeko gaitasunari buruzko azterketa, eta kontuan izan beharko ditu ondorengo txosten hauek:

- Administrazio hidraulikoaren txostena eskabide berriak asebetetzeko eta jabari publiko hidraulikoa babesteko, sektorekako arautegiaren arabera nahitaezkoa denean.
- Kostetako administrazioaren txostena itsas lurreko jabari publikoaren mugarrizteari eta babesari buruzkoa, hala balegokio.
- Errepideen eta aurreikusten diren bestelako azpiegituren gaineko administrazio eskudunaren txostena, planean jasotzen diren balizko afekzioei buruzkoa. Txosten honek hirigintza-jarduerak zerbitzuen gaitasunean duen inpaktua aztertuko du.

Berrikuspen Partzialean sartuta dauden eremuen arabera, eta Kosta-Legeak horietako bati berari ere eragiten ez dionez, hurrengo ataletan bitarteko hidrikoei eta jabari publiko hidraulikoari buruzko gaiak aztertzen dira, baita bide-azpiegiturei eta beste batzuei buruzkoak ere.

Berrikuspen Partzialaren proposamenek lurzoruak bitarteko natural gisa hartzearen ondorioz izan daitezkeen eraginen inguruan, 4.2. atalean, analizatu diren alternatibak aztertzen dituen atalean, lurzoruaren kontsumoa azterketaren oinarritzko elementu gisa dago sartuta.

5.1. BITARTEKO HIDRIKOEI ETA JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAREN BABESARI BURUZKOAK

5.1.1 Bitarteko hidrikoen erabilgarritasuna

“Oiartzungo Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzialarekiko behar diren bitarteko hidrikoen eta azpiegitura hidraulikoaren erabilpenari buruzko txostenean”, Oiartzungo Udalak 2008ko abenduan kaleratua, ondorioztatzen da:

Oiartzungo ur-horniduraren sistemak eta saneamenduak baditu nahikoa bitarteko hidriko, ura edateko moduan jartzeko nahikoa sistema eta alta eta bajako nahikoa azpiegitura ditu ondoren adieraziko diren eremuen hazkuntzagatik sor daitezkeen ukanbeharrak bermatzeko. AipatuRIKO area horiek ondorengoak dira: ARR-1, ARR-5, UGA-1-A, UGA-1-C, UGA-1-D,

UGA-2, UGA-4, UGA-5-A, UGA-11, UGA-12, UGA-14, ELI-3, ELI-4, ELI-6 eta LAN-3

Beraz, berretsi daiteke Berrikuspen Partzialean aurreikusten diren garapen berrien ondorioz sortuko diren eskabide berriak asebetetzeko nahikoa bitarteko hidriko badagoela. Agiria eranskinari atxikia dago.

5.1.2 Jabari Publiko Hidraulikoaren babes

Jabari Publiko Hidraulikoaren babesari dagokionez, ez dago Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzaren Berrikuspen Partzial honi dagokion txostenik, baina erreferentziatzat har daiteke Zuzendaritza horrek Oiartzungo Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenari buruz (2007), 2007ko otsailaren 12an eman zuen txostena, esparru batzuetan bat baitatuz. Txosten horretan AASSen Berrikuspenean planteatzen diren proposamenak aztertzen dira, Jabari Publiko Hidraulikoari buruzkoak, eta proposamen multzoaren aldeko emaitza eman zen, beti ere baldintza batzuk, orokorrak zein esparru bakoitzekoak, betetzen badira.

Orokorrean, eta esparru guztietarako, Uren Zuzendaritzaren txostenean adierazten da, batetik, ibai-ibilgu guztien babes-zortasunaren 5 metroak okupatzea saihestu egin behar dela (hori ezinezkoa den kasuetan, okupazioa minimizatu egin beharko da) eta, bestetik, EHAEko Ibaiertzen eta Erreka-ertzen Antolakuntzako Arloko Lurralde-Planean ezartzen diren minimoak errespetatu egin beharko direla, uholde-arriskuaren arabera, hala balegokio, gehitu egin beharko diren distantziak aintzat hartuz.

Gaur egungo Berrikuspen Partzialean sartuta dauden proposamenek betetzen dituzte baldintza orokor horiek, eta horretarako kontuan hartu dira kartografian agertzen diren gunen uholdegarriak, Ibaien eta Erreken PTSen 1. aldaketan jasoa eta oraindik ere hasierako onespenez dagoena.

Eremu zehatzei buruzko baldintzen inguruan egungo Berrikuspen Partzialean jasota dauden eremuen barruan daudenetan eragina dutenak azaltzen dira jarraian, eta proposamenetan betetzen diren ala ez aztertzen da:

- Arragua Auzoa (ARR-1)

Uren Zuzendaritzak adierazten du *"ezin izango da eraiki uholde-orbanak erasandako azaleran 100 urteko birgertatze-aldian. Uholde-orbanak 100 eta 500 urte bitarteko birgertatze-aldian erasandako lurzoruan onargarriak dira hirigintzako aprobetxamenduak, beti ere horiek, eraikinak, 500 urteko birgertatze-aldirako uholdeetatik salbuetsiak geratzen badira, eta horretarako xehetasunezko azterketa hidraulikoa eta inguruneari buruzkoa eskatuko da, inguruko uholde-arriskua areagotzen edo larritzen ez dituen ingurumen-neurri zuzentzaileak definitzen eta justifikatzen dituen".*

Urbanizazio-proposamenak ibai-parke baten eraketa aurreikusten du Lintzirin erreka ezkerrean, ibaialdeak eta gune uholdegarriak berreskuratuta, erabilpen publikoko eta aisialdiko gunea eratzeko. Jarduerak uholde-arrisku orbanen aldaketa ekarriko dute eta, ondorioz, xehetasunezko azterketa hidraulikoa egin beharko da, Uren Zuzendaritzak agintzen duen bezala.

- Zerradi eta Zerradiberri Industrialdeak (UGA-11 eta UGA-12)

Uren Zuzendaritzaren txostenak esaten du uholde-arriskuaren azterketa egin beharko dela *“oztopo hidraulikoen ordezkapen-jarduerak egin ondoren, eta bertan 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiaren ibilguz dagozkien ur-laminaren lerroak grafiatuta agertu beharko dira eta, halaber, luraren erabilpen-irizpideak aplikatu beharko dira uholde-arriskuaren mailaren arabera”*. Irizpide horiek EHAeko Ibai eta Erreken PTSren 1. aldaketaren barruan dagoen informazioan jasota daude.

- Ugaldetxo (UGA-1)

Ugaldetxon proposatu diren garapenen kasuan, Berrikuspen Partzial honetan nabarmen murrizten da Jabari Publiko Hidraulikoaren eragina, UGA-2 eta UGA-4 eremuetan planteatutako azpiegitura eta hirigintzako garapenak alde batera utzi baitira. UGA-1 eremuari dagokionez, aldatu egin da aurreko proposamenarekiko, eta horrela Oiartzun ibaiaren bi aldeek izango duten eragin kaltegarri nagusia zubi berri baten eraikitzea izango da. Gainera, erabilpen publikoko ibai-parke bat egiteko asmoa dago eskuinaldean, betetze-zati bat kenduta eta ibai-ertzeko jatorrizko morfologia eta landaredia berreskuratuz. Bi jarduera horiek alda ditzakete eremu honetako uholde-orbanak eta, ondorioz, xehetasunezko azterketa berria egin beharko da, ezin baita Uren Zuzendaritzaren Txostenean adierazten dena bere horretan extrapolatu.

5.2 ERREPIDEEN ETA GAINERAKO AZPIEGITUREN INGURUAN AURREIKUSTEN DEN ERAGINARI BURUZKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren Departamentuak 2009ko apirilaren 28an Oiartzungo Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzialaren inguruko derrigorrezko txostena eman du. Aipatu txostenak Departamentuko eskuduntzakoak diren xedapenetan aldaketak izan dituzten eremuen azterketa egiten du eta bere aldetik ez dagoela eragozpenik ondorioztatzen du.

5.3 LURZORUAREN KONTSUMOARI BURUZKOA

Ikus 4.2. atala

6. BERRIKUSPEN PARTZIALEKO PROPOSAMENEK ERAGIN DITZAKETEN EREMUEN INGURUMENEZKO EZAUGARRIEN DESKRI BAPENA


Udalerrria osotasunean aztertzen ez duen zati-berrikuspena denez, ingurumen-ezaugarrien deskribapena berrikuspen partzialean egiten diren proposamenek eragin dezaketen udalerrriaren eremuetara mugatzen da. Eremuak definitzeko auzoen mugak hartu dira erreferentziatzat, nahiz Ugaldetxoren kasuan egoki iritzi den Oiartzun ibaiaren harana eta Sarobe erreka bereiztea. Horrela bada, aztertu diren eremuak dira Usategietako gaina, Arragua, Elizalde, Oiartzun ibaiaren ibarra Ugaldetxo auzoa zeharkatzen duen gunean eta Sarobe erreka harana (ikus 9. irudia).

Eremu bakoitzaren deskribapenari dagokionez, helburua ez da izan ingurunearen ezaugarri guztien azterketa sakona egitea, eta horrela, bada, azterketa ondorengo ingurune-eraginaren balorazioa egiteko orduan interesgarrientzat hartu diren elementuen deskribapenen azterketan oinarritu da:

- Gaur egungo landaretza eta interes komuneko habitatak
- Natur eta paisaia balioa
- Ibai-ibilguak eta lur azpiko urak
- Lotura ekologikoa
- Balio agrologikoa
- Kultur ondarea
- Zarata
- Arriskuak

Bestalde, ingurumenaren ezaugarri batzuk komunak dira, zein deskribatu diren eremuetan zein udalerrri osoan, beraz, horietako bakoitzaren deskribapen zehatza egin aurretik, aipaturiko ezaugarri komun horiek aurkezten dira.

9. irudia: Berrikuspen Partzialean egiten diren proposamenek eragin dezaketen aztertutako eremuak



Iturria: gu geuk egina.

Atal hau egiteko kontsultatu diren informazio-iturriei dagokienez, aurreko ataletan aipatu diren planetako eta azterketetako edukiez gainera, ondorengoak erabili dira:

- Kontsulta egin zaien erakundeek bidali dituzten txosten sektorialak (Bioaniztasunaren eta Ingurumenaren Partaidetzako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Arreta Eskaintzeko eta Landa eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritza)
- Oiartzungo AASSen Berrikuspenaren Ingurune-Eraginaren Ebaluaketa bateratuaren azterketa. Ingurumenaren diagnostikoa. 2005eko otsaila.
- Oiartzungo AASSen Berrikuspenaren Ingurune-Eraginaren Ebaluaketa bateratuaren azterketa. Ingurunearen diagnostikoa. Behin-behineko onespena. 2006ko azaroa.
- Oiartzungo Udala. 2004. Oiartzungo Udalerriko Inguru Fisikoaren Azterketa eta Naturaren edota Paisaiaren ikuspegitik garrantzia duten guneen inbentarioa. Kartografia Digitala. GIS datuak eta inbentarioak.
- EHAeko Gainazaleko Ur Masa Kontinentalen Ezaugarriak. Ibaiak eta Urtegiak. Ur Zuzendaritza – Eusko Jaurlaritza. 2004.
- "Geoeuskadi", Eusko Jaurlaritzaren geografi zerbitzua.

6.1 EREMU GUZTIETAKO INGURUMENAREN EZAUGARRI KOMUNAK

Atal honetan ondoren deskribatzen diren eremuetako elementu komun batzuk jasotzen dira, horietako bakoitzean errepikatzen ez ibiltzearren.

6.1.1 Fauna interesgarria

Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren txostenetik, ondoko informazioa jaso da.

❖ **Suge berde-horiaren (*Coluber viridiflavus*) Lehentasunezko Banaketa-Gunea**

Ia udalerrri osoa da espezie honen Lehentasunezko Banaketa-Gunea, eta horrek esan nahi du eremuan espeziearentzat habitatik egokien nahiko errepresentazio dagoela eta gainera, egoera onean, beraz, aisa betetzen dira eskatzen dituen baldintzak. EHAEn espezie honentzat Lehentasunezko Banaketa-Gune bi bakarrik identifikatu dira, bata Arabako ipar-ekialdean eta, bestea, Gipuzkoako ipar-ekialdean, Oiertzungo udalerrria barne.

Espezieak betetzen dituen habitatak hesiak eta zuhaixka-eremuak dira, eta kontserbaziorako mehatxurik handiena gune horietan eman daitezkeen asaldurak, murrizketak eta apurketak dira.

Suge berde-horia 92/43/EEEren Zuzentarauaren IV eranskinean jaso dago, babes zorrotza eskatzen duten interes komunitarioko animalia eta landare espezieak jasotzen dituen eta EHAEn "interes bereziko espeziea" gisa katalogatua dago, Arriskuan dauden Espezien Euskal Katalogoaren arabera.

❖ **Ferra-saguzar mediterraneoaren (*Rhinolophus euryale*) larreratze-gunea**

Udalerrriko lekurik gehienetan larreratzen da espezie hau, baso edo zuhaixken inguruetan, non ehiza egiten duen hostotsuek, hesiek eta zuhaitz isolatuek osatzen dituzten arboladietan.

Espeziea 92/43/EEEren Zuzentarauaren II eta IV eranskinetan jasota dago eta EHAEn "iraungitze-arriskua" gisan katalogatua.

❖ **Berrikuspen Partzialaren eremuan dauden edo egon daitezkeen beste espezie batzuk**

Berrikuspen Partzialaren eremuan agertzen edo ager daitezkeen gainerako espeziei dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak emandako zerrendaren eranskina atxikia dago.

6.1.2 Nekazaritzako ustiategiak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa Eremuen Garapen Sailak bidalitako informazioaren arabera, Oiartzunen nekazaritzako eta abeltzaintzako 485 ustiategi daude (2008 urteko kanpainako datuak). Horien artean batzuk jarduerarik gabeko ustiategiak dira eta beste batzuk basogintzakoak soilik.

Diputazioak 1,000 eurotik gorako banakako errenta duten ustiaketei buruzko informazioa bidali du, guztira 125 ustiategi daudelarik. Ustiategi garrantzitsuenei dagokionez, kalkulatu da horietako 10ek bakarrik sortzen dituztela bi NLU edo gehiago (Nekazaritza-Laneko Unitateak). Azken 10 horiek dira nekazaritzako ustiategi estrategiko gisara har daitezkeenak. Hasiera batean ustiategui estrategiko horien afekzioa aztertzen da zera konprobatuz Berrikuspen Partzialaren proposamenek ez dutela inolako eraginik 10 ustiategi horietan.

Gainerako ustiaketei dagokionez, beti ere inbentarioak emandako datuen arabera, ustiapen bakarra eragiten zen, ARR-1 eremuan aurreikusitako egoitzako garapena dela eta. Larzabalzar baserriko ardi haziendentzako larreak dira eta gutxi gora behera 2,5 Ha.tan hiri-eremu barnean geldituko lirateke. Egungo egoera aldatu egin da lur horien jabetza enpresa eraikitzaile batek eta Eusko Jaurlaritzak dutelako.

6.1.3 Zarata eta area akustikoak

37/2003 Legea , Zaratari buruzkoa, zonabatze akustikoari, kalitatezko helburuei eta jaulkipen akustikoei buruzkoa, garatzen duen Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan xedatzen dena betez, Oiartzungo Plangintzaren AASSen Berrikuspen Partzialari dagozkion area akustikoak mugatzen dira eta kalitate akustikoaren helburuak ezartzen.

Berrikuspen Partzial honetan, behin baino gehiagotan adierazi den bezala, AASSen Berrikuspeneko prozesuan (2007) etenda utzi ziren jarduera-eremuak bakarrik aztertzen dira. Horietako area batzuetan, gainera, ez da jarduera-proposamenik egin, eta azkenik, desklasifikatuta geratu dira. Beraz, irizten da ez dagokiola Berrikuspen Partzial honi Udalerrri osoko zonabatze akustikoa egitea, Plan Orokorra egiten denean, bestalde, egin beharko den azterketa baita.

Horregatik guztiagatik, jarraian Berrikuspen Partzial honetan proposatzen diren jarduera-eremuetako area akustikoak definituko dira.

❖ **a) motako area akustikoa.- Bizitegi-erabilpeneko lurralde-arloa**

1367/2007 Errege-Dekretuan xedatzen den bezala, “area-mota honek bere baitan hartzen ditu erabilpen-mota honetara lehentasunez bideratzen diren lurralde-arloak (gune eraikiak, gune pribatu lorategidunak), eta bizigarritasun-osagarri direnak (hiri-parkeak, egonaldira bideraturiko berdeguneak, banako kirolak egiteko areak, ...)”.

Mota honetako area akustikokoak dira hurrengo eremuak: ARRAGUA (ARR-1), UGALDETXO (UGA-1-A), ELIZALDE (ELI-6).

❖ **b) motako area akustikoa.- Industria-erabilpeneko lurralde-arloak:**

1367/2007 Errege-Dekretuan xedatzen den bezala, “bere baitan hartzen ditu industria jarduerarekin edo portuko lanekin zerikusia duten edo izan dezaketen udalerrri osoko arlo guztiak, ondokoak barne: ekoizpen-prozesuak, materialak pilatzeko parkeak, biltegiak eta jarduera logistikoak, ustiapen jakin bati lotuak egon edo ez, industri jardueraren gune osagarriak, esate baterako azpiestazio elektrikoak e.a.”

Mota honetako area akustikokoak dira hurrengo eremuak: LANBARRENGAINA (LAN-3), ZERRADIBERRI (UGA-12), ZERRADI (UGA-11)

❖ **Area akustikoen kalitatezko helburuak**

Helburu hauek 1367/2007 Errege-Dekretuan xedatzen direnak dira, hain zuzen ere 14. artikuluan eta hurrengoetan.

Kalitatezko helburu horiek xedatzeko garaian jada urbanizatuta dauden areen eta garapen berrien arteko bereizketa egiten da, eta azkeneko horientzat kalitate-mailarik handienak eskatzen dira.

Hurrengo taulan adierazten dira kalitatezko helburu hauek, urriaren 19ko 1367/2007 Errege-Dekretuan adierazten diren eremu akustikoei dagozkienak.

5. taula: zarata-kalitatezko helburuak

Area akustiko mota	Zarata indizea		
	Ld	Le	Ln
a) motatako area akustikoa			
Garapen berriak	60	60	50
Jada urbanizatutako eremua	65	65	55
b) motatako area akustikoa			
Garapen berriak	70	70	60
Jada urbanizatutako eremua	75	75	65

Iturria: 1367/2007 Errege-Dekretua

❖ **Azpiegiturak eragiten dituzten guneak**

2008ko azaroaren 3an, 362-C/2008 Foru Aginduz, onartu ziren Gipuzkoako Bide-ardatz handien Zarata-Mapa Estrategikoak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide-Azpiegiturarako Sailak eginak, Zaratari buruzko 37/2007 Legean xedatzen dena betez. Mapa horietan azpiegitura horien zarata-emisioak eragiten dituzten guneak mugatzen dira (afekzio-guneak edo zortasun akustikokoak), zeinetarako eta indarrean dagoen legediak esaten duenez, eskuduntza duen administrazioak ekintza-planak egin beharko dituen.

Orobat, 2007ko abuztuan Sustapen Ministerioak argitaratu zituen, besterik beste, tren-ardatz handien Zarataren Mapa Estrategikoak, eta horien artean dago Irun-Tolosa bide-tartea, Oiartzun iparraldetik zeharkatzen duena.

Berrikuspen Partzialaren barruan dauden eremuen artean, Arragua areari eta Lanbarrengaina industrialdeari eragiten die zortasun akustiko hauek. Arragua auzoko kasuan, Irun-Tolosa bide-tartea eta A-8, N-1, GI-2132 errepideak eraginda dago, eta Lanbarrengainako kasuan, soilik A-8 autopistak du eragina eremu honetan.

Halaber, Arragua auzoan dago Euskotrenen trenbidea, nahiz eta oraindik ez diren argitaratu dagozkion Zarataren Mapa Estrategikoak.

6.1.4 Arrisku naturalak

Lurzoru eta Hirigintzako ekainaren 30eko 2/2006 Legearen garapenen premiazko neurrien ekainaren 3ko 105/2008 dekretuan adierazten denez, ingurumena iraunarazteko txostenak eremuko arrisku naturalen mapa izan beharra dauka bere baitan. Aipaturiko mapa egiteko, arriskuen deskribapena egiteko bezalaxe, erreferentziatzat "Oiartzungo plangintzako arau subsidiarioen berrikuspen partzialaren arriskuei buruzko Txostena" hartu da, 2008ko maiatzaren 29ko datan

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak argitara emandakoa.

Txosten horretan eta udalerrri-eremuan uholdeei, lurrikarei, suteei eta arrisku teknologikoei atxikiriko arriskuak deskribatzen dira, eta eman den dokumentazio kartografikoan ere hartzen da eremu hau (ikus 2 eranskina).

Edukiari dagokionez, Larrialdiei Arreta Eskaintzeko Zuzendaritzak bidalitako txostenean ohartarazpen batzuk egiten dira arriskuak deskribatu aurretik, ondoren jasotzen direnak.

Kontuan izateko lehen ohartarazpen gisa, txostenak dio Oiartzungo Udalak baduela udalerriko babes zibileko Plana, azaroaren 21eko datan Euskadiko Babes Zibileko Batzorde Iraunkorrek homologatua, eta hain zuzen ere, bidalitako informazioak dio *"udalerrian presente dauden babes zibileko arriskuei buruzko informazioa kontrastatzeko, osatzeko edota eguneratzeko balio beharko duela"*.

Txostenean jasotzen den informazioaren inguruan, adierazten da:

"Lehenik, eskaintzen den babes zibilen arriskuei buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzak onarturiko lurralde-planetan eta plan berezietan aurreikusten diren arriskueta mugatzen dela, eta ez kultur ondarearen eta ingurune naturalaren edo hemen mugatzen den esparrutik kanpoko beste eremu batzuen kontsiderazioetara.

Bigarrenik, jarraian aipatzen den edukiak, informazio-balio hutsa duenak eta plangintza bera idatzi aurretiko izaera duenak, ez du Larrialdien Arretarako Zuzendaritzak egin beharko duen auzi, balorazio edo bestelako ohartarazpenei buruzko aurre juzkurik egiten, alegazioetan edo jadanik idatzita edo garatuta dauden agirien arabera plangintzaren prozedura-onespenean gauzatzen den bitartean planteatzen daitezkeen edo bestelako kontsulta batzuetan".

Jarraian txostenean agertzen diren arriskuak deskribatzen dira.

❖ **Uholde-arriskuari loturikoak**

Adierazten denez, erabili diren iturriak, nagusiki, dira Iparraldeko Plan Hidrologikoa III, EHAEko (Kantauri isurialdea) Erreka eta Ibaiertzen Sektorekako Lurraldeko Ordenamendua, Euskal Herriko (Eusko Jaurlaritza) Uholdeak prebenitzeko Plan Integrala eta EHAEko hiriguneen uholde-arriskuaren azterketa 2001-2005 (Eusko Jaurlaritza).

Uholde-arriskuari loturikoen inguruan ondokoa adierazten da:

- Oiartzun ibaiaren ibilgua 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiko uholde-orbanarekin identifikatzen da.
- Azpiegitura hidraulikoei dagokienez, jarduera-inguruan ez da biztanleriarentzat arriskutsua izan daitekeenik identifikatzen, nahiz hausturagatik nahiz berorien erabilpen txarragatik gerta daitekeenik.
- Oro har, eskatzen da EHAEko Erreka eta Ibaiertzen Sektorekako Lurraldeko Ordenamendua errespetatzeko eta baita Iparraldeko Plan Hidrologikoa III agirian xedatzen dena ere.

Horren inguruan, Oiartzungo AASSen Berrikuspen Partzialean proposatzen diren jarduerak errespetatu egiten dituzte aipatu PTsek ezartzen dituzten distantziak. Horretaz gainera, kontuan izan dira, areen ordenamenduan, PTS honi lehenengo aldaketan gehitu zaion kartografian definituta dauden orbanak, lurzorua erabilpen-irizpideak, hasierako onspena bakarrik baldin bazuen ere.

Azkenik, eta prezipitazioei dagokienez, txostenak dio eremuko prezipitazio-ixomatikoak 350 eta 425 n m/egun artean daudela 500 urteko birgertatze-aldirako, horrek esan nahi du drainadura-lan guztietarako kontuan hartuko direla prezipitazio horiek dagozkien birgertatze-aldirako emari egokiei korrelazionatuta.

❖ **Lurrikara-arriskua**

Txostenean adierazten denaren arabera, Oiartzun salbuetsia dago Lurrikaren aurkako Larrialdi-Plana egitetik, VI intentsitateko gunean kokatzen baita (Lurrikara-arriskuaren aurkako Larrialdi-Plana, 2006ko irailekoa), beraz, eta dirudienez nekez gerta liteke udalerriko eraikinak botatzeko moduko lurrikararik.

Hala eta guztiz ere, txostenak esaten du eraikuntza berrietan kontuan izan behar dela *lurrikaren aurkako Eraikuntzako Araua: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-02), irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuak* onartua, beraz, Berrikuspen Partzialaren edukietara gehitu beharko da.

❖ **Baso-suteen arriskua**

Txostenean adierazten denaren arabera, sute-arriskuaren estimazioa EHAEko (EJren Ingurumen Saila, 2007) landaretzaren kartografiaren informaziotik eta Euskal Herriko Basoetako Erregai-Eredutik (DAE, 1999) abiatuta egiten da. Ikerketa-eremuaren emaitzaren arabera lau arrisku-maila bereizten dira:

- Arrisku nulua: mahasti-guneei dagokiena.
- Arrisku txikia: landaretza erruderal nitrofiloari dagokiona (hiriguneak) eta belardiak eta Atlantiar isuriko laboreak.
- Arrisku ertaina: harizti hondatuko guneei dagokiena.

- Arrisku handia: harizti-gune finkatuei eta baso-landaketei dagokiena.

Berrikuspen Partzialeko eremuak arriskurik nulukoan eta arrisku ertainekoan artean aurkitzen dira, une jakin batzuetan arrisku handia ere agertzen delarik hostozabalen basoetan.

Edozein kasutan ere, diagnostiko espezifikoa eta zehatza egin behar dute dagokien udal zerbitzuek arrisku-maila horiek egiaztatzeko eta, hala balegokio, baita egoki irizten diren partehartzeko eta prebentzioko neurriak zehazteko ere.

❖ **Arrisku teknologikoak**

Ondorengo arriskuak aztertu dira:

- Merkantzia Arriskutsuen Garraioa

2005 urteko "Merkantzia Arriskutsuen Garraioaren Mapa-fluxua EHAEn" agiria abiapuntu hartuta, bideak identifikatzen dira (errepideak eta trenbideak) eta biztanleriarentzat nahiz ingurune naturalarentzat duten arrisku-maila baloratzen da.

Oiartzungo udalerraren kasuan, esaten da bereziki Iparraldea eta Ipar-mendebaldea direla arriskurik handieneko guneak, bertatik igarotzen direlako A-8 eta N-1, hurrenez hurren, arrisku HANDIKOTZAT eta ERTAINEKOTZAT katalogatuak eta RENFEren trenbidea (Irun-Alsasua-Miranda de Ebro), arrisku ERTAINEKOTZAT hartua.

Azpiegitura bakoitzaren bi alboetan, 600 metroko banda bat definitzen da, istripukasuetan egoera txarrean esku-hartu beharreko gunea dena, Materia Arriskutsuekin izaten diren Istripuetan Esku-hartzeko Fitxetan 2001 jasotzen diren gomendioen arabera, Eusko Jaurlaritzaren Barne-Sailak argitaratua material arriskutsuen fluxu-erlazioaren inguruan.

Arrisku-azpiegituren identifikazioa zein 600 metroko bandak eragiten dituen guneak Oiartzungo Larrialdi-Planaren barruan sartu beharko dira.

- SEVESO II Arautegia

Txostenaren arabera, Oiartzungo udalerraren inguruan ez da industri jarduera arriskutsuei loturiko industriarik antzeman.

6.2 EREMUEN DESKRIBAPENA

6.2.1 Usategietako Gaina

A) Kokapena eta deskribapen orokorra

Oartzungo herriaren iparraldean kokatua, Lezo eta Irunekin muga egiten du, eta hegoaldetik A-8 autopistak zeharkatzen du.

Landa-gunea da, baserriak eta belardiak daude, berriki Lanbarren industrialdea garatu da, Arañaburu sakana oso-osorik betetzen duena (eremuaren mendebalderaino). Era berean, gune honetan kokatua dago autopistako zerbitzugunea eta Vascontainer-en zabortegia.

B) Egungo landaretza eta interes komunitarioko habitata

Nagusiki belardiak eta hostozabal autoktonoen arboladiak, baita hesiak, txilardiak, otadiak eta baso-landaketaren bat edo beste. Landaretzarik gabeko guneak zabortegiak, autopistako zerbitzuguneak, Lanbarrengo industrialdeak okupatzen dituztenak dira eta azken bi urteotan kokatu den betetze-lanez (industrialdekoak) eraginda dagoen gunea.

Interes komuneko habitati dagokienez, ondorengoei dagozkienak daude: *txilardi lehor europearra* (4030 kodea) eta *Garaiera txikiko belardi txarrak* (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) (6510 kodea).

C) Natur balioa eta paisaiarena

Eremuan nagusi den landazabal-paisaia, begi-inpaktu handiko azpiegiturak eta instalazioak daudelako dezente asaldatua dago (autopista, industrialdea, zabortegia, zerbitzugunea, ...). Lurzoruaren topografia originala bereziki eraginda gertatu da Arañaburu ibarreko haranean bertan egin diren lur-mugimenduengatik eta terraza-lanengatik.

Topografikoki garaiera altu samarrean kokatua dagoenez, eremu honetan paisaiaren hauskortasuna handia da, eta bertan garatzen diren jarduerak inguruko lur ezberdinetatik ikusten dira.

Natur balio handieneko elementuak hostozabalen basoak dira, babesa ematen dietenak ornodunen espezie askori, nola egoiliarrei hala negua igarotzera etortzen direnei edo migratzen dutenei, besterik beste okil txikia bezalako espezie bitxiei. Kokapenak, Jaizkibel Aiako Harriarekin lotzen duen korridore ekologikoaren artean egoteak, gainera, espezien sakabanaketa eta desplazamendua errazten duten lokailu bilakatzen dituzte.

D) Ibai-ibilguak eta lur azpiko urak

Arañaburu erreka, Oiartzun ibaiaren isuri aldera, guztiz asaldatua eta ubideratua dago Lanbarrengo industrialdearen eraikuntza tarteko. Bidasoa ibaiaren isuri aldera, Araso erreka elikatzen duten erreka batzuk daude, hori ere, Araso erreka, asaldatua dago ibai-tarte batean, Vascontainer-eko zabortegia tarteko.

Lur azpiko uren inguruan esan behar da akuiferoen kutsadurarako hauskortasun txikiko eremua dela.

E) Lotura ekologikoa

Usategietako gaina korridore ekologikoa da, Jaizkibel, Interes Komuneko Gunea, Aiako Harria Natur Parkearekin lotzen duena, "Euskadiko Autonomi Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea" azterketaren arabera (ikus 3.2.1 atala). . Zehatz esanda, korridore horren indargetze-eremuan dago, eta azterketa horren arabera, jarduera antropikoen ondoriozko "ertz-efektuak" arintzeko da eremu hori. Hala, eraginak prebenitzea, landare naturalak babestea eta lehengoratzea, eta nekazaritza, basogintza, abeltzaintza eta ehiza ustiaketa iraunkorra lortzea dira azterketan eremu hauetarako definitutako kudeaketa helburuak.

F) Balio agrologikoa

Nekazaritzako eta Basozaintzako PTSen planoan jaso dagoen informazioaren arabera, eremuan Balio Estrategikoko (Nekazaritzako eta Abeltzaintzako eta Landazabaleko) kategorian sartua dagoen orbana dago autopistako zerbitzugunea inguratuz eta berorren ekialdera. Eremuaren gainerakoa Trantsizio-kategorian dago (Nekazaritzako eta Abeltzaintzako eta Landazabalekoa) eta Basotzaintzakoan (Mendi kategoriaren barruan).

Aipatu beharra dago baso-kategorian sartuta dagoen zati handi bat, gaur egun, degradatua eta Lanbarrengo industrialdea egitearen ondorioz, betelanez eraginda dagoela.

G) Kultur ondarea

Eremu honetan eta inguruan ez dago Oiertzungo Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzialean ageri den ondare arkeologiko edota historiko-arkitektonikorik.

Ahozko hainbat informazioaren arabera, artzaintza tradizionalarekin lotutako elementu antropologiko bat dago eremu honetan, eta aurkitu ez ezik, babestu ere egin beharko litzateke, eta horren natur izaerari eutsiko dion leku batean jarri.

H) Zarata

A-8 autopista kutsadura akustikoko gune garrantzitsua da, 80 dezibeliotik gorako soinu-potentzia duena Oiertzungo Ingurumen Zarataren Ebaluaketako eta Kudeaketako Planaren arabera. Eremu guztia autopistaren Zortasun-gune Akustikoaren barruan dago, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Zarataren Mapa Estrategikoaren arabera. Lanbarrengo industrialdea ere zarata-gune garrantzitsua da.

I) Arriskuak

Uholde-arriskua

Ez da uholde-arriskuko arearik antzeman.

Baso-suteen arriskua

Eremuaren zatirik handienak, belardiz eta atlantiar isuriko laborez osatua dagoenez, eta landaretza erruderalez edo landaretzarik gabeko guneak ere badaude, sute-arrisku txikikoak dira. Arriskurik handieneko guneak hostozabalen arboladiak eta baso-landaketak dira.

Arrisku teknologikoa

Aztertu den eremua parte-hartzearen guneak eraginda dago (600 metroko bandak azpiegituren bi aldeetan istripu-kasuetan egoera txarrean esku-hartu beharreko gunea) A-8 autopistan (arrisku HANDIKOTZAT katalogatua), N-1 errepidean (arrisku ERTAINEKOTZAT hartua) eta RENFERen trenbidea (arrisku ERTAINEKOTZAT hartua).

Kutsatuak egon daitezken lurzorua

Eremuan kutsatuak egon daitezken lurzoruen zenbait kokapen inbentariatuak daude.

LURSAILAK

KODEA	IZENA	MOTA	LURZORUAREN KALIFIKAZIOA	ORAINGO ERABILERA	AZALERA (m ²)
20063-00145	Cepsa	Industrialia	Urbanizaezina	Bide-erabilerako ingurua	3573.78

ZABORTEGIAK

KODEA	IZENA	MOTA	EGOERA	ERAGINA	AZALERA (m ²)
20045-00209	Arasoko zabortegia	Industrialia	Jardunean	Alto	6140.38
20053-00121	Camping La Rosaleda zabortegia	Geldoak	Jarduerarik gabe	Ertaina	7295.09

6.2.2 Oiartzun haranaren ibarra Ugaldetxo auzoan

A) Kokapena eta deskribapen orokorra

Ugaldetxo auzoko hirigunea kokatzen da bizitegi-eremu honetan, GI-3631 errepideak zeharkatzen duelarik. Balio handiko natur elementuak azpimarratzeko modukoak dira, esate baterako Oiartzun ibaia eta harana, eskuinaldekoa bereziki, Auztegi erreka eta Elizaldeko hostozabalen basoa. Arditurriko bidegorriak ere zeharkatzen du eremu hau.

Oiartzun ibaiaren ezker aldeko ibai-terrazza, zubitik behera, erabat artifizialdua dago eta berriki bizitegi-eremu baten eraikuntza amaitu da. Ibai-terrazaren gainerako eremua orain dela gutxi berriro diren kirol-instalazioek betetzen dute. Eremuaren gainerakoan han-hemenkako eraikuntzak, baserriak, belardiak eta baso txikiak dira nagusi.

B) Egungo landaretza eta interes komunitarioko habitata

Eremuko landaretzarik baliotsuena Oiartzun ibaiaren ibarreko landaretza naturalaren orbana da. Landaretzaren zati bat interes komunitarioko lehentasunezko habitatari dagokio, *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior-en* baso alubialak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*), haranaren beste gunek batzuk *Platanus sp-ren* baso-landaretzak betetzen badituzte ere.

Halaber, hariztiak nabarmentzen dira, horietako batzuk, Auztegi errekaaren ondokoa kasu, oso ondo kontserbatuak. Eremuaren gainerakoan belardiak dira nagusi, zati handi batean interes komuneko habitatari dagozkion *garaiera txikiko belardi txarrak* (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) deriztenak dira.

Azkenik, Oiartzun ibaiaren eskuinaldean, zatirik handiena ondo kontserbatua badago ere, betetze-lanak gauzatu ziren gunek bat dago, gaur egun landaredi erruderalak estalia.

C) Natur balioa eta paisaiarena

Balio handieneko gunek Oiartzun ibaiaren bi aldeetan eta Auztegi errekaaren ibarrean daude. Ondo kontserbatuta dauden zuhaitz-masa autoktonoak dira, nola haltzadiak hala hariztiak. Aldiz, ibai-terrazako arearik urbanizatuenak eta han-hemenka sakabanatuta dagoen etxebizitza-multzoa balio paisajistiko gutxikoak dira.

Faunari dagokionez, Oiartzun ibaia kolakaren (*Alosa alosa*) Interesgune Berezikoko Areen barruan dago, oro har, gunek txiki samarrei eta ondo mugatuei dagozkienak, espezie-populazioa kontserbatzeko garrantzi handikoak edota eman litezkeen

asalduren aurrean oso hauskor agertzen direnak. Espezie hori 92/43/EEE Zuzentarauaren II eta IV eranskinean barna dago, interes komuneko animalia eta landaretza espezieak bere baitan hartzen dituztenak eta kontserbaziorako beharrezkoa da kontserbazioko gune bereziak izendatzea. EHAEn espezie "arrarotzat" katalogatua dago. Arrain migratzaile autoktonoa da, bizitza-ziklo bat itsasoan ematen duena (hazkuntza) eta beste bat ur gezan (ugalketa eta gazte aroa). Ibaien ibilgu ertain eta baxuetan aurkitzen da eta dituen arriskurik handienak errun-guneak eta kimuen guneak, migratzeko oztopoak (presa txikiak eta presak) eta uren kutsadura dira.

D) Ibai-ibilguak eta lur azpiko urak

Oiertzun ibaiak, udalerriko ibai-ibilgu nagusia, eremu hau zeharkatzen du eta balio handiko bitarteko naturala da.

Fauna ere oso interesgarria da, habitat ezin hobeia da ornodun-espezie askorentzat, kolakarentzat (*Alosa alosa*) Interes Berezikoko Area da, arestian aipatu dugun bezala. Horretaz gainera, korridore ekologiko garrantzitsua da, espezie ugari batetik bestera mugitzeko aukera ematen diona.

Gainazaleko Ur Masen Karakterizazio-azterketa baten arabera, Eusko Jaurlaritzak egina, eta eremu honetako Oiertzun ibaiaren kalitate ekologikoari dagokiona, bi ibai-tarte bereizten dira: horietako bata Ugaldetxoko zubirainokoa, eta, bestea hortik gorakoa.

Lehen ibai-tartea, ibaiaren bokaletik Ugaldetxoko zubirainokoa, ibaiaren balorazio globalean dago, nagusiki hirigunean barrena igarotzen den tartea eta hemen azpimarratzekoa da ibarrak oso aldatuta daudela, landaretza ripario eskasa eta astigar zuriak menderatua. Azterketak ondorioztatzen du ibai-tarte honetan egoera ekologikoa txarra dela, ibarreko landaretzaren kalitate eskasagatik eta uraren kalitate txarragatik.

Bigarren tarteari dagokionez, balorazioa egiteko Ugaldetxoko auzotik Karrika errekarerekin bat egiten duen gunera bitartekoa hartu da, esan behar da bereziki landa-gunea igarotzen duela eta ezaugarri nagusietako bat ibarretan dituen zuhaitzi-masa handiak direla, azterketaren arabera, inguruko basoekin loturarik ez dutenak. Azterketaren ondorioa da ibai-tarte honen egoera ekologikoa moderatua dela, ibarretako landaretza kalitate eskasekotzat hartzen du eta ezaugarri biologikoei dagokienez, uraren kalitatea ona da.

Landaretzaren egoerari buruz esan beharko litzateke Eusko Jaurlaritzaren interes komuneko habitaten kartografian, gune honetan lehentasunezko interesa duen haltzadia lokalizatzen dela.

Lur azpiko urei buruz esan behar da akuiferoak kutsatzeko hauskortasun-maila oso baxua dela.

E) Lotura ekologikoa

Gorago aipatu den azterketan adierazi den bezala, eremu honetan Oiartzun ibaiaren haraneko landaretza-tarte batzuek lotura nulua daukate. Hala eta guztiz ere, gune jakin batzuetan, Auztegi errekararen ibarretik hurbil dagoen hostozabalen arboladian kasu, arboladi jarraitu kontserbatua dago, faunaren desplazamendua, migrazioa eta sakabaneta errazten duena eta, orobat, baita poblazioen aniztasun genetikoa ere.

Ugaldetxoko eremutik haratago, Oiartzun ibaia natur elementu garrantzitsua da, haran osoan zehar natur gune ezberdinen arteko lotura ekologikoa ahalbidetzen duena, hain justu ere haraneko landaretzaren egoeraren eta uren kalitatearen baitan dagoen zeregina.

F) Balio agrologikoa

Nakazaritzako eta Basozaintzako PTSen arabera, nekazaritzako arlo baliotsuenak, Balio Estrategikoko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabalen kategorian barna daudenak, Oiartzun ibaiaren bi aldeetan kokatzen dira, Ugaldetxoko zubitik gora eta GI-3631 errepidearen hegoaldera. Eremuaren gainerako belardiak Trantsizio kategorian sartuta daude.

Azpitarratu beharra dago, betelanak egin zireneko Oiartzun ibaiaren aldea Balio Estrategikoko kategorian sartuta baldin badago ere, jarduera horrek seguruenera gune horretan nabarmen asaldatu duela lurzoruaren topografia eta egoera.

G) Kultur ondarea

Eremu honetan Garro baserria dago, Gipuzkoako Monumentu Historikoen Gidan dagoena eta EHAEko presuntzio arkeologikoko Gune gisa aitortua dagoena.

H) Zarata

Eremuko zarata-foku nagusia GI-3631 errepidea da. Oartzungo Ingurune-Hotsaren Ebaluaketako eta Kudeaketako Planaren arabera errepide horren hots-potentzia (egunez) 75 eta 80 dezibelio artekoa da Mamuteko biribilgunetik Elizaldeko bidegurutzeraino eta, 70etik 75era artekoa bidegurutze horretatik Altzibarreko noranzkoan.

Ebaluaketa-Planean inmisio-mailak kalkulatzeko dira, nola gaur egun eremu honetan dauden etxebizitzetan, hala AASSen Berrikuspenean aurreikusten direnetan (2007). Azken horiek erreferentziatzen balio dezakete egungo Berrikuspen Partzialean egiten diren proposamenen inmisio-mailen inguruko balorazioa egiteko.

Aztertu den egungo egoeran, errepidetik hurbileneko etxebizitzetan, errepidetik bost metro ingurura kokatuak, 68 dezibelioko hots-maila (maila hori ateratzeko distantzia bakarrik izan da aringarri eta kontuan hartu da garairik okerrera) kalkulatu da. Maila horiek eremu-mota honetarako 1367/2007 Errege-Dekretuak finkatzen dituen kalitate akustikoaren helburuak gainditu egiten ditu, eta dagoeneko gaur egungo egoeran ere islatuta daude eragin akustikoak.

1) Arriskuak

Uholde-arriskua

Oiartzun ibaiak nahiz Auztegi errekak uholde-arrisku orbanak dituzte, kasu batzuetan gune urbanizatuak eragiten dizkietenak. Uholdeak izateko arriskurik handieneko guneak, 10 urteko birgertatze-aldia dutenak, zabalera handiagoa hartzen dute bi ibai horiek elkartzen diren gunean eta Oiartzun ibaiaren eskuinaldean Ugaldetxoko zubi aldean. Halaber, esanguratsuak dira 100etik 500 urtera bitarteko birgertatze-aldiko uholdegarritasun-orbanak, Oiartzun ibaiaren ezker aldeko ibai-terrazan GI-3631 errepidera ere iristen dira eta Auztegi errekako eskuinaldeko bizitegi-gune bat ere hartzen baitute.

Halere, uholde-eremu horiek era esanguratsuan murriztuta agertzen dira Oiartzun Ibaiaren Azterketa Hidraulikoan (IKAUR; 2006), Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzan entregatua. Gune horietako asko uholde-orban horien eraginetik kanpo geratu ziren.

Baso-suteen arriskua

Eremuaren zati batean ez dago landaretzarik edo landaretza erruderala du, eta eremuaren gainerakoan nagusi dira belardiak eta atlantiar erako laboreak, beraz, sute-arriskua txikia da. Baso-guneak nagusiki ibarrean kokatuta daude, baso degradatua antzeman da, eta, ondorioz, gune horietan sute-arriskua ertaina edo handia da.

Arrisku teknologikoa

Aztertu den eremuaren iparraldean A-8 autopistan (arrisku HANDIKOTZAT katalogatua) parte-hartzeko guneak erasana dago (600 metroko bandak azpiegituren bi aldeetan istripuren bat baldintza txarretan gertatuz gero).

Kutsatuak egon daitezken lurzorua

Eremu honetan kutsatuak egon daitezken bi lurzoruen kokalekuak inbentariatu dira, horietako bat ibaiaren eskuinaldean dago, Ugaldetxoko zubitik gora, betetze-lanak

egin ziren gunean, eta bestea Iturralde gasolindegia ondoan dagoena da, ibaiaren ezkerrean, litekeena baita jarduera horrek erasana egotea.

LURSAILAK

KODEA	IZENA	MOTA	LURZORUAREN KALIFIKAZIOA	EGUNGO ERABILERA	AZALERA (m ²)
20063-00141	Iturralde	Industrial	Urbanizazina	Industrialdeak eta merkataritza inguruneak	1508

ZABORTEGIAK

KODEA	IZENA	MOTA	EGOERA	ERAGINA	AZALERA (m ²)
20063-00166	Atamitx zabortegia	Geldoak	Jarduerarik gabe	Ertaina	7452

6.2.3 Sarobe edo Txalaka erreka ibarra

A) Kokapena eta deskribapen orokorra

GI-2132 errepidea zeharkatu eta Ugaldetxoko industrialdea inguratu aurretik, Sarobe erreka landazabaleko paisaia, belardiz eta hostozabalen basoz betea, han-hemenkako baserriz eta egin berri diren etxeez gain, nagusi den harana igarotzen du. Erreka honetako ura kalitate onekoa da eta ibarreko landaretza-orla ere egoera onean dago, nahiz eta gune batzuetan degradatua egon eta sasiak eta zuhaixkak hartua. Haranaren sarreran eta erreka ezkerrean Zerradiko industrialdea dago.

Haran honetan azpimarratzekoa da Dorre Leizea, EHAeko monumentu izendatzeko proposatua. Kobazuloan 12.000 urteko hezur grabatu bat aurkitu zen.

B) Egungo landaretza eta interes komunitarioko habitata

Eremu honetan, belardi eta labore atlantikoak dira nagusi, baina hostozabalen basoak ere badaude tarteka. Sarobe erreka hainbat zatitan ibar-basoa dago, baina andeatuta eta baita balduta ere, hainbat tokitan.

Interes Komunitarioko Habitaten maparen arabera, haltz beltz eta lizar arrunten (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) baso alubialak daude Sarobe errekan (91E0* kodea), eta lehentasunezko interesekoak dira. Gainera, interes komunitarioko sega-belardi pobre baxuak habitata (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) ere bada eremu osoan (6510 kodea).

C) Natur balioa eta paisaiarena

Haran osoak, orokorrean, dauka natur eta paisai balio handia, interes berezia dute belardi artean dauden hostozabalen basoek, eta denek batera landazabaleko paisaia ondo kontserbatua osatzen dute. Landaretza autoktonoa gordetzen den ibar-tarteak ere balio handiko elementuak dira.

Faunaren inguruan esan behar da, eremutik 500 metro inguruan Maidazuloko kobazuloa dagoela, ferra-saguzar mediterraneoaren lehentasunezko babestokia. Gunearen hurbiltasuna dela-eta, Sarobe errekaaren ibarra, espezie horren larreratze-eremuan dago. Espezieak behar duen habitata hesiek eta basoek osatzen dute.

Munuaundi eta Txabaltxogainako belardiek eta hostozabalen unadek, hegoaldean, landazabalarari lotutako faunarentzat interes bereziko guneak dira, horien artean espezie bitxiak aurkitzen ditugu, esate baterako lepitzuli euroasiatikoa, okil txikia edo Eskulapioren sugea. Herri-mailan gune horiek kontserbatzea garrantzitsua da, bai balio ekologikoagatik eta biologikoagatik eta baita eskaintzen duten berezitasunagatik ere.

D) Ibai-ibilguak eta lur azpiko urak

Aztertu den eremuan Sarobe edo Txalaka erreka da nagusiena edo garrantzitsuena, nagusiki landa-gunetik igarotzen da, ibilgutik hurbil baratzak eta belardiak dituelarik eta gora egiten dugun neurrian baso-erabilpena nagusi dela ikusiko dugu. Eusko Jaurlaritzak egin zuen Gainazaleko Ur Masen Karakterizazioaren arabera, erreka-tarte hau egoera ekologiko onean dago, uren kalitatea oso ona da eta ibarreko landaretza ere kontserbazio-egoera onean dago.

Lur azpiko urei buruz esan behar da akuiferoak kutsatzeko hauskortasun-maila, baxu eta oso baxu artean dagoela.

E) Lotura ekologikoa


Sarobe errekek, Eldotzek eta Kabiolaerrekak lotura-interes handiko ibai-korridorea osatzen dute; izan ere, Aiako Harria Natur Parkearen, natur ahalmen handiko Munuaundi-Txabaltxogaina eremuaren eta Oiertzun ibaiaren arteko lotura ekologikoa ahalbidetzen dute.

F) Balio agrologikoa

Balio agrologikorik handieneko lurzoruak industrialdetik gora daude, errekaren bi aldeak hartzen dituzte, baina bereziki ezkerraldera zabaltzen da. Eremuaren gainerakoa Nekazaritzako eta Basogintzako PTSen arabera Trantsizioko Landa Paisaiaren Nekazaritzako eta Abeltzaintzako kategorian dago, Balio Estrategiko Handiko azpikategoriko lurrei eta belardiz eta hostozabalen unadez estalirik landazabal-eremuei dagokiena baino ekoizpeneko gaitasun baxuagoei dagozkien kategorian.

G) Kultur ondarea

Bailara honetan azpimarratzekoa da Torre haitzuloa, Gipuzkoako II Arkeologia Kartan eta Gipuzkoako Gida Historiko-Monumentalean agertzen dena. Madeleine aroaren amaierako eta Eneolitoko-Brontze aroaren arteko aztarnategia da, eta ehiza-leku gisa erabili zuten hainbat arotan. Orain 12.000 urte grabatutako zanga hezur bat aurkitu zuten han, eta garai hartako animaliak ageri dira. Hezur grabatu hori eta Ekaingo hareharrizko xafla dira Europako paleolitikoko artelan nagusiak. Hainbat animalia-aren hezur arrastoak ere aurkitu dituzte Torre haitzuloan, atzeko amildegian. Haitzuloaren inguruan Torres eta Zulotibar baserriak daude, eta horiek ere Gipuzkoako Gida Historiko-Monumentalean daude.



Torre haitzuloa EAEko Monumentu izenda dezaten proposatu dute; beraz, kultur ondasun inbentariatua da. Hala izendatzen badute, EAEko Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen, uztailaren 3koaren, 12. artikulua adierazi bezala, ondarea behar bezala babesteko eta horri balioa emateko, ondasuna eta horren ingurua mugatu beharko dira. Lege honen ondorioetarako, ondasun kalifikatuaren zati izango da inguru mugatua, eta inguru horretan egin ahal izango diren edo egin beharko diren jarduerak, eta debekatuta daudenak zehaztu beharko dira.

H) Zarata

Oiertzungo Ingurumen-Zarataren Ebaluaketa eta Kudeaketako Planaren barruan GI-2132 errepidea zarata-foku garrantzitsu gisa identifikatzen da, kalkulatu da errepide horretako hotsaren potentzia 80 dezibeliotik gorakoa dela. Azterketan ez da aztertu zarata-fokuak Sarobe errekaaren ibarrean duen eragina, ezta Zerradiko industrialdean duena ere. Halere, oso litekeena da haranaren beraren eraketak berak, kurbatua lehenengo tartean, eta lehen lerroan etxebizitzak egoteak era esanguratsuan murriztea errepide horretako hotsaren maila, eta industrialdetik haratago esan daiteke haranaren gainerakoan hots horrek ez duela inolako eraginik.

Bestalde, industrialdea bera ere, enpresek garatzen dituzten jarduerak direla-eta, ingurumen-hotsaren sortzaile garrantzitsua da, bereziki hurbileneko etxebizitzetara eragiten diena.

I) Arriskuak

Uholde-arriskua

Sarobe erreka uholde-arriskua du bi aldeetan 230 metroko ibai-tartean GI-2132 errepidearekin bat egiten duen gunetik gora. 100etik 500 urtera bitarteko birgertatze-aldia duen uholde-orbana da hedadurarik handienekoa, eta partzialki bada ere, Zerradiko industrialdeari ere eragiten dio.

Baso-suteen arriskua

Sarobe errekaaren iparraldean nagusi dira belardiak eta atlantiar erako laboreak, tarteko arboladi batzuk daudelarik, eta, ondorioz, sute-arriskua txikia da. Hegoaldera eta Zerradiko industrialdearen atzean, baso-gunea da, sute-arrisku ertain-altua duena.

Arrisku teknologikoak

Merkantzia Arriskutsuen Garraioari dagokionez, esan behar da eremua A-8 autopistaren eta N-1 errepidearen alde bakoitzeko 600 metroko bandek definitzen duten partehartzeko gunetik kanpo geratzen dela.

Kutsatuak egon daitezken lurzoruak

Sarobe ibarrean inbentariatu diren lurzoruak, Zerradi industrialdeko enpresen kokalekuetakoak dira.

LURSAILAK

KODEA	IZENA	MOTA	LURZORUAREN KALIFIKAZIOA	EGUNGO ERABILERA	AZALERA (m ²)
20063-00118	Marquina Geka S.A.	Industrialia	Hiri-lurzorua	Industrialde eta Merkataritza guneak	5993
20063-00119	Carpintería Etxebeste-Bonak	Industrialia	Urbanizagarria	Industrialde eta Merkataritza guneak	697
20063-00120	Danape S.A.	Industrialia	Urbanizagarria	Industrialde eta Merkataritza guneak	630
20063-00121	Construcciones mecánicas Urgían S.A.	Industrialia	Urbanizagarria	Industrialde eta Merkataritza guneak	642
20063-00122	Transmar S.A.	Industrialia	Urbanizagarria	Industrialde eta Merkataritza guneak	808
20063-00123	Irimar S.L.	Industrialia	Urbanizagarria	Industrialde eta Merkataritza guneak	1103

ZABORTEGIAK

KODEA	IZENA	MOTA	EGOERA	ERAGINA	AZALERA (m ²)
20063-00124	Errotazar kalea zabortegia	Industrialia	Jarduerarik gabe	Ertaina	1655,24

6.2.4 Elizalde

A) Kokapena eta deskribapen orokorra

Eremuak Elizaldeko hirigunea hartzen du bere baitan, bidegorritik eta Oiertzungun ibaitik, hegoaldera, Urkabe mendiko basoraino. Nagusiki hirigunea da, udalerrian natur balio handiko bi unitateren artean garatu dena, batetik, Oiertzungun ibaia, zeinetan ibai-ekosistema nagusi den inguru lau batean eta, bestetik, Urkabe mendia, non basoa den nagusi eta malda pikoak dituena. Landazabaleko paisaia, belardiekin eta basoekin, nagusi da hirigunean, komunikazioko bi bide garrantzitsuk zeharkatzen dutenak, batetik, GI-2134 errepidea, hirigunea iparraldetik inguratzen duena eta, bestea, GI-4632 errepidea, Ugaldetxotik igotzen dena.

B) Egungo landaretza eta interes komunitarioko habitata

Hirigunetik kanpo, nola iparraldera, Urkabe mendia, hala hegoaldera, Oiartzun ibaia, nagusi dira belardiak eta atlantiar erako laboreak, tarteka hostozabalen unadak eta hesiak agertzen direlarik. Bi zuhaitz-masa nagusi lokalizatzen dira, horietako bat Oiartzun ibaiaren eta Auztegi errekaen artean, ondo kontserbatzen den haritzia delako nabarmentzen dena, eta, bestea, Urkabe mendiaren maldan, non landaketak eta gaztainondoak nagusi diren.

Belardi gehienak interes komuneko habitat gisa hartuak daude, *garaiera txikiko belardi txarrak (Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinalis)* deritzenak dira, 6510 kodea. Halaber, antzeman dira *Txilardi lehor europarra* espeziearen bi orban, 4030 kodea. Oiartzun ibaiaren bi aldeetan nagusi da kantauriko haltzadia, interes nagusiko 91E0* habitata- *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior-en baso alubialak (Alno-Padion, Alnion incanae, Salicion albae)* -.

C) Natur balioa eta paisaiarena

Natur balioaren inguruan azpimarratzekoak dira Oiartzun ibaiaren ingurunea, baso-eremua eta Urkabeko landazabala.

Oiartzun ibaiaren inguruan biltzen dira baliorik handieneko guneak, hostozabalen arboladiak eta Auztegi errekaen eta Oiartzun ibaiaren beraren ekosistemek osatzen dutena, Oiartzungo Udalak egin zuen udalerriko ingurune fisikoaren arabera balio bikainekotzat edo oso handikotzat hartuak. Natur habitaten aniztasun hori, Oiartzungo herriaren hirigunerik garrantzitsuenetik horren hurbil, animalia espezie askorentzat babestoki garrantzitsua da eta, gainera, natur balio handiko gunea osatzen du, inguruko natur guneekiko lotura ekologikoa bideratzeko elementu gisa.

Hain justu ere eta espezie aipagarriari gagozkielarik, Oiartzun ibaia nabarmentzen da kolaka (*Alosa alosa*) espeziearentzat Interes Berezikoko Gunea delako, Ugaldetxoko eremuari dagokion atalean azpimarratu den bezalaxe.

Urkabe, batez ere faunagatik nabarmentzen da, bai landazabalarekin harremana duten espeziengatik bai hostozabalen basoekin dutenengatik. Landazabala osatzen duten belardien eta basoen inguruan Lepitzuli euroasiatikoa, Okil txikia eta Eskulapioren sugea bezalako espezie bitxiak daude. Horretaz gainera, hesiek eta zuhaixkek habitat ezin hobea osatzen dute suge berde-horiarentzat. Hostozabalen baso autoktonoek are eta aberatsago bilakatzen dute gunea, ornodunen espezie ugariri babesa ematen dietelarik.

D) Ibai-ibilguak eta lur azpiko urak

Eusko Jaurlaritzak egin zuen Gainazaleko Ur Masen Karakterizazio-azterketaren arabera, Oiartzun ibaia eremu honetan nagusiki landa-ingurunean barrena igarotzen da, baso-estaldura garrantzitsuak dituzten ibarretan, nahiz eta ibai-tarterik handiengan ez duten loturarik inguruko basoekin, bereziki tartean nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak daudelako. Azterketaren arabera ibai-tarte honen egoera ekologikoa moderatua da, ibarreko landaretza kalitate eskasekotzat hartzen da eta ezaugarri biologikoen arabera ura kalitate onekoa da.

Lur azpiko urei buruz esan behar da akuiferoen kutsatzeko hauskortasun-maila baxua eta oso baxua dela.

E) Lotura ekologikoa

Urkabe mendiak, Arkale haitzekin eta Trapada (Auztegi) errekarrekin batera, landagune zabala osatzen du, hostozabalen basoak eta LIC Jaizkibel eta Aiako Harria Natur Parkearen artean era estrategikoan kokatuak dauden landazabaleko guneak dituen. Horregatik dago eremu hau, Oiartzungo beste landa-eremu batzuekin batera, bi gune natural lotzen dituen korridore ekologikoan, "EHAEko korridore ekologikoen azterketa" lanean adierazten den bezala. Hain justu ere korridorearen indargetze gunean dago kokatua, eta jarduera antropikoetatik ondorioztatzen diren "ertz efektuak" murriztea du helburu nagusizat. Eremu hauetarako egin zen azterketan definitzen diren kudeaketa-helburuak inpaktuen prebentzioa, kontserbazioa eta, bere kasuan, landaretza naturaleko elementuak birlandatzea eta berreskuratzea da, eta nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako eta ehiza jardueren ustiapen jasangarria berreskuratzea.

Auztegi erreka eta Oiartzun ibaia interes handiko ibai-ibilguak dira korridore ekologiko gisa duten balioagatik, espezie ugariaren bertaratzea eta mugimendua ahalbidetzen dutelako, bai Oiartzungo haran aldera bai Urkabe aldeko natur gunera. Elizaldeko hostozabalen basoak, bi ibai-ibilguen artean kokatua, espezie askori babesa eskaintzen dien aniztasun handiko ingurunea osatzen du, habitat-multzo honen natur eta ekologi balioa areagotuz.

F) Balio agrologikoa

Lurzoruaren zatirik handiena nekazaritzako eta Basogintzako PTSen arabera, Balio Estrategiko Handiko Nekazaritzako Abeltzaintzako eta Landazabaleko gune gisa hartua dago, beraz, balio agrologiko handiko lurzoruak dira.

G) Kultur ondarea

Jarduera-tartearen barruan Santiago Bidearen bide-zati bat dago, Kultur Ondasuntzat hartua, Multzo Monumentalaren kategoria duena, urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretaren arabera (EHAA, 0/02/11). Kalifikazio horrek bere baitan hartzen du Bideak igarotzen duen bide-trazatua (kaleak, bideak), baita zenbait eraikuntza ere. Elizalden, Learren barrena egiten du behera hirigunea Iturriotz aldera zeharkatuz (Makutsoko aldapan barrena).

H) Zarata

GI-2134 errepidea (Elizaldeko saihesbidea) da eremuko ingurune-zaraten fokoa nagusia, Oiertzungo Ingurune-Hotsaren Ebaluaketako eta Kudeaketako Planaren arabera, 80 dezibeliotik gorako hots-potentzia baitago. Errepidetik 4 metrora dauden etxebizitzetarako aurreikusitako eragin-maila 71 dezibelioko hots-maila dela (maila hori ateratzeko distantzia bakarrik izan da aringarri eta kontuan hartu da garairik okerrenea) kalkulatu da, mota honetako eremu akustikoetarako indarrean dagoen legediak dioena gainditzen duen hots-maila hain zuzen ere. Maila horiek eremu-mota honetarako 1367/2007 Errege-Dekretuak finkatzen dituen kalitate akustikoaren helburuak gainditu egiten dituzte, eta jada gaur egungo egoeran ere islatuta daude eragin akustikoak.

Beraz, zarataren eraginak errepide honetan zehar lokalizatzen dira. Arearen gainerakoan, zarata kaletik eta hiriguneko ohiko jardueratik dator, eta oro har, gune lasaitzat har daiteke.

I) Arriskuak

Uholde-arriskua

Jarduera-eremutik hurbileneko uholde-arrisku eremuak Auztegi errekaaren eta Oiertzun ibaiaren bi aldeak dira, eta biak ere urrun samar gelditzen dira.

Baso-suteen arriskua

Eremuan nagusi dira belardiak eta atlantiar isuriko laboreak, tartean eraikuntza batzuk daude, beraz, esan daiteke sute-arriskua txikia dela edo nulua zenbait gunetan. Azpimarratzekoak dira Auztegi errekatik hurbil eta Urkabe mendiaren maldan dauden hostozabalen arboladi batzuk, sute arrisku handikotzat eta ertainekotzat har daitezkeenak, hurrenez hurren.

Arrisku teknologikoak

Merkantzia Arriskutsuen Garraioaren inguruan esan behar da eremua A-8 autopistaren eta N-1 errepidearen bi aldeetan definituta dauden 600 metroko jarduera-bandetatik kanpo geratzen dela.

Kutsatuak egon daitezken lurzoruak

Eremuan kutsatuak egon daitezken lurzoruen zenbait kokaleku inbentariatuak daude:

LURSAILAK

KODEA	IZENA	MOTA	LURZORUAREN KALIFIKAZIOA	EGUNGO ERABILERA	AZALERA (m ²)
20063-00136	Francisco Dorronsoro	Industrialia	Urbanizaezina	Industrialde eta Merkataritza guneak	1329
20063-00135	Industrias Castelruiz-Plástic. inyectado	Industrialia	Urbanizaezina	Industrialde eta Merkataritza guneak	999
20063-00139	Apatxoko	Industrialia	Urbanizaezina	Industrialde eta Merkataritza guneak	1780
20063-00142	Oiartzungo Udala	Erabilera Eraldatua	Hiri-lurra	Hiri-egoitza inguruneak (lorategirik gabe)	216
20063-00146	Ind. Iresma	Industrialia	Urbanizaezina	Industrialde eta Merkataritza guneak	1812

6.2.5 Arragua

A) Kokapena eta deskribapen orokorra

Arragua eremua Oiartzungo udalerraren iparraldean kokatua dago, Errenteriarekin muga egiten du, esan daiteke hirigune jarraitua dela. Komunikazioko azpiegiturek, errepideak nahiz trenbideak, oso baldintzatuta daukaten eremua da (N-1, A-8, RENFE eta Euskotren), zarata-foku eta arrisku teknologikoen foko garrantzitsuak direnak. Horretaz gainera, eremua Lintzirin industrialdetik oso hurbil dago. Hirigunean gune degradatuak eta orubeak (Uretxe) antzeman dira, eta A-8arekin eta Euskotrenen trenbidearekin zatitua dago. Natur elementuei dagokienez, A-8aren ekialdean eta Larzabalzarra baserriaren inguruan hostozabalen zuhaitziak eta zelaiak dituen landa paisaia daude, Auztegiko errekaen haltzadia azpimarratuz. Hiriztatuagoa dagoen inguruan bi zuhaitzi eta Lintzirin erreka dago, bi aldeak dezente asaldatuak dituen, eta gainera lurrez estalia dago, nola auzotik gora, hala auzotik behera, baina ibai-tarte horretan oraindik ere badu landaretza pixka bat.

B) Egungo landaretza eta interes komunitarioko habitata

Eremuaren zatirik handiena, A-8aren mendebaldean, urbanizatua dago, gainera antzeman dira landaretzarik gabeko orube batzuk (Uretxe eta Lintziringo zabalgunea, Lintzirin ibaiaren ondoan). Landaretza interesgarriaren inguruan, azpimarratzekoak dira hostozabalen arboladi batzuk, horietako bi arlorik urbanizatuenetik hurbil (Uretxeko orubearen ondoan), eta gainerakoak landazabalean barrena, autopistaren bi aldeetan. Lintzirin ibaiaren ibarrean ere kontserbatzen da landaretza pixka bat eta eremuaren beste guneetan belardiak eta atlantiar isurialdeko laboreak dira nagusi.

Habitat interesgarriei dagokienez, Auztegiko errekaen ertzean (eremuaren hegoaldeko muturrean) *Alpus glutinosa* (91E0*) Baso alubialak interes komunitario lehentasunezko habitata kokatzen da, eta baita belardien eremu handiak komunitariokotzat hartuak 6510 kodearekin, *garaiera txikiko belardi txarrak* (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) –autopistaren ekialdean kokatuak, Larzabalzarra baserriaren inguruan.

C) Natur balioa eta paisaiarena

Inguru fisikoaren azterketak gune honetan hostozabalen arboladi-orbanak nabarmentzen ditu, autopistaren alde bietan, eta baita Lintzirin errekaen ibarrean eta eraikitako azaleretan eta landazabalean, natur balio handiko gisara kalifikatuak daudenak. Hain zuzen ere Lintzirin errekaen ezker aldeak berreskuraketarako gaitasun handia dauka; izan ere, landaretza egoera onean kontserbatzeaz gainera, morfologia apenas dagoen asaldua, eskuinaldekoa ez bezala, bidearekin muga egiten duen zutikako horma batez eratua.

Faunarentzat duen balioaren barruan, esan behar da hostozabalen unadak babestoki garrantzitsuak direla espezie zenbaitentzat. Kasu honetan, landazabalean daudenak dira balio handiena duten arboladiak, hobeto kontserbatuta daudelako eta inguruko habitatekin lotura hobea eskaintzen dutelako.

Balio paisajistikoaren inguruan A-8aren ekialdeko eremua eta Larzabalzahar baserriaren inguruko belardi eta zuhaiztiak besteen gaintetik jartzeko modukoak dira, landa-paisaia bere osotasunean gordetzen baitu (belardia, baserria) natur balio bikain gisa kalifikatua.

D) Ibai-ibilguak eta lur azpiko urak

Auztegi erreka eremuaren ekialdetik igarotzen da, ondo kontserbatutako inguru natural batean, interes handiko ibai-ertzeko landaretzarekin eta kalitate onekoa urarekin.

Lintzirin erreka Arragua auzoa iparraldetik zeharkatzen du, metro batzuk aurrerago Oiartzun ibaian botatzen ditu urak, jada Errenterian. Arragua auzotik igarotzean, eskuinaldea pareta da, bidearekin muga egiten duena eta, ezker aldeak, bien bitartean eta asaldatua egon arren, morfologia naturalagoari eusten dio, ibarreko landaretza eta guzti. Uren kalitateari buruz, ez dago aipaturiko iturrien daturik, baina erasana egon daiteke metro batzuk gorago industrialdea kokatzen delako.

Lur azpiko urei buruz esan behar da akuiferoak kutsatzeko hauskortasun-maila baxuaren eta oso baxuaren artean dagoela.

E) Lotura ekologikoa

A-8 autobidea eragozpen handi bat suposatzen du eremuko ingurumen lotura oztopatzen duelako eta zati honetan ez dagoelako faunarentzako pasorik. Autobidearen ekialdeko gunea Jaizkibel-Aiako Harriko korridore ekologikoaren moteltze-arearekin muga egiten du eta Urkabe-Trapada bezelako eremuetatik gertu dagoenez, espezieak gune horietara heltzeko erraztasuna ematen du lotura ekologiko maila on baten bitartez.

A-8 autobidearen mendebala berriz oso isolatua dago, azpiegituraz inguraturik (A-8, N-1, RENFE, Euskotren) eta industrigunetik gertu. Lintzirin erreka kasuan, Oiartzun ibaiaren ibarreko ekosistemekin edo erreka bereko beste ibai-tarte batzuekin duen lotura-gaitasuna oso murriztua dago, izan ere, Arragua auzotik gorako uretan nahiz behekoetan lurrez estalia baitago metro batzuetan zehar. Hostozabalen zuhaitzien hurbiltasunak eta belardi-guneak Larzabalzarra baserriaren inguruko landazabal-gunera korridore bat osa lezakete.

F) Balio agrologikoa

Nekazaritzako eta Basogintzako PTSetan sartuak dauden lurzoruen artean, eremuko lur ez-urbanizagarria hartzen duena, badira bi partzela, Larzabalzabar baserriaren ondoan bat eta Bidegurutzeta baserriaren aurreko aldean bestea, balio agrologiko handikotzat hartua.

G) Kultur ondarea

Ez da aurkitzen azpimarratzeko elementurik.

H) Zarata

Eremu honen zati handi batek A-8 autopistaren Zortasun-gune Akustikoaren eragina jasotzen du, eta baita N-1 eta GI-2132 errepideen eta Irun-Tolosa trenbidearena ere, dagozkien administrazioek egindako azpiegituretako Zarataren Mapa Estrategikoen arabera.

Arragua auzoari dagokionez, Oiartzungo Ingurune-Zarataren Ebaluaketa eta Kudeaketako Planak (2005 maiatza) zenbait hots-foku antzeman ditu, N-1, A-8 eta GI-2132 errepideak eta RENFE eta EUSKOTREN trenbideak. Ondorengo taulan indar akustikoen datuak azaltzen dira, baita gertuen dauden etxebizitzetan eragin-mailak kalkulatu ere:

ERREPIDEA	Indar akustikoa (jaulkipen-maila) Lw gaua/eguna (dBA)	Fokutik etxebizitzetarako distantzia (m)	Kalkulatzeko den eragin-maila*
N-1	81/91	15	64
A-8	86/95	17	69
GI-2132	77/90	10	75
TRENBIDEA	Jaulkipena 10 m gaua/eguna (dBA)	Fokutik etxebizitzetarako distantzia (m)	Kalkulatzeko den eragin-maila*
RENFE	61/71	23	67
EUSKOTREN (geltokitik urrun)	51/61	10	51
EUSKOTREN (geltokitik hurbil)	45/55	10	45

* distantzia bakarrik aringarritzat hartuta eta aldirik txarra kontuan izanda kalkulatzeko den maila

Arragua auzoko gaur egungo zarata mailari dagokionez, azterketa honek maila nahikoa altuak jasotzen ditu eremu batzuetan eta kalitate akustikoko helburuak gainditzen dituzte eremu mota honentzako. Halere, kontuan hartu behar da, azterketa honen ondoren A-8 autopistan zabaltze lanak burutu ziren, baita pantaila akustikoen instalazioa, beraz gaur egungo zarata maila nahikoa desberdina izan daiteke, egoera akustiko onuragarriago izan daitekena ere.

Bestalde, esan beharra dago eremu honen zati handi bat A-8 autopistako, N-1 eta GI-2132 errepidetako eta Irun-Tolosa trenbideko Zortasun Akustikoko Guneek erasanda dagoela, aipaturiko azpiegitura horien Zarataren Mapa Estrategikoetan zehazten den bezala.

H) Arriskuak

Uholde-arriskua

Lintzirin errekek Arraguatik igarotzean uholde-gune zabala sortzen du 10 urteko, 10-100 bitarteko eta 100-500 urte bitarteko birgertatze-aldietarako etorbideetan, EHAEko Ibaien eta Erreken PTSen eguneratzean agertzen diren datuen arabera. Azken uholde-arrisku lerro horrek errekatik egungo etxebizitza bitarteko azalera handia hartzen du bere baitan.

Baso-suteen arriskua

Arrisku txikiko edo nuluko eremuak nagusitzen dira, gune urbanizatuei eta belardieki dagozkienak. Arboladiak dira suteen arriskurik handiena duten eremuak, gehien bat Larzabalzarra baserriaren inguruan.

Arrisku teknologikoak

Aztertu den eremua jarduera-guneak eraginda dago (600 metroko bandak istripuren bat gertatu eta baldintza txarretan parte hartu behar izanez gero azpiegituren bi aldeetan), bai A-8 autopistan (arrisku HANDIKOTZAT katalogatua) bai N-1 errepidean (arrisku ERTAINEKOA) eta bai RENFERen trenbidean (arrisku ERTAINEKOA).

Kutsatuak egon daitezken lurzoruak

Eremu honetan, Lintzirin industrialdeko enpresak okupatutako kokapenez gain, trenbidearen bestalde gelditzen direnak, kutsatuak egon daitezken beste lurzoru inbentariatuak aurkitzen dira, A-8aren ekialdean kokatutakoak kasu honetan.

ZABORTEGIAK

KODEA	IZENA	MOTA	EGOERA	ERAGINA	AZALERA (m ²)
20063-00128	Arizabalo zabortegia	Geldoak	Jardunean	Baxua	65512.18
20063-00129	Lorrezabaleta zabortegia	Geldoak	Eraldatua	Baxua	4175.23
20063-00164	Mendinzar zabortegia	Industrial	Jardunean	Ertaina	14781.33

7. PROPOSATU DIREN JARDUEREN ONDORIO ESANGURATSUEN DESKRIBAPENA

Atal honetan eta erreferentziatzat harturik aurreko atalean deskribatutakoak, AASSen berrikuspen partzialean proposatzen diren jardueren ingurumen-eraginak aztertzen dira.

Eraginen balorazioa ondorengo alderdien ingurukoak dira:

- A) Natur baliabideak
 - Habitat interesgarriak eta landaretza, oro har.
 - Espezie katalogatuak eta fauna, oro har.
- B) Lotura ekologikoa.
- C) Bitarteko estetiko-kulturalak edo paisaiari dagozkionak.
- D) Bitarteko berriztagarriak eta ez-berriztagarriak
 - Lurzorua (kontsumoa)
 - Lur azpiko urak eta gainazalekoak
- E) Hondakinak eta kutsaduraren areagotzea
- F) Giza osasuna, hirigunearen ingurumenaren kalitatea eta jabaltasuna.
- G) Nekazaritzako ekoizpena
- H) Kultur ondarea
- I) Arrisku ondorioztatuak

7.1 USATEGIETAKO GAINA

Lanbarrengainako arean (LAN-3) proposatzen den jardueraren ondorioz eremu honetan sortzen diren ingurumen-inpaktuak deskribatzen dira.

A) Natur balia bideak

- *Habitat interesgarriak eta landaretza, oro har.*

Eremuaren zatirik handienak landaredik ez badu ere, planteatutako jarduerak interes komunitarioko bi eremuri eragingo liekete (*Europako txilardi lehorrei eta sega-belardi pobre baxuei*), bai eta natur balio handiko hostozabal baso bati ere. Azken habitat hau ondo ordezkaturik dago udalerrian, gainera, urbanizazioak eragiten duen eremua txikia da.

- *Espezie katalogatuak eta fauna, oro har.*

Faunari dagokionez, hostozabalen basoak dira eremu honetako espezien babestoki nagusiak, eta jarduerak apenas eragiten dien.

B) Lotura ekologikoa.

Jarduerak eragiten duen landaretza-azalera eta habitat interesgarria oso esanguratsua ez bada ere (eremua bere osotasunean hartuta), garrantzia areagotu egiten da Jaizkibel eta Aiako Harriko natur guneak lotzen dituen korridore ekologikoaren kokapenagatik. Industrialdeak areagotzeak era negatiboan erasaten dio eremu horretako loturari, aipaturiko korridorea erabiltzen duten espezien larre-eta babes-eremuak murriztuz. Eragin hau 8.2.1. atalean jasotzen diren neurrien aplikazioaren bidez orekatuak oda, eta neurri hauek eremuaren garapenean baldintzatzaile bezala jasoko dira.

C) Bitarteko estetiko-kulturalak edo paisaiari dagozkionak.

Jarduketa dagoeneko nolabaiteko paisai-inpaktua sortzen duten azpiegitura eta eraikuntzen presentzia dagoen area batean kokatzen bada ere, eremuan landatar eta landazabaleko paisaia nabarmentzen da. Industri-gune berriaren barne antolaketa, zuhaitzi eta belardi bezalako paisai elementuei era sentikorrean eragiten dienez, eremuko paisaian ondorio negatiboak izango ditu.

Bestalde, industrialde berria gaineko plataforma batean kokatzeak arearen ikuspen handia dakar, paisai-inpaktu bat sortuz, egun daudenei gehitzen dena (A-8,

Lanbarren poligonoa,...) bailararen barrutik. Modu berean, inpaktu honen tamaina neurrien baitakoa izango da.

Eragin hauek gutxitzeko helburuarekin landarediazko pantailak egingo dira eta ezpondak landatuko dira (ikus neurri zuzentzaileen 8.2.1 atala) eraikinak inguruetatik ez daitezen ikusi, eremu barneko antolaketak proposatzen duen bezala. Bere eraginkortasuna pantaila horien garapen eta finkapenaren arabera egongo da, bereziki ezaugarri txarrenak dituzten lursailetan proiektutarikoak (harrizko ezpondak).

D) Bitarteko berriztagarriak eta ez-berriztagarriak

- Lurzorua (kontsumoa)

Jarduerak 83.300 m² lur kontsumoa dakar, egun ez-urbanizagarria dena. Azalera horretatik 23.520 m² berdeguneetarako gordetzen da, zonalde batzuetan lur horiek birlandaketa zaileko ezpondei badagozkie ere.

- Lur azpiko urak eta gainazalekoak

Lur azpiko uraren kalitatearen gaineko eraginari dagokionez, berriz, akuiferoen kutsadurarekiko sentiberatasuna txikia da eremu honetan. Eremu honetan ez dago lur gaineko ur-ibilgu iraunkorrik; behe-rago Arañaburuko erreka dago, eta aldatuta dago.

E) Hondakinak eta kutsaduraren areagotzea

Lanek irauten duten bitartean aurreikusten da hondakin-kopuruak eta kutsadura atmosferikoak gora egingo dutela, lur-mugimenduengatik eta kamioien joan-etorriengatik.

Ustiapen-fasean gora egin lezake autoen joan-etorriak, gunean industrialde berriak finka litezkeelako.

F) Giza osasuna, hirigunearen ingurumenaren kalitatea eta jabaltasuna.

Jardun-eremutik hurbil hainbat baserri daude, eta zarataren eta lur-mugitzearen ondoriozko kalteak izan ditzakete lanek iraun bitartean; gorago daudenez eta beste sarrera batzuk dituztenez, baina, kalteak mugatuak izango dira. Ustiapen fasean eragozpenak izan ditzakete, industrialdea gertu edukiko baitute. Halere, zarataren eragina ez da asko areagotuko, ez da oso esanguratsua izango, eremuko zarata-foku nagusiak, A-8 autopistak, ez baitu aldaketarik jasango jarduera honegatik.

Lanak egin bitartean eta ustiapen fasean industrialdeko barneko sarrera eta bideak erabiliko dira; horrek esan nahi du ibilgailu gehiago ibiliko direla-eta, litekeena dela Lanbarrengo enpresei arazoak sortzea.

G) Nekazaritzako ekoizpena

Ez da kalterik aurreikusten balio handiko nekazal lurretan.

H) Kultur ondarea

Ez da inbentariatutako edo katalogatutako kultur ondasunik kaltetuko. Ahozko informazioen arabera, eremu honetan artzaintzarekin lotutako elementuren bat egon daitekeela jakin dugu, inguruan garrantzitsua izan daitekeena; elementu horren gaineko eragina horren leku zehatza aldatzearen edo esparruko beste leku batera eramatearen mende egongo da.

I) Arrisku ondorioztatuak

Arrisku teknologikoa

Eremuak arrisku teknologiko handia du, eragindako banden artean A-8, N-1 eta RENFE baitaude.

Zarata

A-8 autopistaren afekzio eremuaren barne kokatzen da proposamena.

Kutsatuak egon daitezken lurzoruak

Kutsatuak egon daitezken lurzoru inbentariatuak ez dira kaltetzen.

“USATEGIETAKO GAINA” EREMUAREN ERAGINEN MATRIZEA

ERAGINAK		TAMAINA		ZEINUA		EKINTZA MOTA		SINERGIA			EPEA			IRAUPENA		ITZULGAR RITASUNA		BERRESKU RAGARRITASUNA		AGERRALDIA		IRAUNKORTASUNA		ERAGINAREN IZAERA *				
ALDAKORRA	ERAGINA	HANDIA	MINIMOA	POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	LABURRA	ERTAINA	LUZEA	BEHIN-BEHINEKOA	BEHIN BETIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	ALDIZKAKOA	IRREGULARRA	JARRAITUA	ETENDUNA	BATERAGARRIA	MODERATUA	HANDIA	KRITIKOA	
Natur baliabideak	Habitat interesgarri eta landareen gaineko eragina	X		X	X					X	X				X		X	X					X			X		
	Espezie katalogatu eta, oro har, faunaren gaineko eragina		X	X	X			X			X				X	X		X					X			X		
Konektibitate ekologikoa	Konektibitate ekologikoaren galera	X		X		X				X		X			X		X	X					X			X		
Estetika, kultur eta paisaia baliabideak	Paisaiaren gaineko eragina	X		X	X			X			X				X		X	X					X			X		
Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarriak	Lurzoru kontsumoa	X		X	X					X	X				X		X		X				X			X		
	Lur gaineko uraren kalitatea		X	X		X						X			X	X		X						X	X			
	Lur azpiko uraren kalitatea		X	X		X						X			X		X		X					X	X			
Hondakinak eta kutsadura	Hondakin kopurua eta kutsadura handitzea		X	X	X				X			X			X	X		X					X			X		
Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea	Hiriko ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina		X	X		X			X			X			X	X		X					X			X		
Nekazaritza produktibitatea	Nekazaritza balio handiko lurzorua galtzea																											
Kultur ondarea	Kultur ondarearen gaineko eragina																											
Proposamenaren ondoriozko arriskuak	Arriskuak sortzea	X		X		X	X					X		X		X		X			X		X		X		X	

* Eraginaren indarra txosten honetako babeste, zuzentze eta konpentsatze neurrien arabera txikituko da.

7.2 OIARTZUN IBAIAREN HARANA UGALDETXO AUZOTIK IGAROTZEAN

Ugaldetxoko eremuan (UGA-1-A) proposatzen den jardueraren ondorioz sortzen diren inpaktuak deskribatzen dira. Era berean, UGA-4 eta UGA-2 areen desafekzioa ere baloratzen da.

UGA-15 eremuan aurreikusitakoaren inguruan, ez dira eragin aipagarriak aurreikusten. Oiartzun ibaiaren ertza nauraren elementu zentikorrena izanik, badaezpadako neurri gisa 8.2.2. atalean jasotakoak aplikatu beharko dira.

A) Natur baliabideak

- *Habitat interesgarriak eta landaretza, oro har.*

Eremu honetan Oiartzun ibaiaren gainean zubi berri bat eraikitzeak ibarreko landaretzan eragina izango duela aurreikusten da, gune horretan kantauriko haltzadiak osatzen duena, interes komunitario lehentasunezko habitata da (91E0*kodea). Orobat, errepidearen trazatu berria eta hegoaldean aurreikusita dauden eraikin berriak, neurri handi batean, egun interes komunitarioko habitat gisa hartuak dauden belardietan kokatzen dira. Nahiz eta, azkena, udalerrian ondo ordezkaturik dagoen habitata izan, jardueran ahalik eta gehien minimizatu behar da erasan dezakeen azalera. Espezie autoktonoko zuhaitz handiak ere antzeman dira, ahal den neurrian kontserbatu egin beharko diren elementuak. Gainerako jarduera landaretzarik gabeko lurzoruan garatzen da.

Eremu honetan eragin positiboak ere sorrarazten dira batez ere UGA-4 eta UGA-2 eremuetako egoitza garapena eta azpiegiturakoa ez direlako aurreikusten, eta horrek esan nahi du eremu horietan mantendu eta ez direla eragiten interesko habitatak, belardiak eta ibai ertzeko basoak bezelakoak.

Bestalde, UGA-1ean Oiartzungo ibaiaren eskubido ertzaren hobekuntza ambientala aurreikusten da, erabilera publiko bateragarri izan dezakeen hiri-parkea antolatuz, eta horretarako ibai zati hau gaur egun okupatzen duten betelana, zoladura eta bideratzea aldentuz. Lekuaren morfologia eta jatorrizko landaredia errehabilitatzea, jardueran planteatzen den bezala, ibaiertza eta Oiartzun ibai osoarenganako eragin positibotzat jo liteke. Neurri zuzentzaileen atalean jarduera hau aurrera eramateko garaian kontuan izan beharreko irizpideak jasotzen dira.

- *Espezie katalogatuak eta fauna, oro har.*

Jarduerek ez dute eragin nabarmenik izango interes handiko fauna-guneetan, haltzadietan esate baterako (Ugaldetxoko zubitik gora) eta Oiartzun ibaian bertan. Eraikiko den zubi berriak bakarrik izan ditzake eragin negatiboak ibarreko landaretzan eta ibai-aldeetan, beraz, inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin neurri prebentiboak eta zuzentzaileak hartu beharko dira.

Lehen UGA-2 eta UGA-4 guneetan aurreikusten ziren jarduerak eragiten zituen landazabaleko guneak desafektatuta uztean, gaur egungo egoera berean geratuko dira, habitat honi sorturiko eraginak saihestuz, bereziki mugikortasun gutxiena izateagatik ahulenak diren espezienak.

B) Lotura ekologikoa.

Oiertzun ibai gainean beste zubi bat eraikitze ez du lotura ekologikoaren gaitasunean hobekuntzarik suposatzen, eragin negtiboak ekarri dezaketelako. Eskubiko aldean aurreikusitako ibaiertzeko parkea, aldiz, ingurumenaren hobekuntza gisa planteatzen da, jatorrizko morfologia eta landaredia kerreskuratuko dituelako. Jarduera honek ibaiaren lotura ekologikoa erraztu dezake, ibaiaren uretan gora zein behera, eta lotura-gaitasunaren faktore hau kontuan izan beharko da jarduera definitzerakoan.

C) Bitarteko estetiko-kulturalak edo paisaiari dagozkionak.

Eraikuntza berri gehienak eta errepidearen trazatu berria, batetik, jada urbanizatua dagoen area batean daude eta, bestetik, balio paisajistiko gutxikotzat jotzen den gunean kokatzen dira. Aldiz, kontserbatu egin da arboladiaren ondoko ibarra, Oiertzun ibaiarekin berarekin batera paisai balio handikoa dena. Hain justu ere, ibai-terrazan aurreikusiak dauden eraikuntzak, ibaiaren ondoan, dira paisaian inpakturik handiena eragin dezaketenak, antolakuntza egiteko garaian kontuan izan beharko den faktorea. Eremua edo area bi fasetan egiteko aurreikuspena faktore positiboak izan daiteke, horrek "paisaia" berrira era progresiboan egokitzeko aukera ematen baitu.

D) Bitarteko berriztagarriak eta ez-berriztagarriak

- Lurzorua (kontsumoa)

UGA-2 eta UGA-4 areak etenda uzteak lurzoru kontsumoaren murrizte esanguratsua ekarri du. UGA-1-A arearen kasuan, jarduera gehienak lurzoru artifizialduan egitea aurreikusten da, bitarteko horren kontsumoa errepidearen hegoaldera egingo diren jardueretan bakarrik aurreikusten dira. Area osoak 45.463 m² azalera du, eta horietatik 13.406 m² berdeguneetara bideratuko dira, ibaiaren ibarrean.

- Lur azpiko urak eta gainazalekoak

Ur azpiko uraren kalitateari dagokionez, ez da kalterik aurreikusten, akuiferoen kutsadurarekiko sentiberatasuna txikia baita eremu honetan.

Zubi berriaren eraikuntzak erasango dio bereziki Oiartzun ibaiari, eta era berean erasango dute ibarrean egingo diren urbanizazio-garapen berriek. Azken kasu horretan, ertzetik 20 metroko distantzia gordetzeak eragina minimizatu behar duen elementua izan behar du, nola ibarrean, hala uraren kalitatean. Zubi berriari dagokionez, ingurune-afekzioak erasanda gertatzen den ibarreko basoaren azaleraren eta ibilguaren araberakoa izango da, eta hartzen diren prebentzio nahiz zuzentze-neurrien araberakoa.

E) Hondakinak eta kutsaduraren areagotzea

Lanek iraun bitartean kutsadura akustiko eta atmosferikoa handitzea aurreikusten da; izan ere, lurrak mugituko dira eta kamioi ugari ibiliko da. Lanetako hondakin kopurua haztea ere espero da.

Gaur egungo egoeraren aldean biztanleriak gora egingo duenez, aurreikusten da ustiapen-fasean guneko hondakin-kopuruak gora egingo duela eta baita ibilgailu-kopuruak ere. Eragin horiek arintzeko, hondakinak biltzeko eta trafikoa arautzeko neurri egokiak hartu beharko dira.

F) Giza osasuna, hirigunearen ingurumenaren kalitatea eta jabaltasuna.

Lanek iraun bitartean eragina handia izatea espero da, enbarazu egingo baitzaie inguruko biztanleei eta errepidearen erabiltzaileei.

Aurreikusten diren jarduerak aldaketa esanguratsuak ekarriko dituzte gaur egungo bizitegi-gunearen itxuran, gehienak positiboak, esate baterako GI-3631 errepidearen egungo trazatua inguru horretan oinezkoentzako egitea, erabilpen publikoko guneak egitea (plazak) eta aparkalekuak sortzea. Ibarra hirigunean natur balioko elementu gisa integratzea ere elementu positiboa izango da.

Zarata-emisioei dagokienez, GI-3631 errepidearen trazatuaren aldaketak, eremuko hots-fokurik nagusiena, era berean, bide honetako zarata-iturriak aldatzea ere suposatzen du eta hori dela bide egungo trazatuaren iparraldean dauden etxebizitzetan zarataren eraginak segururenera ere behera egingo du. Halere, trazatu berria egun hegoaldean kokatzen diren etxebizitzetatik hurbil igarotzen da, ondorioz, litekeena da gune horietan zarata-maila altuak izatea. Eragin horiek arintzeko neurri egokiak hartu beharko dira, egokiena garapen berriaren diseinu-fasean egitea litzateke.

G) Nekazaritzako ekoizpena

Eraikuntza berriek eta errepidearen trazatu berria zati batean balio agrologiko handikotzat hartzen den lurzoruan aurreikusten dira, gutxi gorabehera 1,7 hektareei erasango dio.

H) Kultur ondarea

Ez da aurreikusten kalterik intereseko elementuetan.

I) Arrisku ondorioztatuak

Uholde-arriskua

UGA-1 jarduera-eremuko etxebizitza-garapen berriaren kokapena, Oiartzun Ibaiaren Azterketa Hidraulikoaren arabera, uholdeak izan daitezkeen gunetik kanpo geratzen da. Halere, ibarraren ondoan biribilguneak, ibai gaineko zubi berriak eta betetzeak kentzeak egungo egoera alda lezakete, eta, ondorioz, dagokion azterketa hidraulikoa egin beharko da.

Kutsatuak egon daitezken lurzoruak

Proposamenak inbentariatua dagoen kutsatua egon daiteken lurzoru batean eragina du, beraz 1/2005 legean ezarritako irizpideak aplikatu beharko dira.

“OIARTZUN IBAIAREN HARANA UGALDETXXO AUZOTIK I GAROTZEAN” EREMUAREN ERAGINEN MATRIZEA

ERAGINAK		TAMAINA		ZEINUA		EKINTZA MOTA		SINERGIA			EPEA			IRAUPENA		ITZULGAR RITASUNA		BERRESKURAGARRITASUNA		AGERRALDIA		IRAUNKORTASUNA		ERAGINAREN IZAERA *				
ALDAKORRA	ERAGINA	HANDIA	MINIMOA	POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	LABURRA	ERTAINA	LUZEA	BEHIN-BEHINEKOA	BEHIN BETIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	ALDIZKAKOA	IRREGULARRA	JARRAITUA	ETENDUNA	BATERAGARRIA	MODERATUA	HANDIA	KRITIKOA	
Natur baliabideak	Habitat interesgarri eta landareen gaineko eragina	X		X	X					X	X				X	X		X					X			X		
	Espezie katalogatu eta, oro har, faunaren gaineko eragina		X			X			X		X				X	X		X					X			X		
Konektibitate ekologikoa	Konektibitate ekologikoaren galera		X	X		X			X		X				X		X	X					X			X		
Estetika, kultur eta paisaia baliabideak	Paisaiaren gaineko eragina		X	X	X				X		X				X		X	X					X			X		
Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarriak	Lurzoru kontsumoa		X	X	X				X		X				X		X		X				X		X			
	Lur gaineko uraren kalitatea		X	X		X			X			X			X	X		X						X		X		
	Lur azpiko uraren kalitatea		X	X		X			X			X			X		X		X					X		X		
Hondakinak eta kutsadura	Hondakin kopurua eta kutsadura handitzea		X	X	X				X			X			X	X		X					X		X			
Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea	Hiriko ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina		X	X																								
Nekazaritza produktibitatea	Nekazaritza balio handiko lurzorua galtzea		X	X	X				X		X				X		X		X				X		X			
Kultur ondarea	Kultur ondarearen gaineko eragina																											
Proposamenaren ondoriozko arriskuak	Arriskuak sortzea	X		X		X	X					X		X		X		X		X			X		X			

* Eraginaren indarra txosten honetako babeste, zuzentze eta konpentsatze neurrien arabera txikituko da.

7.3 SAROBE ERREKAREN IBARRA

UGA-12 eremuan, Zerradiberri industrialdea berrian eta UGA-11n, Zerradi industrialdean, aurreikusten diren jarduerak sortzen dituzten ingurumen-inpaktuak deskribatzen dira. UGA-13 eremuan (sarrerako errotonda) aurreikustiako jardueraren eragina kez dira baloratzen, Zerradiberriko eremu berriari lotuta izanik ere, dagoeneko onarturiko eremua delako (Berrikuspen partzial honetan ez da sartzen) eta bere eragina zegokion Ingurumenarekiko Eraginaren baterako Azterketan aztertua izan zelako.

A) Natur baliabideak

- *Habitat interesgarriak eta landaretza, oro har.*

Zerradiberriko industrialde berria interes komunitarioko belardietan garatzen da oso-osorik (6510 kodea, *garaiera txikiko belardi txarrak*). Udalerrian ondo ordezkaturia dagoen habitata izan arren, eta oro har, kantauri isurialdean, atzeraka arri da, beraz, kasu honetan izan dezakeen eragina esanguratsutzat har daiteke.

Jarduerak Sarobe erreka ibarreko landaretzan ere eragin lezake, tarte batzuetan kantauriko haltzadiak osatua, lehentasunezko interes komunitariokoa (91E0* kodea). Halere, industrialde berri honen diseinuan egin diren azken aldaketek habitatari egingo zaizkion kalteak asko murrizten dizkiote; batetik, trafikorako zubikopurua murriztu egin da (lehen hiru ziren eta orain bi), eta gainera, industrialdearen hasieran kokatu dira (GI-2132 errepidearen ondoan) eta horrela ekidingo da ibilgailuak harana zeharkatzen duen erreka eskualdetik sartzea eta, bestetik, eraikuntzen eta ibarraren arteko tarteak areagotu egin da, horrela landaretza naturalari azalera handiagoa ematen zaiolarik. Helburu berberarekin, erreka ondoan zihoan bidegorria ere kendu da.

Bailarako sarreran kokaturiko zehaztiaren inguruan berriz, GI-2132 errepidearen ondokoa, errotonda eta Zerradiberri eremurako sarrerak eragiten zutena, platanondo aleak (*Platanus hybrida*) eta sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*) dituela baieztatu ahal izan da, sahas eta aritz gazte bakan batzuk aparte, eta ondorioz ez du intereseko landarediarik eragiten.

Gaur egungo Zerradi industrialdean aurreikusten diren jarduerari buruz esan behar da ez diela eragiten habitat interesgarriari, eta inpaktu positiboak ere sortzen ditu eremuaren ekialdean eta ibarraren ondoan ingurumenaren hobekuntzarako berdegune bat mantenduz.

- *Espezie katalogatuak eta fauna, oro har.*

Kasu honetan landazabaleko ekosistemarekin zerikusia duen faunan antzematen dira eraginik handienak, bereziki kaltegarria mugikortasun gutxienekoekin. Gainera, erasandako gunea ferra-saguzar mediterraneoaren larreratze-arloaren barruan dago, eta suge berde-horiaren habitatak ere antzeman dira (hesiak eta zuhaixka guñeak), eta espezie horiek biak katalogatuak dira.

B) Lotura ekologikoa

Sarobe errekaren lotura-gaitasuna uren kalitatearen eta ibarreko landaretzaren kontserbazioaren baitakoa da, ondorioz, elementu horietan sortzen diren inpaktu negatiboek lotura ekologikoaren murriztea ekarriko dute. Kontuan izanik GI-2132 errepidetik beherako uretan erreka lurrez estalia dagoela, bi industrialdeen ekialdean berdeguneak izatea hobekuntza da aurreko AASSetan aurreikusten zen ereduarekiko, errekak haranaren barnealdearekin lotura izan dezan ahalbidetzen baita, erasaten diren ibarreko metroak minimizatuta.

C) Bitarteko estetiko-kulturalak edo paisaiari dagozkionak.

Zerradi industrialdea hemen kokatua egoteak eta haranaren tipologiak berekin dakar egun eragin paisajistikoa izatea, nagusiki haranaren behealdeari eragiten dion elementua da. Zerradiberrin aurreikusten den jarduerak inpaktu horien areagotzea ekarriko du, Sarobe errekaren eskuinaldea betez, zeinaren ezaugarri nagusia egun landazabal paisaia aitortua izatea baita. Halere, inpaktu horiek neurri batean murriztu daitezke industrialde berrian, egungo industrialdean bezalaxe, neurri zuzentzaileak hartuta. Bi industrialdeen ekialdean berdeguneak izateak bide ematen du eraikuntzak partzialki ezkutatuko dituen landare-pantailak eratzeko.

D) Bitarteko berriztagarriak eta ez-berriztagarriak

- *Lurzorua (kontsumoa)*

Eremu honetan aurreikusten den Zerradiberrin industrialde berriak 60.264m² lurzoru ez-urbanizagarri kontsumituko ditu; eremu honetan bakar bakarrik etxebizitza eta baserri isolatu batzuk daude. Azalera horren guztiaren 18.397 m² berdeguneetarako gordetzen dira, ibarrean eta eremuaren ekialdean.

Udalerrian zehar sakabanatuta dauden enpresa batzuk industrialde berri honetan birkokatzeak eta orubeen berreskuratzeak inpaktu positiboa izango luke lurzoruaren kontsumoari dagokionean.

Zerradi industrialdeari dagokionez, azalerak guztira 26.526 m² izango ditu, eremuaren gehiena gaur egungo industrialdeak okupatzen duelarik.

- *Lur azpiko urak eta gainazalekoak*

Lur azpiko uraren kalitateak ez du kalterik izango; izan ere, akuiferoen kutsadurarekiko sentiberatasuna txikia edo oso txikia da eremu honetan.

Aurreikusten diren jarduerak era esanguratsuan erasan liezaiekete ibarrari eta bertako landaretzari nahiz Sarobe erreka-uren kalitateari, lur-mugimenduak direla-eta. Neurri prebentiboak hartzeak, ibilgutik distantzia mantentzeak eta ibarreko landaretzari eusteak murriztu litzakete eragin horiek. Industrialde berria kokatzen diren enpresek eta beroriek garatzen dituzten jarduerak inpaktuak izan ditzakete errekan, beraz, dagozkion neurri egokiak hartu beharko dira.

E) Hondakinak eta kutsaduraren areagotzea

Lanak iraun bitartean, hondakinak sortzea eta kutsadura areagotzea aurreikusten da; izan ere, lur-mugitzeak izango dira, lurzorua egokitzeko, eta kamioi ugari ibiliko da. Ustiapen fasean, eta inguru horretan industria eta bide berriak egongo direnez, eremu jakin batean (Sarobe erreka-aren eskuineko ertza) ibilgailuak ugaritzea aurreikusten da, gaur egun ez baitago bertara iristeko biderik edota halako instalaziorik.

F) Giza osasuna, hirigunearen ingurumenaren kalitatea eta jabaltasuna.

Lanak iraun bitartean, trabak izango dituzte haraneko herritarrek eta GI-2132 errepidearen erabiltzaileek, batez ere jardun-eremutik hurbil dauden baserriek. Ustiapen fasean, nabarmen aldatuko da baserri horien ingurua, horiek lekualdatzen ez badira.

Zaritari dagozkion eraginei buruz, eremuko zarata-foku nagusiak GI-2132 errepidea eta industrialdea bera dira, beraz, azken hau handitzeak haranean zarata-maila areagotzea ekarriko du. Eragin-maila industrialdearen ordenamendua egitean eta ondorengo neurri zuzentzaileak erabakitzean hartzen diren araberakoak izango dira.

G) Nekazaritzako ekoizpena

Jarduerak ez du suposatzen balio agrológico handiko lurzoruen kontsumoa, baina jarduera Trantsizioko Nekazaritzako eta Basozaintzako PTS baten azaleran kokatzen da oso-osorik.

H) Kultur ondarea

Eremuaren barne Torre haitzuloa, eta Torres eta Zuloibar baserriak daude, besteak beste, eta ondare-inguru interesgarria osatzen dute. Zerradiko poligonoaren bukaeratik aurrera daude ezaugarri horiek, Sarobe errekan gora eta horren bi ertzetan.

Torre haitzuloaren ingurua oso aldatuta dago egun, noski, horren jatorrizko inguruaren aldean, eta Zerradi industrialdea ez ezik, baserriak eta nekazaritza erabilerak ere badaude, haitzuloan gizakiak bizi zireneko garaiaren ondorengoak. Eta ondarea babestearen² aldeko gizarte kontzientzia areagotu egin denez – arauetan ere islatzen da hori–, ez da komeni, itxuraz, industriak haitzuloaren hurbileko eremuetaraino eramatea, aldaketan nabarmenik gabe iritsi zaigun aztarnategia kontserbatzeko.

Zerradiberri eremu berrirako proposatzen den diseinuak errespetatu egiten ditu irizpide horiek, aurreko AASSetan egin den proposamenak sorrarazitako inpaktuak txikiagotuz. Urbanizazio osoak eragiten duen eremua txikitu egin da, eraikinak errepide ondoan biltzen dira, Zerradiko eraikuntzek definitzen duen lerrotik are eta urrunago. Ondorioz, orain ondare interesgarriaren ingurutik distantzia handiagoan daude eta aurreikusten da landare-pantailak eratzea jarduera berria, ahal den neurrian, isolatua gera dadin.

I) Arrisku ondorioztatuak

Uholde-arriskua

Sarobe errekaaren behealdeak 100-500 urteko birgertatze-aldia duen uholde-orbana du bi aldeetan. UGA-13 eremuan aurreikusten den jarduerak (dagoeneko onetsia), industrialdera iristeko biribilguneak, nabarmen aldatuko dituzte aipaturiko orbanak, errekaaren sekzioa areagotzea aurreikusten baitu, hain zuzen ere uholde-arriskua ekiditzearren. Halere, Zerradiberriko jarduerak xehetasunezko azterketa beharko du, arrisku hori ekiditeko behar diren neurriak ezarriko dituen.

Kutsatuak egon daitezken lurzoruak

Proposamenak kutsatua egon daitezken lurzoru inbentariatuetan eragina du, beraz 1/2005 legean ezarritako irizpideak aplikatu beharko dira.

² Arkeologia aztarnategiak babesteko gaur egungo irizpideak aztarnategia bera ez ezik, horren bizi ingurua eta paisaia ere babestearen aldekoak dira, aztarnategiaren testuinguruari eusten saiatzeko. Ekaingo eta Praileaizko inguruen kasua ere erreferente dugu azkenaldian Gipuzkoan, aztarnategitik haratago babestu baitira. Ekaingo haitzuloaren kasuan, Sastarrain haraneko 121 hektareako eremu bat babesteko Plan Berezi bat sustatu du Zestoako Udalak, zonabanatzea eginda eta erabilerak araututa. Praileaizko haitzuloari dagokionez, berriz, hainbat babes-eremu ezarri dira, eta mugatu egin dituzte jarduerak, haitzuloko margoen gelatik hasi eta 100 metroko erradio batean kalterik ez eragiteko.

“SAROB EREKAREN IBARRA” EREMUAREN ERAGINEN MATRIZEA

ERAGINAK		TAMAINA		ZEINUA		EKINTZA MOTA		SINERGIA			EPEA			IRAUPENA		ITZULGAR RITASUNA		BERRESKU RAGARRITASUNA		AGERRALDIA		IRAUNKORTASUNA		ERAGINAREN IZAERA *				
ALDAKORRA	ERAGINA	HANDIA	MINIMOA	POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	LABURRA	ERTAINA	LUZEA	BEHIN-BEHINEKOA	BEHIN BETIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	ALDIZKAKOA	IRREGULARRA	JARRAITUA	ETENDUNA	BATERAGARRIA	MODERATUA	HANDIA	KRITIKOA	
Natur baliabideak	Habitat interesgarri eta landareen gaineko eragina	X			X	X				X	X				X		X	X					X			X		
	Espezie katalogatu eta, oro har, faunaren gaineko eragina	X			X	X			X		X				X	X		X					X			X		
Konektibitate ekologikoa	Konektibitate ekologikoaren galera	X			X		X			X		X			X		X	X					X			X		
Estetika, kultur eta paisaia baliabideak	Paisaiaren gaineko eragina	X			X	X			X		X				X		X	X					X				X	
Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarriak	Lurzoru kontsumoa	X			X	X				X	X				X		X		X				X			X		
	Lur gaineko uraren kalitatea	X			X		X			X		X			X	X		X						X		X		
	Lur azpiko uraren kalitatea		X		X		X			X		X			X		X		X					X	X			
Hondakinak eta kutsadura	Hondakin kopurua eta kutsadura handitzea	X			X	X			X			X			X	X		X					X			X		
Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea	Hiriko ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina	X			X		X			X		X			X	X		X					X			X		
Nekazaritza produktibitatea	Nekazaritza balio handiko lurzorua galtzea		X		X	X			X		X				X		X		X				X		X			
Kultur ondarea	Kultur ondarearen gaineko eragina	X			X	X			X		X				X	X		X					X			X		
Proposamenaren ondoriozko arriskuak	Arriskuak sortzea	X			X		X	X				X		X		X		X		X			X			X		

* Eraginaren indarra txosten honetako babeste, zuzentze eta konpentsatze neurrien arabera txikituko da.

7.4 ELIZALDE

ELI-6 eremuan aurreikusten diren jarduerak, etxebizitza berrien garapena, sortzen dituzten ingurune-inpaktuak deskribatzen dira. Era berean, ELI-3 eta ELI-4 eremuak etenda utzi izanaren balorazioa egiten da.

A) Natur baliabideak

- *Habitat interesgarriak eta landaretza, oro har.*

Etxebizitza berrien garapenak belardi-gune askoren eta interes komuneko habitat gisara hartuta dauden atlantiar erako laboreen galera ekarriko du. Nahiz eta Elizalde inguruan, eta udalerrri osoan, habitat ugaria izan, atzeraka ari da, beraz, eraginak minimizatu egin beharko lirateke area honetan. Beste habitat interesgarri batzuk, Oiartzun ibaiko haltzadia kasu (lehentasunezko habitat interesgarri komunitarioa da, 91E0* kodea) eta Urkabeko eta Auztegiko hostozabalen arboladiak ez dute jarduera honen eraginik jasango.

- *Espezie katalogatuak eta fauna, oro har.*

Belardiekin harreman zuzena duen faunak eragin zuzena jasango du, bereziki mugikortasun gutxieneko espezieak jasango dituzte eraginak, esate baterako urlehortarrak, narrastiak eta mikro-ugaztunak. Halere, fauna-baliorik handieneko guneak, Urkabe mendiko arboladiak eta landazabaleko guneak ez dute eraginik jasango.

B) Lotura ekologikoa.

Eremuan lotura ekologikoa ahalbidetzen duten elementu naturalak, ibai-ibilguak eta ibarretako landaretza eta hostozabalen arboladiak, ez dute jarduera honen eraginik izango, beraz, ez da aurreikusten lotura-gaitasunaren murrizketarik.

C) Bitarteko estetiko-kulturalak edo paisaiari dagozkionak.

Jardun-eremuaren perimetroaren hiru laurdenek hirigunea dute inguruan, hegoaldetik dago haranera irekia. Alde hori ikusten da haranaren atzetik eta beste aldetik; beraz, aintzat hartu beharko dira topografia eta eraikinen altuera, Elizaldeko eraikin esanguratsuenak ikusten jarraitu ahal izateko, San Esteban eliza, besteak beste. Hilerrria paisaia-mugarri interesgarria da; kutsu tradizionalari eusten dio, hiri-bilbetik aparte eta belardi eta zuhaitz inguratuta. Baldintza horiek mantentzen saiatu behar da, eremua barnetik banatzerakoan.

D) Bitarteko berriztagarriak eta ez-berriztagarriak

- *Lurzorua (kontsumoa)*

Jarduerak gaur egun okupatu gabe dagoen lurzorua 65.243 m² kontsumitzea ekarriko du, han-hemenka eraikuntza batzuk daude, eta horietatik 15.609 m² berdeguneetarako gordetzen dira. Eremua bere osotasunean hartuta, eraginak behera egin du, ez baitira garatu hasiera batean aurreikusten ziren ELI-3 eta ELI-4 eremuetako jarduerak eta ELI-6 etxebizitza berrien garapenaren azalera artifizialdua murriztu egin delako.

- *Lur azpiko urak eta gainazalekoak*

Lur azpiko uraren kalitateak ez du eragin handirik izango; izan ere, akuiferoen kutsadurarekiko sentiberatasuna txikia edo oso txikia da eremu horretan.

Ibai-ibilguk (Oiartzun ibaia eta Auztegi erreka) ez dute jarduera honen eraginik jasango, bertatik aparte baitaude.

E) Hondakinak eta kutsaduraren areagotzea

Exekuzio fasean, hondakinak sortuko dira eta kutsadura atmosferikoa eta akustikoa areagotu egingo da, lur-mugitzeen eta kamioien joan-etorrien ondorioz, batik bat.

Lanak amaitu ondoren, kutsadura atmosferikoa eta sortuko diren hondakin-kopuruak Elizalde hirigunean izaten eta sortzen denaren antzekoak izango dira, eta, era berean, neurri bertsuak aurreikusi beharko dira hondakinak biltzeko eta trafikoa arautzeko.

F) Giza osasuna, hirigunearen ingurumenaren kalitatea eta jabaltasuna.

Lanak iraun bitartean, trabak eragingo zaizkie eremu horretako biztanleei eta zirkulazioari; batez ere, zarataren, lur-mugitzearen eta kamioien joan-etorrien ondorioz.

Epealdi hau amaitu ondoren, ez da eragin negatibo garrantzitsurik aurreikusten, aldiz, bizitegi eremu berrian, inguratzen duen hiriguneko lasaitasun eta kalitate maila bertsua izango dela aurreikusten da. Eragin positibo batzuk ere sorraraz litezke, inguruko trafikoa berrantolatze bideak eratuta eta zuzkidura-ekipoak martxan jarrita.

G) Nekazaritzako ekoizpena

Nekazaritza Balio Estrategikoko 61.000 m² lurzoru galduko dira jarduera honekin. Eragin nabarmena izango badu ere, halako lur ugari dago bertan eta inguruan. Hala ere, nekazaritza balio handiko lurzoru horren galtzea justifikatzeko, erabilera handia izan behar du horrek, epe luzera ezaugarri horiek dituen udalerriko lurzoruaren kontsumoa minimizatzeko.

H) Kultur ondarea

Eremu hau Santiago Bideak zeharkatzen du, baina jarduerak ez du parte hartzen igarotzen dituen kaleetan, beraz ez dauka inolako eraginik.

I) Arrisku ondorioztatuak

Ez dira aurreikusten.

“ELIZALDE” EREMUAREN ERAGINEN MATRIZEA

ERAGINAK		TAMAINA		ZEINUA		EKINTZA MOTA		SINERGIA			EPEA			IRAUPENA		ITZULGAR RITASUNA		BERRESKURAGARRI-TASUNA		AGERRALDIA		IRAUNKOR-TASUNA		ERAGINAREN IZAERA *				
ALDAKORRA	ERAGINA	HANDIA	MINIMOA	POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	LABURRA	ERTAINA	LUZEA	BEHIN-BEHINEKOA	BEHIN BETIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	ALDIZKAKOA	IRREGULARRA	JARRAITUA	ETENDUNA	BATERAGARRIA	MODERATUA	HANDIA	KRITIKOA	
Natur baliabideak	Habitat interesgarri eta landareen gaineko eragina	X			X	X				X	X				X		X	X					X			X		
	Espezie katalogatu eta, oro har, faunaren gaineko eragina	X			X	X			X		X				X	X		X					X			X		
Konektibitate ekologikoa	Konektibitate ekologikoaren galera																											
Estetika, kultur eta paisaia baliabideak	Paisaiaren gaineko eragina	X			X	X			X		X				X		X	X					X			X		
Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarriak	Lurzoru kontsumoa	X			X	X				X	X				X		X		X				X			X		
	Lur gaineko uraren kalitatea		X		X		X		X			X			X	X		X					X		X			
	Lur azpiko uraren kalitatea		X		X		X		X			X			X		X		X				X		X			
Hondakinak eta kutsadura	Hondakin kopurua eta kutsadura handitzea	X			X	X			X			X			X	X		X					X			X		
Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea	Hiriko ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina		X		X		X		X		X				X	X		X					X		X			
Nekazaritza produktibitatea	Nekazaritza balio handiko lurzorua galtzea	X			X	X			X		X				X		X		X				X			X		
Kultur ondarea	Kultur ondarearen gaineko eragina																											
Proposamenaren ondoriozko arriskuak	Arriskuak sortzea																											

* Eraginaren indarra txosten honetako babeste, zuzentze eta konpentsatze neurrien arabera txikituko da.

7.5 ARRAGUA

Eremu honetan ARR-1 bizitegi-garapeneko arean aurreikusten diren jarduerak sorraraziko dituzten inpaktuak deskribatzen dira, eta baita ARR-5eko sistema orokorreko proposamenak eta Hornidurako Parkeak lehendik okupatzen zuen eremuaren desafekzioa ere.

A) Natur baliabideak

- *Habitat interesgarriak eta landaretza, oro har.*

ARR-1 eta ARR-5 eremuetan aurreikusitako jarduketak nagusiki landaretzarik gabeko lurzoruetan proposatzen dira, nahiz eta lehenengo kasuan, belardien zati batzuk eta hostozabalen bi basoak erasanda geratuko diren. Afekzioa handiagoa izango da Uretxeko orubearen ekialdean dagoen basoan, hedadura era esanguratsuan murriztuko baitzaio. Lintzirin erreka ibarraren landaretzari dagokionez, ingurunean hobekuntzak egitea aurreikusten da (birlandatzea, ezponden berreskuratzeak, ...), beraz, kasu honetan afekzioa positiboa izango litzateke. ARR-5aren kasuan jarduketa betelanez eta dezente asaldatu dagoen lurzoru baten gainean proposatzen da. Gainera Larrezabaletako arboladi eta belardien desafekzioa positiboki baloratu behar da, aurreko arauetan eremu honetan aurreikusitako Hornidurazko Parkea ez baita garatuko.

Eragindako lurretan lur ez urbanizagarriaren kategoriei dagokionez, egindako zonakatzek natura eta ingurumen baloreekin eta ondoko eremuen antolaketa-kategoriekin koherentea dela iristen zaio.

- *Espezie katalogatuak eta fauna, oro har.*

Faunarik erasotuen ARR-1eko belardi eta hostozabalen basoekin lotura duena izango da, bereziki lanak egiten diren bitartean, habitat-zati bat desagertu egingo baita. Ustiapen-fasean, eraikuntzak basoetatik horren hurbil egoteak era negatiboan eragin dezake espeziak babesteko, arboladiak, egiten duen lanean. Bestalde, ibarreko landaretzari loturiko espezieak ere eragin negatiboa izan dezakete Lintzirin erreka hobekuntza-lanen garaian.

ARR-5eko kasuan, nahiz eta jarduerak ez dituen intereseko fauna har dezaketen landereriako habitat edo egiturak zuzenean hartzen, paisaia eta natura aldetik interesa duen inguruan kokatzen da, (babes bereziko lur ez urbanizagarria, iparraldera Trapadako gunea eta Arizabalo hegoaldean). Eremu honetan egiten den jarduerak, beraz, hurbileko inguruarekiko eraginak gutxitu egin beharko ditu.

B) Lotura ekologikoa.

ARR-1ean proposatutako jarduketaren kasuan, honek bereziki gunea urbanizaturiko bi arboladien arteko loturari eragingo lioke eta horiek biak Lintzirin errekaekin

daukatenari. Uretxeren eta Arragua auzoko bizigune nagusia erabat isolatua gera liteke, baita Lintzirin erreka ibaiaren ibarretik eremutik ere. Faktore hori kontuan hartu beharko litzateke gune horretako ordenamendua egiteko garaian, gune txiki horien isolamendua saihestuko duten korridoreak aurreikusita.

ARR-5ari dagokionez, dagoeneko eraldatua dagoen lur bati afektatzen dio, A-8aren gertu dagoena, eta ez dio eremuaren lotura-gaitasunari eragiten, autobidearen tramo honetan ez baitago faunarentzako pasorik.

C) Bitarteko estetiko-kulturalak edo paisaiari dagozkionak.

ARR-1eko eremuaren ingurune zeharo hiritarrean jarduerak dituen helburuetako bat, besteak beste, auzoaren hobekuntza estetikoa da, hor Lintzirin erreka ibarrak eta arboladien kontserbazioak aldeko elementuak dira. Halere, paisaian nolabaiteko eragina izango dutela aurreikusten da, egungo hirigunetik hurbileneko eraikitzeke plangintza baitago eta arboladiaren azalera esanguratsuan etxebizitzak egiteko asmoa baitago.

Lehen aipatu den bezala, ARR-5a paisai aldetik balore nabarmena duen eta kultura mailan balorea duten elementuen artean kokatzen da, eta horregatik aurrera eramaten denean paisaiganako eraginak gutxitu egin behar dira beharrezko neurri zuzentzailean aplikatuz.

D) Bitarteko berriztagarriak eta ez-berriztagarriak

- Lurzorua (kontsumoa)

ARR-1eko jarduerak guztira 79.271 m² betetzen ditu; horietatik 12.525 hiri lurra dira eta beste zati batean asko asaldaturik dago betetze-lanen eta lur-mugimenduen ondorioz. Gune berdeetarako osotasunean 20.938 m² erreserbatzen dira, bertan egun degradatua dagoen Lintzirik erreka ibaiertzeko berreskurapen ambientala sartzeko delarik.

ARR-5 eremuak 55.145 m² azalera okupatzen du, horietatik zatirik handiena Arizabaloko inerteen hondakidengiarenek.

- Lur azpiko urak eta gainazalekoak

ARR-1 eremuan aurreikusitako ingurumenaren hobekuntza-lanak tarteko eragin positiboak aurreikusten dira Lintzirin errekan, bereziki landaretzari eta ibarraren eraketari dagokienez. Obrek irauten duten bitartean uraren kalitateak txarrera egin dezake, baina luzarora jarduera hauek mesede handia ekar lezakete.

ARR-5 eremuan aurreikusitako jarduera inguruko erreketatik urruti gelditzen da, eta horregatik ez da aurreikusten lur-azaleko uren gaineko eraginik.

Lur azpiko uren kalitatearen inguruan esan behar da gune honek ez duela eraginik jasango, akuiferoen kutsatzeko hauskortasun-maila baxua eta oso baxua delako.

E) Hondakinak eta kutsaduraren areagotzea

Exekuzio-fasean obra-hondakinak sortuko dira eta kutsadura atmosferikoak areagotu egingo da kamioien joan-etorriengatik eta lurren mugimenduengatik. Jarduera hauek Arragua auzoko biztanleengan eragina izango dute, eta ARR-5eko kasuan inguruari eta gertuko baserriei ere ondorioak izan ditzateke. Azken kasu honetan, eraginaren zenbatekoa eta izaera eremuan egiten den jardueraren araberakoa izango da.

ARR-1 eremuan ustiapen-fasean eta etxebizitza-kopuruak gaurkoaren aldean nabarmen gora egingo duenez, hondakinen sorrerak ere gora egingo du nabarmen. Bide berriak egiteak eta biztanleriaren areagotzeak ere trafikoa handitzea ekarriko dute eta, ondorioz, baita kutsadura atmosferikoarena ere. Halere, horren inguruan azpimarratu behar da gune horrek gaur egun trafikoa handia jasaten duten bide-kopuru handia duela.

ARR-5ean aurreikusitako jardueraren kasuan, ustiapen fasean izan litezkeen eraginaren tipologia eta intentsitatea eremuan kokatzen den jardueraren edo instalakutzaren araberakoa izango da. Edozein kasuan, prebetziozko neurriak eta neurri zuzentzaileak ere kontuan izango dira jardueratik gertu dagoen ingurunean ahalik eta eragin txikiena ekartzeko, paisai eta natura mailako garrantzizko baloreak dituelako.

F) Giza osasuna, hirigunearen ingurumenaren kalitatea eta jabaltasuna.

ARR-1 eremuan aurreikusitako jarduketari dagokionez, obrek eragiten dituzten eremuak sarbide zuzena dute, jarduera-mota honek sorrarazten dituen eragozpen asko saihestuko dituztenak, bereziki kamioien joan-etorriekin zerikusia dutenak. Dena den, zarata-maila areagotu egingo da fase honetan zehar, eta aldi-batean inguruneak txarrera egin dezake.

Behin fase hori amaitu ondoren, aurreikusten diren jarduerak eragin positiboa izango dutela uste da, auzotarren eskabide sozial asko eta asko betetzera bideraturik baitaude (ekipamenduak, aisialdiko guneak, kaleen hobekuntza, ...). Halere, biztanleria areagotzeak eragin negatiboren bat ere ekar dezake, esate baterako trafikorekin, zarata-mailaren eta kutsaduraren areagotzea.

ARR-5ean aurreikusitako eragindako eraginak bertan kokatuko den jardueraren baitan egongo dira. Gertuko inguruan jarduerak eragin ditzaken baserriak daudenez, jarduera zehazterakoan kontuan izango dira.

G) Nekazaritzako ekoizpena

Ez da eraginik aurreikusten balio handiko nekazal lurrengan.

H) Kultur ondarea

Ez da eraginik aurreikusten inbentariatua edo katalogatua dagoen elementuengan.

I) Arrisku ondorioztatuak

Uholde-arriskua

Arragua auzoan urbanizatuko den eremuaren zati bat Lintzirin erreka-eremuaren uholde-arriskua daukaten lurretan dago. Dena den, ibarra berreskuratzeko jarduerak eta ibai-parke baten eratzeak alda litzakete uholde-eremu horiek, aurreikusten diren eraginak bere horretan utziz, beraz, xehetasunezko azterketa hidrauliko bat egin beharko da, gainera, neurri zuzentzaileak adieraziko dituena.

Arrisku teknologikoak

Eremuak arrisku teknologiko altua dauka, A-8 (arrisku HANDIKOTZAT hartua) autopistaren, N-1 errepidearen (arrisku ERTAINEKOTZAT hartua) eta RENFEren trenbidearen (arrisku ERTAINEKOTZAT hartua) afekzio-banden barruan baitago.

Zarata

Bi jarduketak hurbileneko azpiegituren afekzio akustikoaren eremuen barruan daude (A-8 autopista, N-1 eta GI-2132 errepideak eta Irun-Tolosa trenbidea). ARR-1 eremuari dagokionez, jarduketa burutzea aurreikusten den eremuan zarata maila altuengatik eraginda egon daiteke, Ingurumen-zarataren Ebaluazio eta Kudeaketako Plana Oiartzunen ikerketan azaltzen denez, beraz neurri zuzentzaileak hartu beharko dira zarata maila hauek gutxitzeko eta eremu hauetan izan behar diren maila egokietara iristeko.

“ARRAGUA” EREMUAREN ERAGINEN MATRIZEA

ERAGINAK		TAMAINA		ZEINUA		EKINTZA MOTA		SINERGIA			EPEA			IRAUPENA		ITZULGAR RITASUNA		BERRESKU RAGARRITASUNA		AGERRALDIA		IRAUNKORTASUNA		ERAGINAREN IZAERA *				
ALDAKORRA	ERAGINA	HANDIA	MINIMOA	POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	LABURRA	ERTAINA	LUZEA	BEHIN-BEHINEKOA	BEHIN BETIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	ALDIZKAKOA	IRREGULARRA	JARRAITUA	ETENDUNA	BATERAGARRIA	MODERATUA	HANDIA	KRITIKOA	
Natur baliabideak	Habitat interesgarri eta landareen gaineko eragina	X		X	X					X	X				X		X	X					X			X		
	Espezie katalogatu eta, oro har, faunaren gaineko eragina		X	X	X			X			X				X	X		X					X		X			
Konektibitate ekologikoa	Konektibitate ekologikoaren galera		X	X		X			X		X				X		X	X					X			X		
Estetika, kultur eta paisaia baliabideak	Paisaiaren gaineko eragina	X		X	X			X			X				X		X	X					X			X		
Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarriak	Lurzoru kontsumoa		X	X	X				X		X				X		X		X				X			X		
	Lur gaineko uraren kalitatea		X	X																								
	Lur azpiko uraren kalitatea		X	X		X		X				X			X		X		X					X	X			
Hondakinak eta kutsadura	Hondakin kopurua eta kutsadura handitzea	X		X	X				X			X			X	X		X					X			X		
Giza osasuna, lasaitasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea	Hiriko ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina		X	X																								
Nekazaritza produktibitatea	Nekazaritza balio handiko lurzorua galtzea																											
Kultur ondarea	Kultur ondarearen gaineko eragina																											
Proposamenaren ondoriozko arriskuak	Arriskuak sortzea	X		X		X	X					X		X		X		X			X		X		X			

* Eraginaren indarra txosten honetako babeste, zuzentze eta konpentsatze neurrien arabera txikituko da.

8. INPAKTUAK AURREIKUSTEKO, MURRIZTEKO EDO ARINTZEKO NEURRIAK

Proposatzen diren jarduerak ingurumenean izango dituzten eragin garrantzitsuenak identifikatuta eta baloratuta, atal honetan aipaturiko eraginak prebenitu, murriztu edo arindu ditzaketen ingurumen-neurriak identifikatzen dira.

Alde batetik, Berrikuspen Partzialaren eremu osoan aplikatu daitezkeen neurri orokorrak proposatzen dira eta, bestetik, ingurumen-neurri zorrotzak eta zehatzak jarduera-eremu bakoitzerako.

Neurri orokorrak zein eremu jakinei dagozkienak, txosten honetan Oiartzungo Arau Subsidiarioen berrikuspen-prozeduran zehar beste dokumentu batzuetan jasota dauden beste proposamen batzuk ere bildu dira. Hain justu ere Oiartzungo AASSen Berrikuspenaren Ingurune-Inpaktuaren Ebaluaketa Bateratuaren Azterketan proposatutakoak (2006ko azaroa) eta Oiartzungo AASSen Ingurune-Inpaktuaren Ebaluaketa Bateratuaren Azterketaren Eguneratzean jasotakoak, Berrikuspen Partzialaren aurrelaburpen fasean (2008ko maiatza). Udalaz gaindiko planetatik ondorioztatutako ingurune-neurriak eta kontsulta egin zaien administrazioek egin dituzten txostenetan adierazitakoak ere biltzen dira.

8.1 NEURRI ORKORRAK

8.1.1 Udalaz gaindiko planetatik datozen neurriak

❖ EHAeko Nekazaritzako eta Basogintzako Sektore Lurraldearen Plana

Jarraian nekazaritza sektoreko egiturazko baldintzak hobetzera bideraturiko neurriak, PTSen V atalean adierazten direnen berri ematen da:

- Ustiategiak berriz ere dimentsionatu
- Lekualdatutako ustiategiak lursail alternatiboetan ezarri
- Nekazaritzataldeak sortu
- Kaltetutako ustiategien errentagarritasunaren igoera (ureztatze-azpiegiturak, sarrerak, modernizazioa...)
- Lurren hobekuntza, proiektua eraikitzerakoan egindako lur-mugitzeak aprobetxatuz. Lursail marjinalen balizko baliozkotzea.
- Landako gizarte zerbitzuen hobekuntza
- Landa ingurunea informazio eta komunikazio azpiegituraz hornitzea
- Landa paisaia kontserbatzera eta natur baliabideak babestera bideratutako neurria

❖ *EAEko Ibaiertzen eta Erreka-ertzen Lurralde Arloko Plana (Lehen Aldaketa)*

Jarraian, Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioak LAPa baino maila txikiagoko Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioa egiteko planak eta programak diseinatzeko neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak hartzeko orduan aintzat eduki beharreko irizpide eta artezpide orokorrak daude laburbilduta:

- Lurraldeko paisaia baliabideen babesa sustatzea
- Baso autoktonoen azalera handitzea
- Kontserbazio egoera onean dauden ibarbasoen birsortze eta babes osoa sustatzea
- Landare espezie exotiko inbaditzaileak ezabatzeko eta kontrolatzeko neurriak eranstea.
- Ibai-ibilguekin lotutako landare espezie berezien kontserbazioa sustatzea
- Espezie autoktonoak dituzten ibai-ibilguen lehengoratzeta sustatzea
- Ingurua artifizial bihurtuko duten jarduerak (hormigoizko babesak, ibilguen erregularizatzea, ur-bazterreko lorategiak) saihestea
- Uholdeak saihesteko jardueretan natur ingeniartzako teknikak sartzea
- Azpiegiturei egokitutako faunarentzako pasabideak eratzea
- Katalogatutako ondare historiko-kultural eta arkitektonikoko elementuen gaineko eraginak saihestea
- Indusketak edo lur-mugitzeak egitean lurzorua kutsaduraren arrastoak aurkituz gero, jarduera horien arduradunak dagokion udalari eta autonomia erkidegoko ingurumen organo eskudunari jakinarazi beharko dio hori (lurzorua kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, betetzeko).
- Ibaien aldatzeen ondoriozko ur geza biltzeko obrek uraren izaerari eragin diezaioten saihestea
- Ibai-ibilguetan obrak egiten ari badaitezke, obren lekutik behera dauden bainurako uraren kalitatearen gaineko eragina saihestu.

8.1.2 Interes komuneko eta baso-masen habitateko kontserbaziora edota sustapenera bideratutako neurriak

2008ko abuztuan Biodibertsitatearen eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak kaleratu zuen txostenean agertzen diren jarduera-eremu osoan aplika daitezkeen neurriak hartzen ditu bere baitan.

Jarraian agertzen diren neurrien helburuak landare-estalduraren gainean sor litezkeen eraginak prebenitzea dira, lurraldearen iragazkortasunean eta inguruko jardueren integrazio paisajistikoan laguntzeaz gainera.

- Sektore ezberdinek garatzen dituzten Planak eta proiektuak egun dagoen landaretzaren kontserbazioa aurreikusi beharko dute (hostozabalak, zuhaixka-multzoak eta hesi biziak), baita Birgaitze edo Birlandatze Plana ere, habitat naturalizatuak sortzera eta bertako zuhaitz eta zuhaixka-lerroen multzoak ezartzera bideratuak egongo direnak, inguruan dagoen natur landaretzarekin lotura izan dezaten saiatuz beti ere.
- Edozein jarduera egin aurretik, babestu behar dituen zuhaitzen identifikazio-eta balizaje-lanak egingo dira, edo beste leku batera aldatzeko interesgarriak diren zuhaitzena.
- Birlandatze-lanetan saiatuko da landare aloktonorik ez erabiltzen, bereziki bazterrera utziz inbaditzaileak izan daitezkeenak (adibidez: *Cortaderia selloana*, *Fallopia japonica*, e.a.).
- Landaretzaren berreskurapen-lanek ez diete kalte nabarmenik ekarri behar bestelako landareei edo landaretza-eremuei.

8.1.3 Beste ingurumen neurri orokorrak

Jarraian, Oiertzungo AASSen Berrikuspenaren Baterako Ebaluazioan (2006) deskribatutako ingurumen irizpide orokorrak jasotzen dira.

- Ibai-ibilguen natur ezaugarriak

Jabari Publiko Hidraulikoari eta horren Zortasun eta Polizia zonari eragiten dieten jarduerak ibi-ibilguen natur baldintzei eustea izango dute helburu; beraz, ur-bazterreko landaredia mantendu eta hobetu beharko da, ingeniariak biologikoko teknikak erabili beharko dira, eta EAEko Ibaiertzak eta Erreka-ertzak Antolatze Lurralde Arloko Planak zehaztutako distantziak gorde beharko dira.

- Ingurumena eta paisaia lehengoratzea

Kasu bakoitzean baloratuko da garapen planeamenduan aurreikusitako garapen berriak paisaian integratzeko beharrezkoa den ingurumen eta paisaia berritzea sartzeko beharra. Lanek kaltetutako eremua ez ezik, jarduera osagarriek (instalazio osagarriek, isurketa-drainatze sareak, obrarako sarrerek eta abar) kaltetutakoa ere hartuko ditu kontuan proiektu honek.

- *Zuhaitz autoktonoak*

Arreta berezia jarriko da garatze-eremuetako zuhaitz autoktonoetan, lanek beharrezkoa den azalera baino eragin ez diezaioten. Horretarako, lanen eraginik izango ez duten zuhaitziak zedarrituko dira, obretako makina-mugitzeen ondoriozko alferrikako kalteak prebenitzeko. Lanak amaitu arte iraun beharko du zedarritze horrek; beraz, astero kontrolatu beharko da zedarritzea, eta, hondatuz gero, aldatu.

- *Azaleko uraren kalitatea*

Aurreikusitako garapenen lanengatik, uhertasun edota olio edo koipeen presentziaren ondoriozko ibaietako kutsadura areagotuko balitz, aldaketa hori saihesteko tresnak (lastozko balazko hesiak, sedimentazio-hesiak eta bar) ezartzeko komenigarritasuna aztertuko da.

8.1.4 Eraikuntza berrien antolamendu espazialaren baldintzen arabera iraunkortasun irizpideak

Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioan (2006ko azaroa) deskribatutako iraunkortasun irizpideak datoz jarraian, eraikuntza berrien antolamendu espazialaren baldintzekin erlazionatuak.

- Hainbat eremu urbanizatzeko, eremu zolatu iragazgaitzak mugatzen saiatu beharko da, lurzorua berezko iragazkortasunari eusteko. Oinezkoentzako eta ibilgailuentzako guneeetan, euria iragazten duten materialak erabiltzeko aukera planteatuko da.
- Zarata handia egonez gero, hirigintza-jarduerek kontuan edukiko dute aurreikusitako eraikinak horien erabileraren arabera antolatzeko aukera, gutxien erabiliko direnak (industria eta zerbitzu erabilerakoak) zartarekiko sentiberagoak diren eraikinentzat (etxebizitzak, eskolak erietxeak) pantaila akustiko modukoak izan daitezten.
- Hainbat eremutako espazio publikoetan eta eraikin berrien espazio komunetan, gutxi kontsumitzen duten eta argi-kutsadura saihesten duten argizatze sistemak erabiliko dira.
- Hiri nahiz industria hondakinak gaika biltzeko leku egokiak aurreikusiko dira.
- Inguruaren ingurumen ezaugarriak aintzat hartuta, eraikuntzak paisaian integratzeko eta trabak saihesteko, udalerriko eraikuntzarekin eta estetikarekin bat datozen eraikuntza-baldintzak (materialak, koloreak, itxura, altuera, bolumenak eta abar) zehaztuko dira.
- Sektoreak eguzkia harrapatzeko duen eraginkortasuna kontuan hartuko da, eraikin berrien orientazioa zehazteko, eta horien jokabide energetikoa (batez

besteko tenperatua handiagoa, berogailu kontsumo txikiagoa eta abar) eta eguzki-argiaren aprobetxamendua hobetzeko.

- Eraikinen fatxadek orientazioaren arabera tratamendua edukiko dute: itxiagoak eta bakartuagoak izango dira iparraldean, eta irekiagoak eta beiratzatuagoak, hegoaldean.
- Eraikinetan erabili beharreko eraikuntza-materialak isolamendu termiko handia eduki dezaten, eta ahalik eta gehien iraun dezaten, eta ahalik eta gutxien kutsa dezaten saiatu beharko da.
- Eraikinetako barneko espazioa antolatzeko orduan, gehien erabiliko diren espazioen argizatze-baldintza bikainenak eduki ditzaten eta eguzki-indarra ahalik eta gehien aprobetxa dezaten saiatu beharko da. Balizko zarata arazoak ere aintzat hartuko ditu barne antolamendu horrek, eta zaratarekiko sentiberak diren espazioak (logelak, egongela eta abar) leku zaratatsuetatik urrun egon beharko dute.
- Ura eta energia aurrezteko sistemak ezarriko dira eraikinetan, eta komuneko ur beroa hornitzeko sistema mistoak ezartzeko aukera ere aztertuko da, eguzki-indarrarekin hartzeko eta metatzeko sistemak erabilia.
- Hiri-eremuetako berdeguneetan, ur aberriz erabiltzeko modua ematen duten ureztatze sistemak bultzatuko dira, eta baldintza bioklimatikoetara egokitutako espezieak erabiliko dira. Horrekin batera, hainbat eskalatara irekitzako berdegune-sistema koherentea ezarriko da.
- Ura arazteko sistema beregainak ezarriko dira, saneamendu-sarera lotzerik ez bada..

8.2 JARDUERA-EREMU ZEHATZEI DAGOZKIEN NEURRIAK

Atal honetan eremu bakoitzean hartu beharko diren neurri zehatzak bilduko dira. Horieta batzuk Oiartzungo AASSen Berrikuspen Partzialaren Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluaketaren (2008) azterketan adierazitakotik ondorioztatzen dira.

8.2.1 Usategietako gaina

- *Konektibitate ekologikoaren kontserbazioa*

Lanbarrengainako industria-eremu berria Jaizkibel eta Aiako Harria naturguneak lotzen dituen Gaintzurizketako korridore ekologikoko indargetze-eremuan dago. Korridorearen ardatza ez bada ere, "ertz efektua" du, eragin antropikoa arintzen baitu.

Berezitasun hau eremuko barne antolaketa zehazterakoan kontuan izan da, eraikinak dagoeneko eraldaturik dagoen gunean kokatuz horrela interesko

habitatzen gainera eragina gutxituz. Ikus-inpaktua gutzitzeko ere eraikinen inguruan landerez osaturiko pantaila aurreikusten da. Hala ere, eraginen balorazioa jasotzen duen atalean esaten den bezala, proposaturiko antolaketa eremuko interes komunitarioko habitatzen zati batean eta hegoaldean kokaturiko hostozabalen zuhaitzian eragiten du, eremuren ekologi mailako lotura-gaitasunean era negatiboan eraginez.

Eragin hauek berbideratzeko gune industrialeko guneen lotura-ahalmena indartuko da, hoako neurriak aplikatuz:

- 55.695 m²ko lur-azaleraren (eskituraren arabera, neurketaren arabera 36.423 m²) birlandaketa eta tratamendua bere lotura-ahalmena indartuz. Azalera hau sustatzaileak Oiartzungo Udalarari zehazki emango dizkio, azken honek aipatu lanak eta bere mantenua egin ahal ditzan. Azalera horren kokapena memoria agirian jasotako antolaketa planoan jasotzen da.
- Jaizkibel-Aiako Harriko Korridore Ekologikoa antolatuko duen Plan Berezia idaztea, Oiartzungo udalerriri dagokiona, EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen azterketan proposatutako eremua oinarri hartuta. Egitasmo honek jarduera eta mantentze neurriak ezarriko ditu, aipatu azterketan jasotako helburuak lortzearekin bat egin du, Planak berak onartuko ditzakenez aparte.

- Inpaktu paisajistikoa arintzea

Ezpondak birlandatuz eta landarediz estalitako pantailak egiterakoan, eremuaren barnean zein kanpoko ertzean kokaturikoetan, bertako eta neurri handiko espezieak erabiliko dira. Gainera, landareen sustraitze eta garapen gain jarraipen lan bat egin beharko da, batez ere lur txarretan (lur gutxiko ezpondak), garatzen ez direnak ordeztuz, beti ere eraikinak ikusmenetik estaltzea lortzeko duen pantaila trinkoa lortzeko asmoarekin.

Bereziki zainduko dira egungo eremu industrialera ematen duen aldeko pantailatan, ikus-eragina handiarengatik eta goiko kota batean kokatzen delako.

- Enpresen lekualdatzea

Udalerriko beste kokapen batzuetan egun dauden enpresen birkokatzeko aukera ingurumeneko eragin positibizat har liteke, hiri lurrean eragozpenak ekartzen dituztenak direlako edota dauden lekuetan naturazko habitatak berreskuratzea ahalmenduko dutelako. Oiartzungo Udala ahalegin berezia egiten ari da enpresa horiek birkokatzeko balioko duen eremu industrialara bideratzeko helburuarekin. Modu horretan enplazamendu berria izango du Recuperaciones Industriales Cadarso enpresak, gaur egun okupatzen duen Alzibarko hirigunetik gertu dituen instalazioak libre utzita.

Enpresa honen birkokapenak, gertu duen hiri eremuaren hoebkuntzat gain, Karrika errekako eskuideko ibaiertzean, sentikorra eta natura mailako balore bikaina izan dezakeen eremuaren berreskuratzea ekar lezake. Okupatzen duen kokapena eta Karrika erreka bere osotasunean, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren ondorioz, Bisoi Europarra eta Iberiar Muturluzearen Interes Bereziko Eremua da. Bere ur kalitatea ona dela esan liteke nahiz eta beheko zati honetan ibaiertzeko landaredia afektatua egon (errepideak, industrien instalakuntzak eta urbanizazioak). Guneak beste balore batzuk ere baditu, meategiko trenbidearena adibidez, berau bidegorri bezala erabiltzea aurreikusten delarik. Era beran Aranbuolako burdinolaren aztarnak daude (E.J.ko zerrenden 28 zk.ia) Erkidegoko Presuntsiozko Arkeologi Gune izendaturikoa.

Karrikako errekak zati honetan duen ahalmen naturalistikoa kontuan izanik, ubidea eta enpresak egun okupatzen duen errekaertza berreskuratzea proposatzen da. EHAren Ibai eta Errekaertzen LZPk ezarritako irizpideekin bat eginez, zati honetan edozein jardura edo lur naturalaren eraldaketak ubidearen alde bakoitzera 15 metro aldentzea eskatuko luke. Gune honetan, lurren jatorrizko morfologia berreskuratzeaz gain, urbazterko landaredia bere onera ekartzea proposatzen da, zehazki Kantabriar haltzadia (lehentasunezko habitat komunitarioa), eta horretarako beharrezko landaketak egingo dira. Arkeologi mailan intereseko elementuak agertuko balirateke, (Aranbuola burdinolako aztarnak), berauek zaintze eta berbalioztea aurreikusiko litzateke.

8.2.2 Oiertzun ibaiaren harana Ugaldetxo auzotik igarotzean

- Ur-ertzen ingurumen tratamendua eta Ugaldetxoko haltzadiaren berreskuratzea

Ur-ertzeko parkearen prestatzean eta lurraren jatorrizko morfologia berreskuratzeke, lur betelanak eta dauden elementu artifizialak erretiratuko dira eta ingurumenaren ikuspuntutik gogorra izan litekeen sistemarik ez da erabiliko (harri-lubetak, hormigoizko paretak), ibaiaren ezaugarri naturalak berreskuratzea oztopatzen dutelako. Horretarako bioingenieritzako elementuak rabiliko dira. Birlandaketari dagokionez, ubide ondoko zerrendan Kantabriar haltzaldia berreskuratzea bilatuko da, lur betelanak erretiratzen diren eremuan bere geroko ezaugarriak ahalmenduko duten berezko eremura zabalduz. Horretarako landaredi espezie honek berezkoak dituen espezie autoktonoen birlandaketa egingo da. Belardi guneak ere tartekatuko dira erabilera publikoa izan dezaketen aisialdi eremuak bertan kokatuz, landatar itxurako ekipamenduak eta pasiorako bidezidorrak antolatuz.

Zubi berriari dagokionez, egun ur-ertzean dagoen landaredia ahalik eta gutxien eragitea bilatuko da eta horretako paisaian integratu ahal izango den tipologia aukeratzea gomendatzen da.

Gainerako eremuan urbanizaturiko gunea ubidera egun hurbiltzen den baino gehiago ez hurbiltzea bilatuko da, egungo ezaugarriak mantentzeko saiakera egingo delarik.

Azkenik, egun haltzadi kantauriarrak Oiartzun ibaiaren ibarbasoaren zati bat, Ugaldetxon- estaltzen duela kontuan izanik; zati batzuetan, baina, platano (*Platanus sp.*) sailek ordezkatu dute hori. Epe ertainera gaur egungo sailak haltzadi kantauriarreko habitateko espezieekin ordezkatzeko komeniko litzateke.

- Hots-eraginen arintzea

Oiartzunen ingurune-hotsaren Ebaluaketa eta Kudeaketa Planetik ateratako datuen arabera, aurreikusten da GI-3631 errepidearen trazatu berriak hots-eraginak sorraraztea gaur egungo etxebizitzetan, bidetik hurbilen daudenak, eta egingo diren berrietan. Aipaturiko azterketan agertzen diren jarraibideen artean, gomendioa da neurri prebentiboak hartzea, akustikoki ondoren hartzen diren neurriak baino eraginkorragoak izan ohi direlako. Neurri horiek zarata-faktorearen hirigune berrien diseinu-faseari dagozkionak dira, eraikuntzen antolamendua eta kokapena baldintzatzen dituztenak, baita fatxaden isolatzaileei eta leihoei dagozkienak ere. Era berean, fase honetan prebenitu daitezke hots-pantailen kokapenak.

Berebat, xehetasun handiagoko azterketa akustikoa egiteko gomendioa ematen da, garapen berrien diseinu-fasean behar diren neurriak sartzeko aukera emango dutenak.

8.2.3 Sarobe errekaen ibarra

- Haranaren babesa

Babes Bereziko Lurzoru Urbanizaezinaren muga UGA-12 eremutik kanpo geratzen diren azaleretara hedatuko da, eta Sarobe errekaen haranaren zati izango dira; bertako azalera gehiena halakoa denez, ingurumen-jarraipena osatuko luke.

- Eremu industrialaren integrazio paisajistikoa

Poligono hau bakartuta dago Sarobe errekaen haranean; hori hobetzea eta komeniko litzateke, eta elementu berriak bertan integratzea. Horretarako, eraikuntza, bide eta aparkaleku berriak paisaiaren inguruko tratamendua eduki behar dute, ikusmen aldetik ingurutik bakartzeko. Hala, zuhaixka eta zuhaitz orla bat eduki beharko du, gaur egungo eraikinak estaltzeko ere balioko duena.

Zerradiberriri dagokionez, jarduera-eremuaren barruan, eremuaren ekialdean eta hegoaldean (ibarraren ondoan) berdegunetarako gordetzen diren lurak egoera naturalean mantenduko dira, lurraren kalitatea aldatuko duten betetze-lanak

ekidinez. Eremu horietan birlandaketa-lanak egingo dira, landare-pantailak eratuz, eta horretarako behealdean ibarreko espezieak erabiliko dira eta bestelako hostozabalen espezie batzuk gainerako eremuan, horrela eraikuntzak isolatu egingo dira eta haranaren barrualdera trantsizio egokia ahalbideratuko da. Okupatzen ez diren eremuen zuhaitzak mantentzeko saiakera egingo da eta ondoko eremuetakoak ere ez dira eragingo. Horretarako, bereziki zainduko da obretako arria. Nabarmentzekoa da Arainberri baserri ondoan dauden haritz handiak.

- *Haltzadiaren berreskuratzea eta ibarraren tratamendua*

Zerradin eremuan okupatzen ez diren guneeetan landaredi naturala hobetzea bultzatuko da, kantauriko haltzadiaren berreskurapena ezarriz. Era berean, gune hauek baratza eta txabolekin, edo hondakinen pilaketekin, okupatzea oztopatuko da. Bide eta aparkaleku azpian gelditzen den erreka ondoko gunean, eta jardun eremu arteko lursail guztian, altzaldia ezarriko da, egungo aleak mantenduz eta gainerako azalera betetzeko landaketa eginez. Hondakinen isuriak aldentzeko bidea eta aparkalekuaren mugan disuasiorako hesia jarriko da. Errepide ondoan kokaturiko goiko aldean egungo zuhaitzak mantenduko dira eta lizar berriak landatuko dira (*Fraxinus excelsior*), espezie honek gaur egun eremua partzilaki okupatzen duelako.

Zerradiberrin, okupatu gabeko guneeetan egun dauden zuhaitzak mantenduko dira, ibaitik gertu dagoen eremuan altzaldia ezarriz, urbanizaturiko guneraino iritsiko dena. Horretarako dagokion landaketa egingo da.

Sarbideko zubien proiektuetan, kontuan izango da eraikuntza-tipoa ingurunean integratzea, ahal den neurrian, ingeniari tekniken bitartez erasanda geratzen diren ibaialdeak berreskuratuz, beti ere azterketa hidraulikoak horretarako bide ematen duenean.

8.2.4 Elizalde Auzoa

- *Inpaktu paisajistikoa arintzea*

Elizalden proposatu den bizitegi-garapen berria, haranera irekia dago hegoaldea izan ezik, hiriguneak inguratutako dago. Ikuspegi horretatik, hiri-paisaiaren elementu garrantzitsuen aurrean dago, esate baterako San Esteban Eliza, Elizalderen profila osatzen duten elementuen baitan. Etxebizitzaren garaiera eta kokapena proiektatzeko orduan, tipologia eta itxura bezalaxe, kontuan izan beharko litzateke profil horrekiko harmonizazioa eta integrazioa, ahalik eta gutxien alda dadin.

Kontuan izan beharreko beste elementu bat hilerria da, hirigunetik hurbil, baina aparte eta belardiz eta zuhaitzez inguratua, eta horixe da kontserbatu beharreko ezaugarrietako bat. Bizitegi-gunearen diseinuan, beraz, eraikuntzak gaur egungo gunearen ondoan bildu behar dira, espazio irekiak hilerriaren ondoan kokatuta.

- Aztarnategi jurasikoaren babes

Eremu honetan antzeman da azaloramendu jurasikoa den bat, fosil interesgarriak aurkitu dira bertan, asko eta asko Luberri museoan ikusgai daudenak, nahiz eta garrantzia bereziki herri-mailakoa izan, ez baitago EHAEko interes geologikoko kartografian sartuta. Azaloramendua Urkabe mendiaren hegaletik, Elizalde auzoan, Sarobe errekararen haranera luzatzen da, eta zati bat hiriguneek eta errepedeek eta bideek estalia dago. Elizalden egin asmo den etxebizitza-gune berriak ez du era berezian eragingo azaloramenduan, hedadura osoa kontuan hartzen bada, behintzat. Gainera, gune artifizialdua hirigunetik hurbileneko gunean dago, azaloramenduzatirik handiena espazio libre gisara geratzen delarik, beraz, inolako jarduerarik gabe.

Eraginak arintzat hartu arren, ahal den neurrian, Oiertzungo herrirako azaloramendu honek suposatzen duen eta duen balio didaktikoa gorde nahi da, ordea, edo aipaturiko balioa sustatu egin nahi da. Horregatik, egoki irizten zaio lanen garapenean jarraipen geologikoa egiteari, agertzen diren fosil interesgarriak hartzeko aukerarekin, baita aztarnategiaren ezaugarriak bistaritzen eta interpretatzen diren puntu jakin batzuen eraketa eta birgaitzea ere (ezpondak, lur azpiko guneak). Balio erantsiko eta interpretazioko ekintza hauek une honetan jada begien aurrean dagoen guneetan ere egin daitezke, zirkulu didaktikoa osatuz. Planteamendu hau aurrera eramatea elementu geologikoen kontsiderazioan aurrerapena litzateke, orain arte Oiertzungen aurrekaririk ez duena, eta beste udalerrietan horrelako planteamendurik egin den berririk ere ez dago.

8.2.5 Arragua Eremua

→ ARR-1eko jarduketan ondoriozko neurriak

- Hostozabalen arboladiaren kontserbazioa

ARR-1 jarduera-eremuaren barruan, natur interesa duten hostozabal autoktonoen bi baso kontserbatzen dira. Bi gune txiki horiek zaindu eta ahal den neurrian esparruko hiri-ordenamenduko jardueretan integratu behar dira, lur-mugimenduen, etxebizitzaren eraikuntzaren eta azpiegituren ondorioz sortzen diren eraginak saihestuz. Zuhaitzietan eragindako azalera jarduera eremu berberan gune libre eta berdegunetan konpentsatua izango da, ahal den neurrian, ahal dela bertako espezie autoktonoekin zuhaitziak osatuz.

Arboladi hauek isolatuta gera ez daitezzen, ahaleginak egingo dira gune hori zeharkatu eta Lintzirin errekan amaitzen den latsarekin konexioa izan dezaten.

Horretarako errekaren tarte hori zaindu egin beharko da, ezaugarri naturalak mantenduz eta hobetuz.

- Lintzirin errekaren ingurune-hobekuntza

Ibai parkearen antolaketan erabilpen publikoaren eta ibarraren kontserbazio eta ingurunearen hobekuntzaren oreka bilatzeko ahaleginak egingo dira. Eremua zonakatzeak bi helburu betetzeko aukera ematen du, erabilpen publiko handiena etxebizitzetatik hurbileneko gunea bideratuta eta, ibaiaren ondokoa habitata hobetzeko lanetara bideratuta. Uholde-arriskua da kontuan hartu beharreko beste faktore bat, eremu honetan gauzatzen den jarduerak uholde-orbanak aldatu egingo baititu, beraz, gune honetan xehetasun-azterketa hidraulikoan adierazten dena egin beharko da.

Ibarrean garatzen diren ingurunea hobetzeko lanetan naturaltasunaren irizpidea jarraituko da, ahal den neurrian eta azterketa hidraulikoan adierazten dena betez, artifizializazioa ekidinez. Birlandatze lanetarako ibarreko espezie autoktonoak erabiliko dira.

Erabilpen publikoari dagokionez, biztanleriaren aisialdirako gune gisaz gainera, eremu honek zeregin garrantzitsua bete dezake bitarteko didaktiko gisa, bertan interpretazio eta ingurunearen hezkuntza-gunea antola baitaiteke ibarreko ekosistemari eta urpean gera daitezkeen eremuei buruzkoa.

- Zarataren eraginak arintzeko neurriak

Komunikabide garrantzitsuen gertutasuna dela eta (A-8, N-1, GI-2132, Irun-Tolosa burdinbidea), Arraguako auzoa azpiegitura huek igorritako zaratarengatik eraginda dago. Egoera hau, Oiertzungo ingurune-zarataren Ebaluaketa eta Kudeaketa Planean (ACC Akustika Aplikatuko Zentroa SL), zein Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratu zuen errepideen Zarataren Mapa Estrategikoan, ikus daiteke ere.

Eragin hauek arintzeko, AAC-ek egindako azterketaren gomendioa da neurri prebentiboak aplikatzea, garapen berrien diseinuan hotsaren faktorea aintzat hartzean dautzana. Foku-jaulkitzailearekiko eraikinek duten antolamendua, antolatu behar den eremuan izango duten kokapena eta fatxaden eta leihoen isolatzailearen hobekuntza, zarata-fokuaren aurka jarduterik ez dagoenean, hartzea gomendatzen diren neurriak dira. Beste neurri batzuk pantaila akustikoak dira, foku jaulkitzailearen eta eraikuntzen artean langa gisara kokatuak.

Eremu honetan zarataren faktoreak duen konplexutasuna eta garrantzia ikusita, egokia litzateke xehetasunezko azterketa bat egitea, garapen berriaren diseinuan laguntzeko gomendioak eman ditzakeena, eta era berean, egokia litzateke

gomendatzen diren zarata-mailak lortzeko aukera emango luketen beste neurri batzuk ere hartzea.

→ ARR-5eko jarduketan ondoriozko neurriak

- *Natura mailako interesa duten elementuen zaintzea eta birlandaketa lanak.*

ARR-5ean aurreikusitako jarduketa A-8 autobidearen ondoan egun ealdataua dagoen lur baten gainean (Arizabaloko inerteen hondakindegia), nahiz eta paisaia eta natura aldetik balore bikaina duen esparruak inguratzen duen. Jarduketaren ingurua landazabaleko paisaia da, zuhaiztiak eta Babes Bereziko Lur Ez Urbanizagarrian sarturiko baserrien presentairekin.

Eremuaren barne antolaketa zehazterakoan (eraikinen kokapena, bialak ...), lurraren okupazioa, ahal den mailan, egun eraldataua eta landaredirik gabe dagoen gunera mugatu egingo da. Natura mailako balorea duten elementuengan eragina aldentuko da, bereziki eremu barnean hegoalderuntz kokatzen den hostozabalen zuhaiztiarengan. Egun landaredirik ez duen eta okupatu behar ez den azalera birlandatzea bultzatuko da, utzikeria gailendu eta jarduketa inguruan integratzeko balioko duen landarediz eginiko pantaila eginez.

- *Paisaian eragina arintzea.*

Paisaiarekiko eragina izango da kontuan bereziki, eremuko eraikin eta urbanizazioa diseinatzerakoan irizpide hori kontuan izango delarik. Gaez argi gutxi duen landa ingurune batean kokatzen denez, argitik sorturiko kontaminazioa aldentzeko neurriak hartuko dira, inguruko fauna eragin dezakelako eta gertuen dauden bizilagunengan eragozpenak sortu.

- *Jardueraren balorazioa.*

Eremu honetan ezarriko diren jarduerari dagokionez, bere egokitasuna aztertu beharko da, beti ere kokapen bezala izango duen ingurua ikusirik, gertuko bizilagunak eta natura mailako balorea duten elementuengan izan dezakeen eragina aztertuta.

9. PLANAK INGURUMENEAN DITUEN ERAGINEN JARRAIPENA

9/2006 Legearen 15 artikulua xedatzen duenaren arabera, planaren aplikazioak ingurunean dituen eragin jarraipenaren helburu nagusia aurreikusten ez diren eragin negatiboak ahalik eta azkarren identifikatzea da, horrela eta horiek saihesteko, neurri egokiak abian jarri ahal izateko.

Jarraipena egitea erakunde sustatzaileari dagokio, kasu honetan Oiartzungo Udalari, bai bertako pertsonal kualifikatuaren bitartez, bai horretan espezializatua dagoen aholkularitza baten bitartez. Horretaz gainera, Udalak dagokion ingurumen-erakundearen parte-hartzea ere izango du, kasu honetan Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzarena.

Jarraipena, gehienetan, adierazleak aplikatuta egiten da, nola ingurumenezkoak hala jasangarritasunezkoak, urte batzuetan zehar udalerrian ematen diren aldaketen ebaluazioa egiteko aukera ematen dutenak, kasuan kasuko plana gauzatu aurretik, bitartean eta ondoren.

Eskuartean dugun kasuan, Berrikuspen Partziala denez, udalerriko eremu jakin batzuk berrikusten dituen, proposatzen da, alde batetik, aurreko atalean proposatzen diren neurri zuzentzaileen jarraipena egitea, nola orokorra hala eremu bakoitzari dagozkionena eta, bestetik, geroago definitzen diren eremu bakoitzeko elementu jakin batzuen ikuskaritza egitea.

Oiartzungo Plan Orokorra egiten den unea izango da udalerriri osoan ingurumen zein jasangarritasun adierazleak definitzeko garaia. Fase horretan, garrantzi berezia hartu behar du Oiartzungo Udalak egindako ingurune naturalari buruzko Sistemaren Informazio Geografikoak, lurraldeko adierazle batzuen jarraipena egitea ahalbidetzen duen tresna horren bitartez. Halaber, Tokiko Agenda 21 prozesua aurrera eramateko irizpideak adostu eta adierazleak definitu behar dira.

Beraz, Berrikuspen Partzialean proposatzen diren jardueren ondorioen jarraipena egiteko proposamenak dira:

❖ Berrikuspen Partzialetik ondorioztatzen diren agirietan planteatzen diren neurrien integrazioa

Eremu bakoitzerako zein eremu orokorretarako proposatzen den jarraipena egingo da. Neurri horiek Berrikuspen Partzialetik ateratzen diren agiri ezberdinetan jaso behar dira, planteamendukoekin zerikusia dutenetan (plan partzialak, xehetasunezko azterketak, ...) eta exekuziokoetan (lan-proiektuak), eta kasu bakoitzean zehaztu behar dira aplikazioa bermatuko duen aurrekontua.

❖ **Obra-fasean neurriak betetzen direla ziurtatzeko jarraipena**

Obren fase honetan, ingurumen jarraipena egingo da txosten honetan planteatzen diren neurriak, orokorrak zein eremu bakoitzeko espezifikoak, aplikatzen direla egiaztatzeko.

Aldizkako bisitak eginez, in situ ikusiko dira neurriak hartzen diren, eta horretaz gainera, ondoren adierazten diren neurri orokorren jarraipena egingo da:

- Obrak eragiten duen lur-azalera kontrolatuko da, behar dena baino gehiago ez zabaltzeko.
- Habitatak edo natur elementu interesgarriak zainduko dira (arboladiak, hesiak, putzuak, zuhaitz isolatuak, ...) jarduerak aukera ematen duen neurrian.
- Gainazaleko uren kalitate-kontrola egingo da.
- Jabari Publiko Hidraulikoa eta ibarreko landareren eragina saihestuko da, Ibaien eta Erreken PTSek kasu bakoitzean eskatzen dituen distantziak kontrolatuz.
- Interes kultureko elementuak zaintzeko ahaleginak egingo dira, obrak egiten diren bitartean kalterik izan ez dezaten ekidinez.
- Ingurumeneko parametroen jarraipena egingo da, esate baterako zarata-mailarena eta atmosferara isurtzen diren hautsena eta partikulena, legeak xedatzen dituen mailak gaindi ez ditzaten.
- Obrako hondakinen kudeaketa gainbegiratuko da eta isurketa-uren garraibidearen funtzionamendu zuzena egiaztatuko.

Alderdi orokor horiez gainera, eremu zehatz bakoitzean, garrantzi bereziko elementuak definitzen dira, jarraipen egokia egin beharko zaizkienak:

▶ **Usategietako gaina:**

- *Lotura ekologikoko elementuen zaintza eta lehengoratzea (arboladiak, hesiak)*

Korridore ekologikoan azalera artifizializatua kuantifikatuko da eta jarduera-esparruei dagozkien espazio libreak eta baita Udalari utzitako eremu mugakidea lotrua ekologikoa bultzatzera bideratzen direla egiaztatuko da.

- *Paisaiaren integrazioa*

Landare-pantailen eraketa egiaztatuko da, urbanizazio-lanak egin ondoren, ondo errotzen direla ziurtatuz.

► **Oiertzun ibaiaren ibarra, Ugaldetxon:**

- *Ibarren eta bertan izan dezaketen landaretza zaintzea eta berreskuratzea*

Esku hartutako ezpondak zuzen eta egoki berritu direla egiaztatuko da, eta azterketa hidraulikoak horretarako aukera ematen duen guztietan malda etzanak eratuko dira. Birlandatze-lanen jarraipena egingo da, espezieak zuzen aukeratu eta kokatu direla egiaztatuz. Interes berezia jarriko da zubi berriaren inguruan, ibaian sor dezakeen eragina ahalik eta txikiena izan dadin.

- *Uholde-arriskuari buruzko neurrien aplikazioa*

Kasun kasuko azterketa hidraulikoan uholde-arriskuaren inguruan xedatzen diren neurriak zuzen aplikatzen direla egiaztatuko da.

- *Zaraten eraginari buruzko neurrien aplikazioa*

GI-3631 errepidearen trazatu berrian hotsa arintzeko neurriak zuzen aplikatzen direla egiaztatuko da.

► **Sarobe harana:**

- *Dorre Leizearen eta hurbileneko inguruaren zaintza*

Antolakuntzako planotan definitzen den distantzia errespetatzen dela egiaztatuko da, leizearen sarreratik lehen industri instalazioetara eta etxebizitzetara.

- *Ibarren eta bertako landaretzaren zaintza eta leheneratzea*

Sarobe errekaen ibarrean egiten diren birlandatze-lanak eta, era berean, naturalizazioa egiaztatuko dira, eta baita adierazi diren espezien landaketen garapen ona ere.

- *Uholde-arriskuari buruzko neurrien aplikazioa*

Kasun kasuko azterketa hidraulikoan uholde-arriskuaren inguruan xedatzen diren neurriak zuzen aplikatzen direla egiaztatuko da

- *Paisaiaren integrazioa*

Landare-pantailak zuzen eratzen direla egiaztatuko da, bai kokapena eta baita horretarako erabiltzen diren espezieak ere.

► **Elizalde auzoa:**

- *Bizitegi-garapen berriaren paisaia eta hiri-integrazioa.*

Eraikuntzen kokapen eta tipologia egokia egiaztatuko da, bereziki jardueraren paisaiaren integrazioarako ezarrita dauden ezaugarriena.

- *Balio geologikoko elementuen jarraipena*

Azaleramendu jurasikoan agertzen diren interes geologikoko elementuen jarraipena egingo da. Fossilak, agertzen baldin badira, jaso egingo dira eta, interes didaktikoa izan dezaketen ezpondak ere kontserbatu egingo dira, ahal den guztietan.

► **Arragua eremua:**

ARR-1

- *Baso hostozabalen kontserbazioa*

Eragiten den basoaren azalera neurtuko da, proiektuan adierazia ez dela gainditzen egiaztatuz. Hartzen diren neurriak ikusiko dira gunehorietako eragina arintzearen (eremuaren zedarritzea, enborren babesak, ...).

- *Lintzirin errekaen ibaiertzeko jarduerak*

Birlandatze-lanen eta ezponden eratze-lanen jarraipena egingo da, berritze-proiektuan adierazia aplikatzen dena egiaztatuz.

- *Zarata-inpaktuen inguruko neurrien aplikazioa*

Soinu-azterketan adierazten diren neurriak, prebentziozkoak zein zuzentzaileak, aplikatzen direla egiaztatuko da.

- *Uholde-arriskuari buruzko neurrien aplikazioa*

Kasun kasuko azterketa hidraulikoan uholde-arriskuaren inguruan xedatzen diren neurriak zuzen aplikatzen direla egiaztatuko da.

ARR-5

- *Natuta mailako interesa duten elementuen mantentzea.*

Eremu barneko zuhaitzen eta zuhaitzen zaintza egiaztatuko da.

- *Paisaiaren integrazioa.*

Landarediz egindako pantailen gauzatea egiaztatuko da, bere kokapena zein erabilitako espeziei dagokionez. Birlandatze lanen jarraipena egingo da zenbait gunehorietan ez direla baztertu bermatuz, beti ere lurren degradazioa aldentzeko.

10 LABURPEN DOKUMENTUA

Atal hau Ingurumena Iraunarazteko Txostenaren laburpen bat da, ez-teknikoa, eta dokumentuaren helburua txostenaren irakurketa eta ulermena erraztean datza.

Tramitatzen ari den Oiartzungo Udalerrriaren Ordenamenduaren baitako Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partziala, indarrean dagoen legediaren arabera, ingurumenaren ebaluazioaren prozeduraren mende dago, eta arrazoi horrexegatik, hain zuzen ere, gehitu zaio Ingurumena Iraunarazteko Txosten hau.

10.1 AASSen BERRIKUSPEN PARTZIALAREN HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK

❖ Jarduera-eremua, helburuak eta ordenamendurako irizpideak

Hauek dira, Oiartzungo Udalerrriaren Ordenamendurako Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzialaren jarduera-eremuak bere baitan hartzen dituen areak: ARR-1, ARR-5, UGA-1-A, UGA-1-C, UGA-1-D, UGA-2, UGA-4, UGA-5A, UGA-11, UGA-12, UGA 14, ELI-4 eta LAN-3.

Oiartzungo Arau Subsidiarioen Berrikuspen Partzialaren helburua da hirigintza-jarduerarako hainbat eremu (HIE) aldatzea, berriz planteatu baitira. Planeamenduaren inguruko helburu orokorreki dagokienez, berriz, orain tramitatzen ari den Berrikuspen Partzialean jasotzen dira Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspen Txostenean planteatutakoak, eta ingurumenari buruzkoak azpimarratuko ditugu segidan:

- Hirigintza-antolamendu eredu ireki eta malgua garatzea, lurraldeko natur balio nagusiak errespetatuko dituen.
- Udalerriko landa eremu ahulenetako paisaia eta ekologia babesteko neurri bereziak hartzea.
- Udalerriko natur baliabideen gaineko babesa bultzatzea.
- Bidegorri eta oinezkoentzako pasealeku sare osagarri bat sortzea eta tren erabiltzeko aukera sustatzea.

Antolamendu-irizpideei dagokienez, Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspen Txosteneko antolamendu-irizpide nagusiak biltzen ditu Berrikuspen Partzial honek, eta honako hauek dira jarraibide nagusiak:

- Hazkunde kontzentratua
- Etxebizitza-dentsitate handiagoko bizitegitarako lurzorua
- Planteatutako garapen-jarduerak hirigintza-azpiegitura berriak sortzea
- Lurzorua hirigintza-erabileren arteko gero eta oreka handiagoa

- Udalerriaren hazkunde endogenoaren gaineko eskaerak lehenestea, eta udalerriaz gaindiko garapen-eskaerei horien ondoren kasu egitea
- Hirigintza-erabileren arteko erlazioa sustatzea
- Landa esparruak, eta paisaia eta ekologia aldetik babestu beharreko eremuak ezartzea, lurzoru urbanizaezinean
- Ondarea babestea

❖ Proposamenen laburpena

Lurzoru industrialak

Lanbarrengaina (LAN-3): Sarrera Lanbarrengo poligonotik izango duen ekonomia-jardueratarako poligono berri bat sortzea planteatu da. Gaur egun haranean sakabanaturik dauden industria jarduerak lekuz aldatzearekin du lotura poligono horrek. Azalera: 83.300 m²

Zerradi (UGA-11): industrialdearen berrantolaketa osoa, industria jarduerak finkatzea eta pabiloi berri bat eraikitzea ahalbidetuz. Azalera: 26.526 m²

Zerradiberri (UGA-12): industria hedapenerako eremu berria eta lursailen erreserba udalerriko lurzoru urbanizaezinean zehar barreiatu-ko industria izaerako kokaleku desberdinen lekualdaketarako (materialeen parkeak, autoak desegiteko lekuak, biltegiak, garajeak, tailerrak, etb...). Bailaran barrena industria garatzeko azken maila gisa planteatzen da. Azalera: 60.264 m²

Bizitegirako lurzorua

Arragua (ARR-1): Arragua auzoko Iparraldearen berrantolakuntza integrala eta 453 etxebizitzaren eraikuntza. Berdeguneak (zuhaitziak), Lintzirin erreka-aren ibarra berreskuratzea eta Larzabalzar landa-parkea. Azalera: 79.271 m²

Ugaldetxo (UGA-1 eta UGA-15): eremu honen berrantolaketa integrala, GI-3631 errepideko zeharkaldia Mendebaldera desplazatuta, berriro ere kalifikatzeko aukera emanez. 180 etxebizitza berriak eta ibai ertzeko parke bat egituraketa. Kirol instalazioak eremuan (UGA-15) geratzen dira, UGA-1ean egoitza-garapena bideratzeko beharrekoak diren eraberritzeak eginez. Azalera (UGA-1 eta UGA-15): 68.771 m²

Elizalde (ELI-6): Egoitza-eremu berri baten garapena Elizalde herrigunearen zabaltze modura, 200 etxebizitza berriko programa batekin. Egoitza sustapenarekin zuzkidura publikoetarako lurzoruak lortzea aurreikusten da. Azalera: 65.243 m²

- ARR-5 Ekipamendu Komunitarioaren Sistema Orokorra: ekipamendu komunitarioa kokatzeko Sistema Orokorrentzat sailkapena. Azalera: 55.145 m²

10.2 BESTELAKO PLAN ETA PROGRAMEKIKO ELKARERAGINA

Hierarkikoki goragokoak diren eta aintzat hartuak izan diren planen zerrenda aurkezten da, baita interesgarriak iritzitako beste plan batzuk ere.

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamenduko Sailak emandako Araubidetik ondorioztatzen diren Lurralde-Planak:

- EHEko Nekazaritzako eta Basogintzako Lurraldeko Plan Sektoriala
- Kantauri Isurialdeko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeke Lurralde Plan Sektoriala eta horren 1. aldaketa.

Azterketaren helburuko eremuan eragina duten beste plan batzuk:

- EHEko korridore ekologikoen sarearen azterketa
- Ingurumen-zarataren Ebaluazio eta Kudeaketako Plana Oiertzunen
- Oiertzun Ibaiaren Azterketa Hidraulikoa
- Lurzorua kutsatzeko jarduerak jasaten edo jasan izan dituzten inbentarioa edo lurzorua kutsa dezaketen instalazioena

10.3 ALTERNATIBEN AZTERKETA

❖ "0" Alternatiba

0 Alternatiba, hau da, ez jarduteak, etenda utzitako areak eta Berrikuspen Partzial honen helburuko direnak, orain arteko egoera berean jarraituko dutela esan nahi du. Area horietako zenbaitetan, Arragua eta Ugaldetxo auzoetan kasu, bizilagunek egindako oihartzun sozial handiko eskaera garrantzitsuak baitaude ekipamendu, mugikortasun eta hiriguneak biziberritzeko egitasmoei buruzko gaien inguruan. Beraz, area hauetan ez jardutea, ez litzateke inola ere alternatiba positiboa izango.

Elizalde auzoari dagokionez, ELI-6 areako bizitegi-garapen berria Oiertzungo Udalak ordenamendu-ereduaren inguruan egin duen gogoetaren emaitza argia da. Hirigune honen hiriburutzari eustea da helburua, hain zuzen ere beste auzoetan aurreikusita dauden etxebizitza-kopurua gutxituz eta Elizalde auzoan, aldiz, gehituz.

❖ Ordenamendu-ereduari buruzko alternatibaren azterketa

2007ko AASSen Berrikuspenean proposaturiko ordenamendu-eredua, oraingo Berrikuspen Partzialean proposatzen den ereduarekin alderatu da, honako parametro hauen arabera: lurzoruaren kontsumoa, balio agrologiko handiko lurzoruaren kontsumoa eta natur balio nabarmenak dituzten eremuekiko afekzioa.

Lurzoruaren kontsumoari dagokionez, 4.2. ataleko 3. taulan ikus daitekeen moduan, Berrikuspen Partzialeko dokumentuan proposatzen den eredu-aldaketak, kontsumo horren gutxitze esanguratsua suposatzen du (%50etik gorakoa), hain zuzen ere, eta bereziki, aurreko AASSetan proposatutako hainbat jarduera gauzatu gabe utzi izanagatik, horien artean Elizaldeko eta Ugaldetxoko zenbait bizitegi-garapenak (UGA-4 eta ELI-4) eta beste proposamen batzuk murriztapen esanguratsuentzat, horien artean, Arraguako Zuzkidura-Parkea (ARR-5). Gainera, aldaketa honek Lurzoru Ez-Urbanizagarriaren azalera nabarmen gehitu du, 494.070 m²-tan, aurreko proposamenarekin alderatuz.

Balio agrologiko handiko lurzoruaren kontsumoaren inguruan, proposatutako aldaketaren emaitza positiboa da baita ere, kontsumoa %30 gutxitzea lortu baita alor honetan.

Azkenik, natur balioa duten eremu erasanei dagokienez, Berrikuspen Partzial honetan egin diren aldaketek, erasandako kokaguneen murrizketa eragin dute. Horrela, bada, ezabatu egin dira Urkabeko natur interesa duten areetako inpaktuak, baita Arraguako Zuzkidura-Parkeak erasandako arboladi eta landazabaleko paisaiekiko inpaktuak ere, eta Ugaldetxoko saihesbideak erasandako Oiertzungo ibaiaren ibarrari erasandako inpaktuak. Gutxitu egin dira, halaber, Sarobe erreka haranaren afekzio paisajistiko eta naturalistikoak. Azkenik, Arragua auzoan, gutxitu egin dira erreka eta Lintziringo ibarraren eta hostozabalen basotxoaren gaineko afekzioak.

10.4 ERASANDAKO EREMUEN DESKRIBAPENA

❖ Usategietako Gaina

Oiertzungo herriaren iparraldean kokatua, Lezo eta Irunekin muga egiten du, eta hegoaldean A-8 autopistak zeharkatzen du. Landa-gunea da, baserriak eta belardiak daude, berriki Lanbarren industrialdea garatu da, Arañaburu sakana oso-oso betetzen duena (eremuaren mendebaldean). Era berean, gune honetan kokatua dago autopistako zerbitzugunea eta Vascontainer-en zabortegia.

Badaude, oraindik ere, natur balioa duten landareta-orbanak, komunitatearentzat interesgarriak diren belardiak eta txilardiak bezalakoak eta baita faunarentzat babesgune diren arboladi txikiak ere. Eremu hau, gainera, Jaizkibelgo Garrantzi Komunitarioko Tokia den Jaizkibel Aiako Harria Natur Parkearekin lotzen duen korridore ekologikoan dago kokatua.

Bestalde, A-8 autopista zarata-iturri nabarmeneko eta arrisku teknologiko handiko errepidea da, bertatik garrantziak diren merkantzia arriskutsuen eraginpean baitago.

❖ Oiertzun ibaiaren ibarra Ugaldetxo auzoan

Ugaldetxo auzoko hirigunea kokatzen da bizitegi-eremu honetan, GI-3631 errepideak zeharkatzen duelarik. Nabarmendu behar dira Oiertzun ibaiaren eta honen ibarrean, eskuinaldekoan bereziki, Auztegi errekan eta Elizaldeko hostozabalen basoetan dauden balio handiko elementuak, denak ere oso garrantzitsuak bertako faunaren babesleku eta lotura ekologikoaren ikuspegitik.

Oiertzun ibaiaren ezker aldeko ibai-terraza, zubitik behera, erabat artifizialdua dago eta berriki bizitegi-eremu baten eraikuntza amaitu da. Ibai-terrazaren gainerako eremua orain dela gutxi berriro diren kirol-instalazioek betetzen dute. Eremuaren gainerakoan han-hemenkako eraikuntzak, baserriak, belardiak eta baso txikiak dira nagusi.

GI-3631 errepidea zarata-iturri garrantzitsua da eta oztopo bilakatzen da errepideko alde bietako oinezkoen komunikaziorako. Ibaiaren Uholde-arriskuari dagokionez, bai Oiertzun ibaiak eta baita Auztegi erreka ere, uholde-orbanak dituzte ibaiertz bietan.

❖ Sarobe edo Txalaka erreka ibarra

GI-2132 errepidea zeharkatu eta Ugaldetxoko industrialdea inguratu aurretik, Sarobe erreka landazabaleko paisaia, belardiz eta hostozabalen basoz betea, han-hemenkako baserri eta egin berri diren etxez gain, nagusi den harana igarotzen du. Erreka honetako ura kalitate onekoa da eta ibarreko landaretza-orla ere egoera onetan dago, nahiz eta gune batzuetan degradatua egon eta sasiak eta zuhaixkak hartua. Haranaren sarreran eta erreka ezker aldean Zerradiko industrialdea dago.

Haranaren sarreran eta erreka ezker aldeko ertzean, Zerradi industrialdea dago kokatua, eta hau da, GI-2132 errepidearekin batera, zonalde osoko zarata-iturri garrantzitsuena eta inpakturik handieneko elementua.

Haran honetan azpimarratzekoa da Dorre Leizea, EHAeko monumentu izendatzeko proposatua. Kobazuloan 12.000 urteko hezur grabatu bat aurkitu zen.

❖ Elizalde

Eremuak Elizaldeko hirigunea hartzen du bere baitan, bidegorritik eta Oiertzun ibaitik, hegoaldera, Urkabe mendiko basoraino. Nagusiki hirigunea da, udalerrian natur balio handiko bi unitateren artean garatu dena, batetik, Oiertzun ibaia, zeinetan ibai-ekosistema nagusi den inguru lau batean eta, bestetik, Urkabe mendia, non basoa den nagusi eta malda pikoak dituena. Landazabaleko paisaia,

belardiekin eta basoekin, nagusi da hirigunean, komunikazioko bi bide garrantzitsuk zeharkatzen dutenak, batetik, GI-2134 errepideak, hirigunea iparraldetik inguratzen duena eta, bestea, GI-4632 errepidea, Ugaldetxotik igotzen dena.

❖ **Arragua**

Arragua eremua Oiertzungo udalerraren iparraldean kokatua dago, Errenteriarekin muga egiten du, esan daiteke hirigune jarraitua dela. Komunikazioko azpiegiturek, errepideak nahiz trenbideak, oso baldintzatuta daukaten eremua da (N-1, A-8, RENFE eta Euskotren), zarata-foku eta arrisku teknologikoen foko garrantzitsuak direnak. Horretaz gainera, eremua Lintzirin industrialdetik oso hurbil dago. Hirigunean gune degradatuak eta orubeak (Uretxe) antzeman dira, eta Euskotrenen trenbideak eta A-8ak zatitua dago. Natur elementuei dagokienez, A-8aren ekialdean eta Larzabalzarra baserriaren inguruan, belardi eta hostozabalen arboladiz nabarmetzen den nekazaritza kutsuko paisaia kontserbatzen da, Auztegi erreka haltzadia azpimarratzeko izanik. Urbanizatuagoa dagoen eremuan arboladi pare bat aurkitzen dira eta Lintzirin erreka, bi aldeak dezente asaldatuak dituena, eta gainera lurrez estalia dago, nola auzotik gora, hala auzotik behera, baina ibai-tarte horretan oraindik ere badu landaretza pixka bat.

10.5 PROPOSATUTAKO JARDUEREN ONDORIO ESANGURATSUENEN DESKRIBAPENA

Aurreko atalean deskribatutako eremu bakoitzerako, AASSen Berrikuspen Partzialeko proposamenek eragindako inpaktuen ebaluazioa egin da, honako aspektu hauek aintzat hartuz: Natur baliabideak (interes komunitarioko habitata eta landaretza oro har, espezie katalogatuak eta fauna oro har), Lotura ekologikoa, Baliabide estetiko-kulturalak edota paisaiari dagozkionak, Baliabide berriztagarriak eta ez-berriztagarriak (Lurzorua eta lur azpiko eta lur gaineko urak), Hondakinak eta kutsaduraren gehikuntza, Giza osasuna, hiri barruko ingurumenaren kalitatea eta sosegua, Nekazaritzako produkzioa, Kultur ondarea eta Arrisku eratorriak. Eremu horietako bakoitzari dagozkion inpaktu-matrizeak ere landu dira.

Hemen ondoren, eremu bakoitzeko inpaktu esanguratsuenen laburpen moduko bat aurkeztuko da.

❖ **Usategietako Gaina**

Eremu honen baitako inpaktuak, Lanbarrengainako (LAN-3) industrialde berriaren eraikuntzak eragindakoak dira.

Landaretza eta habitat interesgarrietan erasandako azalera murrizta bada ere, area honetako zatirik handiena betelanetan erabilia izan delako batik bat, garrantzia duten elementu naturalak dira, izan ere Jaizkibelgo eta Aiako Harriko gune naturalak batzen dituen korridore ekologikoan kokatzen den area baita eta, beraz, lotura ekologikoaren murrizketa eragin dezake.

Erasandako beste elementuetako bat paisaia da. Nabarmen aldatu den ingurune batean kokatuta badago ere, eremuak badu kontserbatu behar den nekazaritza kutsuko paisaia propioa. Bestalde, industrialde berria haranaren gainetik dagoen plataforma batean eraiki izanak, urrunetik ikusten den gunea bilakatzen du eta horrek ere inpaktua eragin dezake paisaiarekiko.

❖ **Oiartzun ibaiaren ibarra Ugaldetxo auzoan**

Eremu honekiko inpaktuak UGA-1-A areak eragindako jardueren ondorio dira. Baloratu da, halaber, UGA-4 eta UGA-2 areak etenda utzi izanaren emaitza.

Jardueren zatirik handienak lurzoru urbanizatuetan lokalizatu dira, beraz eremu honetan urriak dira oso elementu naturalei egotzi dakizkiekeen inpaktuak. Bakar-bakarrik, Oiartzun ibaiaren gaineko zubi berriaren eraikuntzak eragin ditzake afekzioak, bereziki uraren kalitatea eta ibarreko habitata erasanez. Bestalde, UGA-4ko hiri-garapenak eta UGA-2 errepidea bertan behera utzi izanak, modu positiboan eragingo dio ingurumenari.

Hiriko ingurumenaren kalitateari dagokionez, GI-3631 bidea desbideratzeko proposamen berriak eta oinezkoentzako erabilera publikoko guneak onuragarriak izango direla uste da, nahiz eta kontuan hartu beharko diren, halaber, zaratak eragin ditzakeen balizko afekzioak.

❖ **Sarobe erreka harana**

Eremu honen gaineko inpaktuak Zerradiberriko (UGA-12) industrialde berriak eta lehendik eraikita dagoen Zerradi (UGA-11) industrialdeak eragindakoak dira.

Zerradiberriko industrialde berria balio paisajistiko eta natural aberatsak dituen tokian kokatuta dago. Beraz, aurreikusita daude inpaktuak interes komunitarioko habitaten gainean (segarako belardiak) eta lehentasunezkoetan (haltzadiak), baita interesa duten hainbat fauna espeziengan ere (ferra-saguzarra bizi den eremua). Paisaiarekiko inpaktu garrantzitsua dago aurreikusita eremu honetan, nahiz eta Zerradi industrialdea lehendik ere bertan kokatua egoteak eta pantaila berdeak landatzeko aukerak, inpaktuaren eragina leundu dezaket. Lurzoruaren kontsumoa ere esanguratsua da, nekazaritzako lurrak direnez, etxebizitza gutxi batzuk eta baserri isolatu batzuk besterik ez baitaude zonalde honetan.

Kultur ondareari dagokionez, afekzioak aurreikusten dira Torreko Haitzuloaren eta Torres eta Zulotibar baserrien inguruetan, nahiz eta industrialdearen neurriak murrizteko erabakia hartu izanak (Zerradiko egungo eraikinen muga-lerroraino), nabarmenki arindu dituen aipaturiko afekzio horiek.

❖ **Elizalde**

Eremu honen gaineko inpaktuak ELI-6 areako bizitegi-garapenak eragindakoak dira. Halaber, ELI-4 areako desafekzioa ere baloratu da.

Inpakturik adierazgarriena paisaiari dagokiona da, izan ere area honetako jarduera haran osotik ikusgarritasun handikoa den eremu baten gainean kokatzen baita eta interes handiko elementuen presentziarekin: Doneztebe Eliza eta kanposantua. Esanguratsua da, halaber, lurzoruaren kontsumoa, balio agrologiko handiko nekazaritzako lurra baita eta zonaldean apenas dagoen eraikin isolaturen bat edo beste. Nolanahi ere, aipaturiko bi inpaktu horiek nabarmen gutxitu dira ELI-3 arean bertan behera utzitako jardueri esker.

Hiriko ingurumenaren kalitateari buruz, lanek iraun bitartean lur-mugimenduak eta kamioien joan-etorriak endredoak sorraraz baditzakete ere, arearen ordenamendu berriak inpaktu positiboak eragingo ditu, zalantzarik gabe, bideen antolakuntza hobetu eta ekipamendu berriak jartzen direnean.

❖ **Arragua**

ARR-1 arean aurreikusitako jarduerak eremu honetan sorrarazitako ingurumen-inpaktuen deskribapena egiten da, baita ARR-5 arean etenda utzi izanagatik (Zuzkidura-Parkea) ondorioztatzen direnak ere.

Arragua auzoan inpakturik esanguratsuenak, eremu honetan izandako biztanle-kopuruaren hazkundeak eragindakoak dira, hazkunde horrek zabor gehiago sortu eta kutsadura areagotuko baitu. ARR-5ean ere horrelako inpaktuak sor daitezke, eremuan kokatzen den jarduera edo instalazio motaren arabera. Bestalde, hirigunea hobetzeko jarduerak (sarbideak, ekipamendu publikoak, berdeguneak,...) hiriguneko ingurumenaren kalitatea hobetzeko elementuak izango dira eta, bidenabar, baliagarriak herritarren demandak artatzeko.

Arragua auzoan Natur baliabideei dagokienez, hostozabalen arboladiak eta inguruko belardiak erasango ditu urbanizazio berriak. Hala eta guztiz ere, jarduera positibotzat jo daiteke Lintzirin erreka ingurumena hobetu eta Larrezabaletako arean aurreikusitakoak bertan behera utzi izanaren eraginez. ARR-5 eremuan paisaiaren hauskortasuna eta ingurunearen natur interesa azpimarratzekoak dira, eta erasoak sor litezke adierazitako neurri prebentiboak eta zuzentzaileak hartzen ez badira.

Azkenik, arriskuei buruz, area honetan badira kontuan hartu beharreko arriskuak, alde batetik Lintzirin errekaren uholde-arrisku orbanak daude eta, bestetik, hurbileko azpiegituretako (N-1, A-8 eta Irun-Tolosa trenbidea) soinu-afekzioak eta merkantzia arriskutsuen garraioak ere aintzat hartu beharreko elementuak dira.

10.6 INPAKTUAK AURREIKUSI, MURRIZTU EDO INDARGABETZEKO NEURRIAK

Udalaz gaindiko planetatik eta bestelako plan orokorretatik ondorioztatzen diren neurriez gain, hemen ondoren, laburbilduz, erasandako eremu horietako bakoitzean hartu beharreko neurri garrantzitsuenak azpimarratu nahi dira.

❖ Usategietako Gaina

Lotura ekologikoari eusteko neurriak proposatzen dira, eremu hau Jaizkibelgo eta Aiako Harriko natur guneak lotzen dituen korridore ekologikoan kokatzen delako. Garrantzia handia eman nahi zaio eremuaren lotura gaitasuna bultzatzeko neurriei, horien artean, perimetroko eremuaren birlandaretza eta tratamendua batetik eta Oiertzungo Udalerriari dgokionez korridore ekologikoaren Plan Berezi bat egitea bestetik.

Paisaiarekiko inpaktu gutxitzearren, eraikin industrial berriak ezkutatuko dituzten landaretza-pantaila jartzeko aholkua egiten da.

Azkenik, enpresen birkokapenak ingurumenean ondorio positiboak izan ditzakeela ere azpimarratu nahi da, bereziki lekuz aldatuko den Recuperaciones Industriales Cadarso, Karrikako errekaren ertzaren ingurumen berreskupenerako neurriak adierazten dira.

❖ Ibaiertzei eman beharreko ingurumen-tratamendua eta Ugaldetxoko haltzadia berreskuratzea

Oiertzuni ibaiaren eskubiko ibaiertzean parkea osatzeko neurriak proposatzen dira elementu artifizialak kenduz, ibaiertzeko jatorrizko morfologia berreskuratuz eta birlandaketarako bertako espezie autoktonoak diren Kantauriko berezko habitatekoak diren haltzadiak erabiliz,. Zubi berriaren eragina gutxitzeko neurriak ere ezartzen dira, baita gainerako eremuan ibaiertzaren landaredia eta morfologiarengan eragina aldentzekoak ere. Epe ertainera komenigarria litzateke *Platanus sp* motako landaketak pixkanaka kenduz joatea, eta espezie horren ordeztzea.

Hots-eraginak arintzeko neurri prebentiboak hartzea gomendatzen da, horien artean zarata-faktorea hirigune berrien diseinu-fasean kontutan hartzea eta fatxaden isolatzea edo hots-pantailen kokapenak aurreikustea proposatzen da.

❖ **Sarobe erreka harana babestea**

Gaur egungo Zerradi industrialderako neurriak proposatzen dira, bertako eraikinak haranetik isolatzeko helburuarekin eta jarduera berriak disimulatzeko asmoarekin landaretza-orkak ezarriko dira eremu honetan. Eskuhartzen ez diren eremuak baratzeekin edo txabolekin ez okupatzearen beharra azpimarratzen da, eta baita zaborren pilaketa saihestea ere. Ildo beretik, berdegune berrien erriberako ekosistema berreskuratzeko dagoen premia ere jasota dago txostenean.

Industrialde berriari dagokionez, paisai inpaktua gutxitzeko neurriak proposatzen dira, horien artean landaretza-pantailak eta natur intereseko elementuak kontserbatu eta indartzeko neurriak ere proposatzen dira, gaur egun dauden zuhaitzak kontserbatzea eta Sarobe erreka ondoko eremu guztian eta urbanizazio bitartean haltzadia berreskuratzea. Haranaren babesa indartzeko Babes Bereziko Lurzoru Ez-Urbanizagarriko mugapena zabaltzea proposatzen da, UGA-12 eremutik kanpo geratzen diren azalaretan, azalera horiek Sarobe erreka harana osatzen duen multzoan integratuz.

❖ **Elizalde Auzoa**

ELI-6 areako jarduera ingurune garaituan eta bisualki ahula den batean kokatzen denez, paisaiarekiko inpaktua gutxitzeko helburua duten neurriak hartu dira. Faktore hau kontuan hartu beharko da eraikinen altuera eta kokapena proiektatzeko orduan, baita hauen tipologia eta itxura ere. Aintzat hartu beharko da, halaber, kanposantuaren presentzia, erreferentziako elementu paisajistikoa denez, orain dituen berezko ezaugarriei eustearren (auzo-gunetik aparte, belardiz eta arboladiz inguratua).

Eremu honetan azaloramendu jurasiko bat dago eta bertan fosil ugari aurkitu direnez eta eremu honek tokiko interesa izan dezakeenez, aztarnategi hau kontserbatzeko neurriak proposatzen dira. Obrak egiterakoan, jarraipen geologiko bat egitea proposatzen da, ager daitezkeen fosil interesgarriak bildu eta aztarnategiaren ezaugarri nagusiak (ezpondak, lur-azpiko eremuak, etab.) interpretatu eta bistaratzeko puntu jakin batzuk ezarriz.

❖ Arragua eremua

→ ARR-1eko jarduketan ondoriozko neurriak

Hostozabalen arboladiak kontserbatzeko premia adierazten da, urbanizazioaren diseinuan berdegune gisa integratzeko proposamenarekin batera. Hurbileko natur elementuekin lotzeko gomendioa ere egiten da (Lintzirin erreka), eremua isolaturik gera ez dadin.

Lintzirin erreka ingurumena hobetzeko aurreikusitako jarduerari dagokionean, naturaltasun irizpideak txertatzea proposatzen da, erabilera publiko eta baliabide didaktiko gisa baliatzearekin batera. Uholdeak izateko arriskua duen zonaldean, dagokion azterketa hidraulikoan ezarritakoa bete beharko da.

Zarataren afekzioak gutxitzeko neurriei dagokienez, berriz, Oiartzungo Ingurumen-Zarataren Kudeaketa eta Ebaluaketako Planean (AAC Akustika Aplikatuko Zentroa S.L.) enpresak zehaztutako gomendioak proposatzen dira. Neurri horiek bereziki prebentziozkoak dira, zarataren faktorea bizitegi-zonalde berrian sartuz. Gomendatzen da, halaber, eremu honen konplexutasunak eraginda (area hau A-8, N-1 errepideen eta Irun-Tolosa trenbidearen emisio akustikoen erasanpean dago), xehetasun akustikoko azterketa bat egitea.

→ ARR-5eko jarduketan ondoriozko neurriak

Zuhaitziak eta bakarkako zuhaitzak bezelako guneko natura mailako interesa duten elementuen zaintzean indarra jartzen da, eta era berean birlanaketa lanak egitearen garrantzian beti ere okupatzen ez den luraren degradazioa aldentzeko.

Paisaiarekiko eraginei buruz, jarduera natura eta paisai mailako entono bikain batean kokatzen da, eta horregatik jarduera bertan integratzeko saiakera egin beharko da.

Bukatzeko, bertan kokatuko den jarduera edota instalakuntza zehazteko garaian, gertuko biztanleriari eta balorea duten natura mailako elementuei erakar diezaziokeen eragina kontuan izanda bere egokitasuna neurtu beharko da.

10.7 PLANAK INGURUMENAREKIKO DITUEN ONDORIOEN SEGIMENDUA

Ingurunean Planaren aplikazioak dituen eraginen jarraipenaren helburu nagusia aurreikusten ez diren eragin negatiboak ahalik eta azkarren identifikatzea da, horrela eta horiek saihesteko, neurri egokiak abian jarri ahal izateko. Jarraipena egitea erakunde sustatzaileari dagokio, kasu honetan Oiartzungo Udalarari, bai bertako pertsonal kualifikatuaren bitartez, bai horretan espezializatua dagoen aholkularitza baten bitartez.

Eskuartearen dugun kasuan, Berrikuspen Partziala denez, udalerriko eremu jakin batzuk berrikusten dituen, ondorengo hau proposatzen da:

- **Berrikuspen Partzialetik ondorioztatzen diren agirietan planteatzen diren neurrien integrazioa:** eremu bakoitzerako eta, oro har, maila orokorrean proposatutako neurrien jarraipena egingo da eta neurri horiek guztiak ordenamenduarekin eta exekuzioarekin lotutako dokumentuetan integratuko dira.

- **Obra-fasean neurriak betetzen direla ziurtatzeko jarraipena:** Obren fase honetan, ingurumen jarraipena egingo da txosten honetan planteatzen diren neurriak, orokorrak zein eremu bakoitzeko espezifikoak, aplikatzen direla egiaztatzeko.

Aldizkako bisitak eginez, in situ ikusiko dira neurriak hartzen diren, eta horretaz gainera, ondoren adierazten diren neurri orokorren jarraipena egingo da: obrak eragindako lur-azalera, habitat edo natur elementuen gaineko eragina, gainazaleko uren kalitatea, Jabari Publiko Hidraulikoaren gaineko eragina, interes kultureko elementuen kontserbazioa, eta zarata, atmosferaren kutsadura eta obra hondakinen mailaren jarraipena.

Alderdi orokor horiez gainera, eremu zehatz bakoitzean, garrantzi bereziko elementuak definitzen dira, jarraipen egokia egin beharko zaizkienak:

- ▶ *Usategietako gaina:* lotura ekologikoko elementuen zaintza eta lehengoratzea (arboladiak, hesiak) eta paisaiaren integrazioa
- ▶ *Oiertzungo ibaiaren ibarra, Ugaldetxon:* ibarren eta bertan izan dezaketen landaretza zaintza eta berreskuratzea, uholde-arriskuari buruzko neurrien aplikazioa eta zaraten eraginari buruzko neurrien aplikazioa
- ▶ *Sarobe harana:* dorre Leizearen eta hurbileneko inguruaren zaintza, ibarren eta bertako landaretzaren zaintza eta leheneratzea, uholde-arriskuari buruzko neurrien aplikazioa eta paisaiaren integrazioa
- ▶ *Elizalde auzoa:* bizitegi-garapen berriaren paisaia eta hiri-integrazioa, eta balio geologikoko elementuen jarraipena
- ▶ *Arragua eremua:*
 - ARR-1:* baso hostozabalen kontserbazioa, Lintzirin errearen ibaiertzeko jarduerak, zarata-inpaktuen inguruko neurrien aplikazioa eta uholde-arriskuari buruzko neurrien aplikazioa.
 - ARR-5:* natur intereseko elementuak kontserbatzea eta paisaia integratzea.

11. ERANSKINAK

- 1. ERANSKINA:** BERRIKUSPEN PARTZIALAREN EREMUAN EGON DAITEZKEN ESPEZIEN ZERRENDA
- 2. ERANSKINA:** OIARTZUNGO UDALERRIKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ZATIKAKO BERRIKUSKETA DELA ETA BEHARREZKO AZPIEGITURA HIDRAULIKO ETA BALIABIDE HIDRIKOEI BURUZKO TXOSTENA
- 3. ERANSKINA:** INGURUMEN ERAGILEEN ETA ARRISKUEN MAPAK

1. ERANSKINA: BERRIKUSPEN PARTZIALAREN EREMUAN EGON DAITEZKEN ESPEZIEN ZERRENDA

Iturria: Informe de respuesta a consultas previas de ECIA de la “Revisión Parcial de Normas Subsidiarias de Oartzun” T.M. de Oartzun (Gipuzkoa) – Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetazako Zuzendaritza. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritza. 2008 abuztua.

Peces continentales	<i>Anguilla anguilla</i>	Anguila	No amenazada
Peces continentales	<i>Barbatula barbatula</i>	Lobo de río	No amenazada
Peces continentales	<i>Carassius auratus</i>	Pez rojo	No amenazada
Peces continentales	<i>Gasterosteus gymnurus (=G. aculeatus)</i>	Espinoso	Vulnerable
Peces continentales	<i>Phoxinus phoxinus</i>	Piscardo	No amenazada
Peces continentales	<i>Salmo trutta</i>	Trucha común	No amenazada
Anfibios	<i>Alytes obstetricans</i>	Sapo partero común	No amenazada
Anfibios	<i>Bufo bufo</i>	Sapo común	No amenazada
Anfibios	<i>Bufo calamita</i>	Sapo corredor	Vulnerable
Anfibios	<i>Rana perezi</i>	Rana común	No amenazada
Anfibios	<i>Rana temporaria</i>	Rana bermeja	No amenazada
Anfibios	<i>Salamandra salamandra</i>	Salamandra común	No amenazada
Anfibios	<i>Triturus helveticus</i>	Tritón palmeado	No amenazada
Anfibios	<i>Triturus marmoratus</i>	Tritón jaspeado	No amenazada
Reptiles	<i>Anguis fragilis</i>	Lución	No amenazada
Reptiles	<i>Coronella austriaca</i>	Culebra lisa europea	No amenazada
Reptiles	<i>Elaphe longissima</i>	Culebra de Esculapio	De interés especial
Reptiles	<i>Elaphe scalaris</i>	Culebra de escalera	De interés especial
Reptiles	<i>Lacerta bilineata</i>	Lagarto verde	No amenazada
Reptiles	<i>Lacerta vivipara</i>	Lagartija de turbera	No amenazada
Reptiles	<i>Natrix maura</i>	Culebra viperina	No amenazada
Reptiles	<i>Natrix natrix</i>	Culebra de collar	No amenazada
Reptiles	<i>Podarcis hispanica</i>	Lagartija ibérica	No amenazada
Reptiles	<i>Podarcis muralis</i>	Lagartija roquera	No amenazada
Reptiles	<i>Vipera seoanei</i>	Víbora de Seoane	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Accipiter gentilis</i>	Azor	Rara
Aves nidificantes	<i>Accipiter nisus</i>	Gavilán	De interés especial
Aves nidificantes	<i>Aegithalos caudatus</i>	Mito	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Alauda arvensis</i>	Alondra común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Alectoris rufa</i>	Perdiz roja	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Anas platyrhynchos</i>	Anade azulón	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Anthus spinoletta</i>	Bisbita alpino	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Anthus trivialis</i>	Bisbita arbóreo	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Apus apus</i>	Vencejo común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Buteo buteo</i>	Busardo ratonero	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Caprimulgus europaeus</i>	Chotacabras gris	De interés especial
Aves nidificantes	<i>Carduelis carduelis</i>	Jilguero	No amenazada

Aves nidificantes	<i>Carduelis cannabina</i>	Pardillo común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Carduelis chloris</i>	Verderón común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Certhia brachydactyla</i>	Agateador común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Cettia cetti</i>	Ruiseñor bastardo	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Charadrius dubius</i>	Chorlitejo chico	Vulnerable
Aves nidificantes	<i>Cinclus cinclus</i>	Mirlo acuático	De interés especial
Aves nidificantes	<i>Circus cyaneus</i>	Aguilucho pálido	De interés especial
Aves nidificantes	<i>Circaetus gallicus</i>	Culebrera europea	Rara
Aves nidificantes	<i>Cisticola juncidis</i>	Buitrón	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Corvus corone</i>	Corneja negra	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Corvus corax</i>	Cuervo	De interés especial
Aves nidificantes	<i>Cuculus canorus</i>	Cuco	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Delichon urbica</i>	Avión común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Dendrocopos major</i>	Pico picapinos	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Dendrocopos minor</i>	Pico menor	De interés especial
Aves nidificantes	<i>Emberiza cia</i>	Escribano montesino	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Emberiza citrinella</i>	Escribano cerillo	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Erithacus rubecula</i>	Petirrojo	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Falco peregrinus</i>	Halcón peregrino	Rara
Aves nidificantes	<i>Falco tinnunculus</i>	Cernícalo vulgar	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Fringilla coelebs</i>	Pinzón vulgar	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Gallinula chloropus</i>	Gallineta común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Garrulus glandarius</i>	Arrendajo común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Gyps fulvus</i>	Buitre leonado	De interés especial
Aves nidificantes	<i>Hieraaetus pennatus</i>	Aguilla calzada	Rara
Aves nidificantes	<i>Hippolais polyglotta</i>	Zarcero común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Hirundo rustica</i>	Golondrina común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Jynx torquilla</i>	Torcecuello	De interés especial
Aves nidificantes	<i>Lanius collurio</i>	Alcaudón dorsirrojo	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Larus cachinnans</i>	Gaviota patiamarilla	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Locustella naevia</i>	Buscarla pintoja	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Miliaria calandra</i>	Triguero	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Milvus migrans</i>	Milano negro	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Milvus milvus</i>	Milano real	Vulnerable
Aves nidificantes	<i>Monticola saxatilis</i>	Roquero rojo	De interés especial
Aves nidificantes	<i>Motacilla alba</i>	Lavandera blanca	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Motacilla cinerea</i>	Lavandera cascadeña	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Muscicapa striata</i>	Papamoscas gris	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Neophron percnopterus</i>	Alimoche común	Vulnerable
Aves nidificantes	<i>Otus scops</i>	Autillo	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Parus ater</i>	Carbonero garrapinos	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Parus caeruleus</i>	Herrerillo común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Parus cristatus</i>	Herrerillo capuchino	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Parus major</i>	Carbonero común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Parus palustris</i>	Carbonero palustre	No amenazada

Aves nidificantes	<i>Passer domesticus</i>	Gorrión común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Passer montanus</i>	Gorrión molinero	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Pernis apivorus</i>	Abejero europeo	Rara
Aves nidificantes	<i>Phoenicurus ochruros</i>	Colirrojo tizón	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Phylloscopus ibericus/collybita</i>	Mosquitero ibérico/común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Picus viridis</i>	Pito real	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Prunella modularis</i>	Acentor común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Ptyonoprogne rupestris</i>	Avión roquero	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Pyrrhula pyrrhula</i>	Camachuelo común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Regulus ignicapillus</i>	Reyezuelo listado	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Saxicola torquata</i>	Tarabilla común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Serinus serinus</i>	Verdecillo	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Sitta europaea</i>	Trepador azul	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Strix aluco</i>	Cárabo	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Streptopelia decaocto</i>	Tórtola turca	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Sturnus vulgaris</i>	Estornino pinto	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Sylvia atricapilla</i>	Curruca capirotada	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Sylvia borin</i>	Curruca mosquitera	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Sylvia undata</i>	Curruca rabilarga	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Troglodytes troglodytes</i>	Chochín	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Turdus merula</i>	Mirlo común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Turdus philomelos</i>	Zorzal común	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Turdus viscivorus</i>	Zorzal charlo	No amenazada
Aves nidificantes	<i>Tyto alba</i>	Lechuza común	No amenazada
Mamíferos	<i>Apodemus sylvaticus</i>	Ratón de campo	No amenazada
Mamíferos	<i>Arvicola terrestris</i>	Rata de agua norteña	No amenazada
Mamíferos	<i>Clethrionomys glareolus</i>	Topillo rojo	No amenazada
Mamíferos	<i>Crocidura russula</i>	Musaraña común	No amenazada
Mamíferos	<i>Crocidura suaveolens</i>	Musaraña campesina	No amenazada
Mamíferos	<i>Eptesicus serotinus</i>	Murciélago hortelano	De interés especial
Mamíferos	<i>Erinaceus europaeus</i>	Erizo común	No amenazada
Mamíferos	<i>Felis silvestris</i>	Gato montés	De interés especial
Mamíferos	<i>Galemys pyrenaicus</i>	Desmán del Pirineo	En peligro de extinción
Mamíferos	<i>Genetta genetta</i>	Gineta común	No amenazada
Mamíferos	<i>Glis glis</i>	Lirón gris	Vulnerable
Mamíferos	<i>Martes foina</i>	Garduña	No amenazada
Mamíferos	<i>Meles meles</i>	Tejón	No amenazada
Mamíferos	<i>Microtus agrestis</i>	Ratilla agreste	No amenazada
Mamíferos	<i>Microtus duodecimcostatus</i>	Topillo mediterráneo	No amenazada
Mamíferos	<i>Microtus gerbei</i>	Topillo pirenaico	No amenazada
Mamíferos	<i>Microtus lusitanicus</i>	Topillo lusitánico	No amenazada
Mamíferos	<i>Micromys minutus</i>	Ratón espiguero	No amenazada
Mamíferos	<i>Mus domesticus</i>	Ratón casero	No amenazada
Mamíferos	<i>Mustela lutreola</i>	Visón europeo	En peligro de extinción
Mamíferos	<i>Mustela nivalis</i>	Comadreja	No amenazada
Mamíferos	<i>Mustela putorius</i>	Turón común	De interés especial

Mamíferos	<i>Myocastor coipus</i>	Coipú	No amenazada
Mamíferos	<i>Myotis daubentonii</i>	Murciélago ribereño	De interés especial
Mamíferos	<i>Myotis nattereri</i>	Murciélago de Natterer	Rara
Mamíferos	<i>Neomys fodiens</i>	Musgaño patiblanco	No amenazada
Mamíferos	<i>Nyctalus leisleri</i>	Nóctulo pequeño	Rara
Mamíferos	<i>Oryctolagus cuniculus</i>	Conejo común	No amenazada
Mamíferos	<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	Murciélago común	No amenazada
Mamíferos	<i>Rattus norvegicus</i>	Rata gris	No amenazada
Mamíferos	<i>Rattus rattus</i>	Rata campestre	No amenazada
Mamíferos	<i>Rhinolophus euryale</i>	Murciélago mediterráneo de herradura	En peligro de extinción
Mamíferos	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	Murciélago grande de herradura	Vulnerable
Mamíferos	<i>Sciurus vulgaris</i>	Ardilla común	No amenazada
Mamíferos	<i>Sorex coronatus</i>	Musaraña de Millet	No amenazada
Mamíferos	<i>Sorex minutus</i>	Musaraña enana	No amenazada
Mamíferos	<i>Sus scrofa</i>	Jabalí	No amenazada
Mamíferos	<i>Talpa europaea</i>	Topo común	No amenazada
Mamíferos	<i>Vulpes vulpes</i>	Zorro rojo	No amenazada

2. ERANSKINA: OIARTZUNGO UDALERRIKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ZATIKAKO BERRIKUSKETA DELA ETA BEHARREZKO AZPIEGITURA HIDRAULIKO ETA BALIABIDE HIDRIKOEI BURUZKO TXOSTENA

Iturria: Oiartzungo Udala. 2008 abendua.

Aurkibidea

1. Aurrekariak.
2. Aurreikusi daitezkeen kontsumoak.
3. Egon daitezkeen eskariak asetzeko baliabide hidrikoak.
4. Azpiegitura hidrauliko berrien beharrak.
 - 4.1 Ur-hornidura
 - 4.2 Saneamendua
5. Ondorioak.

1. Aurrekariak

Txosten honen helburua, Oiartzungo udalerriko planeamenduko AASSen zatikako berrikusketan -ARR-1, ARR-5, UGA-1-A, UGA-1-C, UGA-1-D, UGA-2, UGA-4, UGA-5-A, UGA-11, UGA-12, UGA-14, ELI-3, ELI-4, ELI-6 eta ELI-3 eremuei dagokienez-, aurreikusten den ur eskariari aurre egiteko, azpiegitura hidrauliko eta baliabide hidrikoak aztertzea da; bai eta aipatu dokumentuan ur-horniduran eta saneamenduan beharrezkoak izango diren azpiegitura berriak baloratzea.

2. Aurreikusi daitezkeen kontsumoak.

Oiartzungo udalerrian egun 9.898 biztanle daude, Udal biztanle erroldako 2008ko urriaren 1eko datuen arabera. Biztanleria honek, 3.030 etxebizitza okupatzen ditu.


Datozen hamar urteetan eta plangintza dokumentu honen aurreikuspenen ondorioz, Oiartzungo udalerrian etxebizitza kopurua 600-700 unitatetan eta lur zoru industrialak 67.081m²-tan haziko dela aurreikusten da.

Planifikaturiko etxebizitza berri kopurua ikusiaz, ez da biztanleriaren hazkunde handiegirik aurreikusten. Gaur egungo gizartearen joera kontutan izanik, familiak geroz eta txikiagoak dira, beraz etxebizitza bakoitzean jende gutxiago bizi da. Ondorioz, zera esan daiteke: biztanleria, ez dela haziko etorkizunean egingo diren etxebizitza kopuruaren parean eta ondorioz, ur-kontsumoa ere ez.

Beraz biztanleriaren hazkundera askoz txikiagoa izango da eta gainera, kontutan izan behar da, biztanle bakoitzak egunero kontsumitzen dituen litro kopurua ere jaitsiz doala azken urteetan.

Gogora ekarri behar da, 3.200.397 m³ko ur kontsumo batetik 1995 urtean, 2007an 1.676.970 m³ko ur kontsumo batera pasa dela (% 47,60 gutxiago), bitartean biztanleria bere aldetik eta antzeko denbora tartean 918 biztanletan hazi zen (%10,28 gehiago).

Urtea	Ur kontsumoa totala m ³	Irakurritako ur kontsumoak	Biztanleak	Litro/egun/Bizt. irakurritakoarekin
1995	3.200.397	812.081	8.926	249,26
1996	3.176.143	820.592	8.912	252,27
1997	3.018.918	800.535	8.991	243,94
1998	2.818.356	869.460	9.029	263,83
1999	2.707.301		9.145	0,00
2000	2.392.198	1.236.197	9.176	369,10
2001	2.197.954	1.041.729	9.290	307,22
2002	2.020.904	1.003.818	9.395	292,73
2003	2.020.719	955.130	9.620	272,02
2004	2.024.695	1.039.266	9.717	293,02
2005	1.990.964	1.049.063	9.817	292,77
2006	2.020.853	922.879	9.799	258,03
2007	1.676.970	857.955	9.844	238,78



1995.urteetik 2007.urtera Oiartzunen izan den kontsumoen bilakaera.

Kontsumoetan izan den beherakada, hornidura-sarean bilatu izan diren fugengatik eta hodiak berritzen egin den ahaleginarengatik izan da. Lan hau, azken urteetan egin den bezala datozen urteetan ere egiten jarraituko da, beraz esan daiteke kontsumoak beherako tendentzia bat izaten jarraituko duela.

3. Egon daitezkeen eskariak asetzeko baliabide hidrikoak.

Oiartzungo udalean, gaur egun bi ur-hartune propio ustiatzen dira. Epelekoa eta Penadegikoa. Bi ur-hartune hauen artean, 75 l/sko emari konstante bat ematen dute. Emari honen %70a behar izaten da, dauzkagun ur-eskaerei aurre egiteko. Kontutan izanik, gaur egun dauzkagun eskarien joera beheranzkoa dela, esan genezake bi hartune hauek nahikoak direla.

Baina eskaria haziko balitz, beste bi ur-hartune propio ditugu. Karrika eta Eldotz dira beste bi ur-hartune hauek eta bien artean beste 170 l/sko emari konstante bat eman dezakete. Hala ere, azken bi ur-hartune hauetan azpiegitura berriak egin beharko lirakeke, erabili gabe denbora asko daramatelako. Azpiegiturak esaten dugunean, ura edangarri bihurtzeko estazioak eta hornidura sarearekin konektatzeko beharrezkoak diren hodi, ur-gordailuak eta abar esan nahi dugu.

Ur-hartune propioez gainera Añarbeko Mankomunitateko kide da Oiartzungo udala. Gaur egun erabiltzen ez bada ere, Añarbek Oiartzunentzako 71 l/sko kontzesio bat dauka emana.

Guztiak batuz gero, 316 l/sko emari bat izango genuke. Emari honen %17a da gaur egun behar duguna. Esan daiteke beraz, martxan dauzkagun emariak nahikoak direla beharrak asetzeko. Erabiltzen ez ditugunak berriz soberan ditugu etorkizunean egon daitezken eskariei aurre egiteko.

4. Azpiegitura hidrauliko berrien beharrak.

4.1. Ur-hornidura

Ur-hornidura sarearen egitura kontutan hartuta, auzo guztietatik pasatzen den hodi orokorrak, auzo bakoitzean egin daitezken promozio berriei ura behar adina emari eta presioarekin hornitzeko gai dela ikusten dugu. Herriko ur-gordailu nagusia ere (Arrietako ur-gordailua 5.200 m³) datozen hamar urteetarako nahikoa izango dela pentsatzen dugu. Dauzkagun ur-gordailuak nahikoak direla pentsatzen dugu kontsumoaren beherakadak direla eta.

4.2. Saneamendua

Ur-hornidurarekin gertatzen den moduan, saneamendu sarea ere auzo guztietatik pasatzen da Gurutzeko auzotik izan ezik. Aipatu behar da herriko zenbait puntu, oraindik saneamendu sarera konektatu gabe daudela baina udala, Añarbeko mankomunitatearekin batera puntu hauek kolektore nagusira sartzen ari dela.

Kolektore nagusia Ergoien auzoan hasi eta Arragua arte doa eta beste adarra Lanbarrengo poligonoan hasi eta Arraguan aurrekoarekin elkartzen da. Lehenengoa, pvc-zko Ø315mm-tako hodi batekin hasten da eta azken zatia hormigoizko Ø 700 mm-tako du eta bigarrenak, Ø600mm-tako hormigoizko hodi batekin hasten da eta Ø 800mm-tako hodiarekin bukatu. Sare nagusi honek ondo funtzionatzen du gaur egun.

Egingo diren promozio berriak kolektore sare honetara gehitu beharko dira eta uste dugu, sareak behar berri hauek jasateko nahiko diametro duela. Beste alde batetik, aipatu behar da saneamendu sare nagusia Añarbeko mankomunitatearen esku dagoela.

5. Ondorioak.

Oiartzungo ur-hornidura eta saneamendu sistemak behar adinako baliabide hidriko, potabilizazio sistema eta altako eta bajako azpiegiturak ditu, AASS zatikako berrikusketan, ARR-1, ARR-5, UGA-1-A, UGA-1-C, UGA-1-D, UGA-2, UGA-4, UGA-5-A, UGA-11, UGA-12, UGA-14, ELI-3, ELI-4, ELI-6 eta ELI-3 eremuetan izan daitezkeen hazkundearen eraginez sortu daitezkeen beharrak bermatzeko.

3. ERANSKINA: INGURUMEN ERAGILEEN MAPAK

- I.1 Mapa: "Usategietako Gaina" eta "Arragua" guneen Ingurumen Eragileak (I)
- I.2 Mapa: "Elizalde", Oiartzungo ibarra (Ugaldetxo)" eta "Sarobe ibarra (Ugaldetxo)" guneen Ingurumen Eragileak (I)
- II.1 Mapa: "Usategietako Gaina" eta "Arragua" guneen Ingurumen Eragileak (II)
- II.2 Mapa: "Elizalde", Oiartzungo ibarra (Ugaldetxo)" eta "Sarobe ibarra (Ugaldetxo)" guneen Ingurumen Eragileak (II)

4. ERANSKINA: ARRISKUEN MAPAK

- 1. Mapa: Uholde-arriskuarekin erlazionatutako arriskuak
- 2. Mapa: Arrisku sismikoa
- 3. Mapa: Baso-sute arriskua
- 4.1 Mapa: Arrisku teknologikoak – merkantzia arriskutsuen errepide bidezko garraioa
- 4.2 Mapa: Arrisku teknologikoak – merkantzia arriskutsuen trenbide bidezko garraioa